

OMAS GARBIZO

1901-1989





TOMAS GARBIZU SALABERRIA 1901-1989



TOMAS GARBIZU SALABERRIA

1901-1989

Patxi Intxaurrendieta eta Patri Urkizu

Hitzaurrea:
J. I. Tellechea idígoras



Lezoko Unibertsitateko Udala

Gutziz debekatuta dago liburu hau bere osoan edo zati batean erreproduzitzea, hala nola edozein sistema informatikotan edo bestelako almagaznamendu edo informazio-lorpenekotan sartzea eta edozein modutan edo dena-delako baliabide erabiliz transmititzea, baliabide hori elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazio nahiz bestelako metodozkoa izanda ere, Lezoko Unibertsitateko Udalararen alde zurretiko eta idatzizko baimenik gabe.

©Patxi Intxaurrendieta eta Patri Urkizu

©Azala eta diseinua: Kolore

©Lezoko Unibertsitateko Udala 2002

ISBN:xxxxxx

Lege gordailua: SS- xxxxxx

Inprimatzailea: Arteder. Irun

AURKIBIDEA

Bi hitz, <i>Imanol Esnaola</i> Lezoko Udaleko Kultura-zinegotzia	13
Esker onez, <i>Patxi Intxaurrendieta eta Patri Urkizu</i>	15
Hitzaurrea, <i>J. Ignacio Tellechea Idigoras</i>	17
Tomas Garbizu, in memoriam, <i>Xabier Lete</i>	21
TOMAS GARBIZU SALABERRIAREN BIOGRAFIA	23
HAURTZARO ETA GAZTAROA (1901-1936)	25
XX. mende hasierako Lezon	25
Arantzazuko ikasketak	39
Lehen musika eta idazlanak	42
ERBESTEAN (1936-1952).	53
Donibane Lohizunen	53
Maurice Ravelen obraren miresle	58
Madrilen	60
BERRIRO TXOKOAN (1952-1989)	73
Donostiako Musika Kontserbatorioko katedraduna	73
Ikasle ospetsuak	83
Sariak, omenaldiak eta azken urteak	84
TESTIGANTZAK	107
TOMAS GARBIZU, Jose Ignazio Ansorena Miner	109
TOMAS GARBIZU, Pello Zabala	113
TOMAS GARBIZU ELIZ MUSIKALARIARI ESKER ON, Eustasio Etxezarreta	117
EL ÚLTIMO DECENIO DE TOMÁS GARBIZU, Ander Letamendia	119
REFLEXIÓN DESPUÉS DE LA CELEBRACIÓN DEL CENTENARIO AL MAESTRO TOMÁS GARBIZU SALAVERRIA, Jose Maria Zapiain	127
CARTA A TOMÁS GARBIZU EN EL CENTENARIO DE SU NACIMIENTO, Esteban Elizondo	129
TOMAS GARBIZU, NIRE MAISUA, Mari Koro Saenz	131
UN HOMBRE CORDIAL, Jesus Mari Alberdi	133
UNA VIVENVIA IRREPETIBLE, Maite Bidegain	135

TOMAS GARBIZU, Miren Derteano	137
RECUERDOS DE UN GRAN MÚSICO VASCO, Fernando Echepare	139
TOMAS GARBIZU, German Ormazabal	141
TOMAS GARBIZU, M ^a Angeles Olariaga	143
TOMAS GARBIZU, PERSONALIDAD ENÉRGICA Y PERSUASIVA, Herminia Laborde	145
TOMAS GARBIZUREN ZENBAIT KONPOSIZIO. HURBILTZE SAIOA	147
ORKESTRA	155
Concierto mágico biolina eta orkestrarako kontzertua	155
Concertante para trompa y orquesta	157
AHOTSA ETA ORKESTRA	159
“ <i>Aloña</i> ” Arantzazuko mendí abestia	159
<i>Babilon Beltza</i> kantata	161
<i>Basojaun</i> poema koreografikoa	164
<i>Danos la paz</i> kantata	166
<i>Kanta Kantari</i>	168
“ <i>Cinco melodías vascas</i> ”	170
AHOTSA ETA PIANO	172
<i>Viejas canciones donostiaras – Donostiko kantu zarrak</i>	172
ORGANO	182
<i>Cantantibus Organis</i>	182
<i>Sequentia sobre “Victimae Paschali”</i>	183
<i>Jesús y la samaritana</i> (Tríptico del Buen Pastor)	186
<i>Tríptico sobre un tema gregoriano</i>	191
<i>Cortejo y danza</i>	195
<i>Ainitz urte</i>	197
PIANO	199
<i>Euskal dantzak</i>	199
<i>Un mandamiento nuevo</i>	213
<i>Eusko cadencias</i>	214
TXISTUA	214
MEZAK	221
<i>Benedicta</i>	224

<i>Gure Meza</i>	237
ZINEMARAKO MUSIKA	259
HAINBAT IDAZLAN	273
ARTÍCULOS EN CASTELLANO	275
EUSKARAZKO ARTIKULUAK	353
IDAZLANEN ZERRENDA	363
KATALOGOA	371
ORKESTRARAKO OBRAK	373
Orkestra soila	373
Instrumentu bakarlarria eta orkestra	373
Ahotsa/k eta orkestra	373
Abestaldea eta orkestra	374
AHOTS TALDEENTZAT	375
Abestaldea ahots batera “a capella”	375
Zehaztu gabeko hainbat ahots “a capella”	375
Ahots nahasiak “a capella”	376
Ahots zuriak “a capella”	380
Gizonezkoen abestaldea “a capella”	384
AHOTS TALDEA ETA INSTRUMENTUARENTZAT	386
Ahots nahasiak eta pianoa (organoa)	386
Ahots zurien abestaldea eta pianoa (organoa)	387
Abestaldea eta txistulari banda	387
AHOTSENTZAT	387
Ahots bat	387
Bikoteak	388
Hirukoteak	388
Ahots bat eta pianoa (organoa)	388
Zenbait ahots eta pianoa (organoa)	394
Zenbait ahots eta gitarra	395
Ahotsa/k eta beste instrumentuak	395

INSTRUMENTU BATENTZAT	396
Pianoa	396
Organoa	398
Beste instrumentuak	400
INSTRUMENTU TALDEENTZAT	400
Bi instrumentu	400
Txistua eta pianoa	402
Beste hainbat instrumentu	403
BESTE INSTRUMENTU TALDEENTZAT	403
Txistulari banda	403
Txistulari banda eta beste instrumentuak	404
MUSIKA ERLIJIOSOA	405
Mezak	405
Liturgiarako musika	407
ZIRKUNSTANTZIAZKO MUSIKA	425
ZINEMARAKO MUSIKA	426
LANEN ZERREDA KRONOLOGIKOA	427
LANEN ZERREDA ALFABETIKOA	445
DISKOGRAFIA	461
TOMAS GARBIZURI BURUZKO BIBLIOGRAFIA	471
ARGITALETXEAK ETA MUSIKA BANATZAILEAK	473
LABURDURAK	474
IZENDEGIA	475

B i h i t z

Tomas Garbizuren lekzioa

Musikari buruz ezer gutxi dakit. Baina Garbizu irakaslearekin lekzio bat ikasi dudala esan dezaket. Hil eta gero ere, bera jaio eta ehun urtera, Garbizu oraindik "maisua" dugu. Gaur egungo euskaldunok Garbizuk emandako ikasgaiari erreparatu behar diogulakoan nago.

Ez zituen garai errazak bizi izan Garbizuk. Garai gaitzak izan ziren euskaldun sena bihotzean zeraman edozeinentzat. Mendez mendez, Madrilgo gortean barre algarak egin dituzte euskaldunon lepotik. Barre algarak gure musika eta gure dantzak ikusita, barre algarak gure hizkuntza entzutean. Berdin monarkia, diktadura nahiz errepublika garaian, euskalduna beti "parragarri", eta horrela, poliki poliki, gutariko askoren baitan lotsa eta damua erein. Euskaldun izateaz lotsa, euskaraz sentitzeagatik damu. Garbizuk ez zuen lekzio txar hori ikasi, zorionez.

Garbizuren biografia musikalak, bere lan mardulak, ederki asko erakusten digute, garai ilun haietan ere, Garbizu ez zela euskalduna bakarrik. Garbizuk euskaraz sentitzen zuen eta bere herriaren kulturarekin blaitzen zuen bere kultura unibertsala. Horra hor Garbizu maisuaren lekzioa, euskaldun sortu, euskaldun bizi, eta euskalduntasunez blai, unibertsala izan.

Munduko bazterrak miatu dituzten itsasgizonak eman ditu Lezoko herriak hainbat mendetan. Garbizu dugu garai berrietako Lezoko itsasgizona, bere euskalduntasuna bihotzean hartuta munduari begiratu eta munduan murgildu dena. Harrotasunez, gogoz eta grinaz, bizi eta sortu zuen maisua.

Ni eta ni bezala Euskal Herri burujabeen sinisten dugun gizon-emakumeok Garbizuk erakutsitako bidean egin behar dugu aurrera. Gure kulturaren talaitik begiratu nahi diogu munduari, beso eta gogo zabalik, inoren isekarekin kezkatu gabe, besteengandik jaso eta besteei guretik emanez.

Ez nuke hitzurre hau amaitu nahi, Garbizuren ikasgaia zintzo ikasi eta lan horretan gogoz eta gogor saiatu diren herriko lagunei bi hitz eskaini gabe. Gogoan ditut Tomas Garbizu Udal Musika eskolan zintzo lanean ari diren irakasle, laguntzaile eta zuzendari jaunak; gogoan ditut grinaz lan honetan hamaika izerdi isuritako Patxi Intxaurre eta Patri Urkizu; eta gogoan ditut, azken batean, konpromisoaren lehen lerroan, alaitasun eta gogonez, herrigintzan ari diren herritar guztiak. Zuberoan dioten bezala, biba züek!

Imanol Esnaola
Kultura zinegotzia
2002ko apirilaren 30ean

ESKER ONEZ

Asko dira -dozenaka- liburu honen ibilbide luzean, zuzenean nahiz zeharka gurekin batera parte hartu duten lagun edo ezagunak. Sinadurak salatzen ditu batzuk; lausotuago sumatzen dugu beste askoren ekarpena... Behar-beharrezkoak genituen guztiak taxuzko ezer egingo bagenuen.

Honela, atariko lerro hauetara ekarri nahi ditugu:

Jesus Mari Alberdi, Jose Ignazio Ansorena, Juan Mari Antia, Arantzazuko eta Zarauzko frantziskotarrak, Bene Arrizabalaga, Jon Bagües (Eresbil), Migel Anjel Basurko, Jabier Basurko (Donostiako Seminarioko Artxiboa) Rosario Bergara, Koldo Bravo (Donostiako Musika Kontserbatorioa), Maite Bidegain, Emilio Carballo, Miren Derteano, Anjel Elortegi, Esteban Elizondo, Fernando Echepare, Xanti Espina, Bixente Etxeberria (g. b.), Eustasio Etxezarreta, Tomasen Garbizuren ilobak (Margarita, Mari Karmen, Maria Luisa...), Elena Gezala, Serafina Iribar, Estanis Karrera, Jesus Kerejeta, Herminia Laborde, Ander Letamendia, Xabier Lete, Lezoko Musika Akademia, M^a Angeles Olariaga, German Ormazabal, Mari Koro Saenz, Irene Salaberria, Jabier Salaberria, Jose Ignacio Tellechea Idígoras, Manolo Varela, Pello Zabala, Jose Maria Zapiain, Lezoko Udala..., eta bereziki Imanol Esnaola, kultur zinegotzia, liburu honek argia Tomasen jaiotetxetik gertu ikus dezan egin dituen ahalegin guztiengatik. Eskerrik beroenak hauei eta gure oroimen ahulak bide-bazterrean utzi dituzkeen guztioi.

Eskerrik asko, azkenik, etxekoei, beraienak ziren ordu asko guk ordenagailuari eskaini izanak oso gutxitan aztoratu dituelako.

Gure ekarpen apal honekin euskal musikaren historiak zerbait irabazi duela uste dugu. Eta zuk, irakurle, dasta itzazu ondorengo lerroak, herriko seme gizon argi honen gogo azkar eta adimen zorrotzari esker Euskal Herriaren izpiritua hobeto ezagutu ahal izango baituzu, agian.

Patxi Intxaurrendieta eta Patri Urkizu

HITZAUREA

Probablemente estuve ausente de la ciudad cuando se inauguró el monumento, el busto de Tomás Garbizu. Cada vez que paso junto a él y me acerco, me sorprende gratamente, en los jardines cercanos al Hotel María Cristina.

-*Kaixo, Tomás. Oso seriyo zaude eta ixilik, eta besoak nun dauzkatzu?* (-Hola Tomás. Estás muy serio y callado, ¿dónde tienes los brazos?) Sin brazos no puedes escribir música, ni tocar el piano u órgano, o dirigir un coro, o simplemente subrayar, braceando, tus asertos en plena calle.

No hace falta leer la placa con su nombre. Es él, auténtico, inconfundible. Sólo le falta cantar, un pasaje cualquiera de la Liturgia, en el que la música expresa lo que anuncia el texto.

Con Tomás, jubilado paseante por el barrio de Gros, ¡cuántas sabrosas conversaciones callejeras, burlándose mordazmente de ciertos engendros musicales modernos, mostrando su devoción por el gregoriano y por el tratamiento religioso de los textos litúrgicos, o saliendo al paso del saludo de otro amigo paseante!

- *¡Qué bien te conservas, Tomás!*

- *¡Es que gano poco!* - dicho con sonrisa maliciosa.

Tomás Garbizu Salaverría, que murió en 1989, nació en 1901. Hubiese cumplido los cien el año pasado. Con tal motivo Patxi Intxaurreandieta y Patri Urkizu, con el mecenazgo del Ayuntamiento de Lezo, se han propuesto brindarnos, una biografía del ilustre músico lezotarra y un Catálogo exhaustivo de su producción musical. Vida y obra.

Casi noventa años en la vida de un músico, de aquí y a lo largo del siglo XX, da mucho de sí y debe ser conocido, porque seguramente nunca fue un camino de rosas y sí pleno de aventuras y de esfuerzo; de horas de sementera y de horas de recolección. Entre las primeras están los años infantiles de tiple en el coro parroquial, los cinco años en el Colegio Seráfico de Aranzazu donde aprendió solfeo, piano y flauta y perteneció al coro dirigido por el padre Arregui, los años en la Academia de Música de San Sebastián, sostenida por la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Las horas de recolección se sucederán paso a paso: organista de Pasajes de San Pedro, colaborador musical de Saski Naski, conferenciante y articulista, compositor. Tras breve destierro en Francia con motivo de la guerra civil, inicia la aventura de los años madrileños: Organista de San Luis de los franceses y de San Marcos, creador de música para películas, acompañante pianista de zarzuelas y obras de teatro, concertista de órgano en Radio Nacional; dura brega musical, en suma, en unos años en que coincide en Madrid una constelación de

vascos músicos: Guridi, Sorozabal, Otaño, Gabiola, Garbizu, Tellería, etc... El repaso de periódicos y viejos programas descoloridos, la búsqueda de información, y cómo no, la tradición oral -el propio Garbizu- ayudan a recuperar parcelas de una vida que de otra manera resultaría menos plena. ¡Cómo íbamos a saber que Garbizu era el autor del Merçi Paris que cantaba Luis Mariano!

En la década de los años cincuenta Garbizu vuelve a su tierra. Tiene oficio, facilidad, genio musical, pero fundamentalmente es un autodidacta. Yo le oí contar la historia; ahora por este libro me entero de la fecha exacta: en tres días tuvo que rendir unos veinte exámenes en el Conservatorio de San Sebastián: los ejercicios consecutivos de los ocho cursos de piano, de los cinco de solfeo, de los cuatro de armonía. Poco después pasó uno a uno los años de la carrera de órgano. Que quien fuera capaz de aprobar un séptimo de piano tuviese que pasar por examinarse antes de primero, me recuerda a Newton: Le molestaba tener que levantarse para abrir la puerta de su cuarto a una gata con sus crías que reclamaba la entrada. Se le ocurrió abrir una gatera grande para la madre... y una o varias menores para las crías. El esfuerzo le abrió las puertas para convertirse en profesor de órgano, para adquirir una estabilidad profesional, y poder abrir las compuertas de su creatividad musical.

Podríamos llamarlo el músico de las mil caras y nos autoriza a ello el Catálogo de su producción global con muchos cientos de títulos. Concierto mágico, Cantata, Pastoral, Danzas y melodías vascas, habaneras -con frecuentes premios en Torre Vieja- tangos, fandangos, arin arin, himnos variados y un amplísimo repertorio de música religiosa, en parte favorecido por las necesidades litúrgicas que siguieron al Vaticano II con las nuevas misas populares o motetes en lengua vulgar (castellano, euskera, latín).

Dos fibras de singular resonancia en el alma de Garbizu fueron la religiosa y la vasca. En una y otra la aceptación popular es el mejor marchamo del singular tino de Garbizu. Su sentimiento religioso profundo, enraizado desde los días juveniles de Aranzazu, se muestra en el tratamiento muy mirado de humildes frases -Kanta Jaunari, Sinisten det, etc.- o en el tratamiento espectacular de gran música de sus Misas Benedicta y de la Eucuménica Juan XXIII, verdadera exhibición de maestría y dominio de recursos. También es muy celebrado su especial sentido de las misteriosas esencias de la música vasca, tanto en las obras de creación propia abundantísimas, como en la perfecta armonización de viejas canciones conocidas, como fue el caso de las donostiarras. Por lo demás, manejará orquesta y piano con coros de voces mixtas o blancas y mil combinaciones variadas con bandas de txistularis, flauta, oboe, violonchelo, órgano, trompa, etc.

Una vida entera para la música. Un catálogo impresionante de su obra. Nos queda el legado de su música empapelada. Así llamo a su obra escrita, a la infinidad de partituras, muchas de ellas recogidas en Eresbil. Un archivo musical es algo terrible: montañas de

partituras y particellas, papel espantosamente envejecido y mudo. Nos queda el legado de su música en conserva, esto es, en grabaciones felices, que acarician nuestros oídos con melodías conocidas. Mucho se ha hecho, queda no poco por hacer. Y, en fin, queda la música viva, la que muere mientras nace por la sucesión de sus notas y armonías, única e irrepetible, recordatorio social del músico desaparecido y cuasi efímera resurrección. El Conservatorio de Música de Lezo que lleva su nombre, la fantástica obra de Musikaste, la acción divulgadora de la Quincena musical, el Santuario de Aránzazu tan vinculado a Garbizu, el Orfeón donostiarra, son los llamados obligadamente a esta tercera labor.

*Zure Musika zabaltzen
Jarrantuko dugu
Donostiako Orfeoia*

Así rezaba esta necrológica el año de su muerte.

Ala bedi!

J. Ignacio Tellechea Idígoras.

TOMAS GARBIZU, in memoriam

Materiaren iluntasunetik sortuok
borrokatzen dugu amorruz
eguneroko griña zitalekin
gauari galdetuz nun legokeen
izpirituaren argi orbanik gabea,
nola asma edertasunaren arau zehatzak.


Haragizkoa izanik, gizon,
altxa ziñen erraldoi
itzal gaiztoaren aurrean
eta kontzeptuaren indarrez armonia eraikiz
zehaztu zenituen hotsa eta neurria
eresia gailurreratuz dizdirakor jainko.

Horregatik, geroaren orri oriztatuetan
iraunen duzu hilezko musikan
eta bilatuko ditugu gaueko izar altuetan
izan ziñenaren aztarren eternalak
jakiñik han goian duzula zuzentzen
“aintza” dioten ahotsen korua.

*Urnietan - 2001 urtea. Apirila.
Xabier LETE*

Biografia

TOMAS GARBIZU SALABERRIA



Lezoco erria ondratu izan dute anitz bertan jaiotaco seme arguidotarrac gudaco eguiguera-etan ez ezic, letra-etaco lambidean ere. Don Juan Martinez de Lezo, Eliza bereco Erretorea..., Don Domingo de Lezo, Cuzcon obispo..., Don Lope Isasti, Beneficiadu Eliza berecoac izcribatu izan ceban Provincia Guipuzcoaren condaira..., Don Francisco de Gainzac izcribatu ceban Irun-aranzunena..., Juanot de Villaviciosa nagusiena izanduan Provinciaco Escuadra baten...

(Juan Ignazio Iztueta, Guipuzcoaco provintziaren condaira edo historia...1847)




Lezo XX. mendearen hasieran.


HAURTZAROA ETA GAZTAROA (1901-1936)

XX. mende hasierako Lezon

Hamar senideen arteko zortzigarrena, Tomas Garbizu Salaberria Lezon jaio zen 1901eko irailaren 12an, 15 zenbakia zuen San Juan kaleko etxean eta goizeko hamaikak aldera bere bataio- eta jaiotza-agiriek diotenaren arabera. Jaiotza-agiria sinatu zutenak hauek izan ziren: Ignacio M^a Olasagasti y Agirre, Lezoko epailea, Jose Otaegi y Elola, Udaletxeko idazkaria, Kandido Garbizu, Tomasen aita, Martin Jose Lizarazu, sakristaua, lekukoa, eta Jose Agirre, lekukoa.



Zabala-enea Garbizu senide guztien jaiotetxea.



Lezoko Joan Bataiatzailea parrokia. Bertan bataiatu zituzten Garbizu senide guztiak.
(Jabier Salaberria Salaberria lezoarraren marrazkia)

Hona zer dioen Tomasen bataio-agiriak:

En la Universidad de Lezo, provincia de Guipúzcoa, Obispado de Vitoria, a trece de Setiembre de mil novecientos uno, yo el infrascrito Presbítero, Cura Ecónomo de la parroquia de San Juan Bautista, bauticé solemnemente un niño, a quien puse por nombre Tomás. Es hijo legítimo de Dn. Cándido, fabricante, y de Dña. María, naturales de Lezo, mis feligreses. Nació, según declaración del Padre, a las once de la mañana de ayer en la calle de San Juan, núm. 15. Son sus abuelos paternos Dn. Angelino Garbizu Arreche y Dña. María Angela Galarraga, naturales de Lezo, y los maternos Dn. José Salaverría Echanique y Dña. Joaquina Aguirre Olaizola¹, naturales de Lezo. Fueron padrinos Dn. Tomás Corta, fabricante, natural de Zarauz y Dña. Manuela Sarasola, natural de Aya, a quienes advertí el parentesco espiritual y las obligaciones que contraerón. Siendo testigos Dn. José Guezala y Dn. Martín José Lizarazu, propietarios, naturales y vecinos de Lezo. Para que conste, firmo; fecha ut supra.²

Eusebio Garmendia

Merezi du, azaletik bederen, Tomas Salaberriaren genealogiari, eta Salaberria leinuruari bereziki erreparatzea, bertan uztartzen baitira Euskal Herriak XX. mendean eman dituen artista handi bi: Elias Salaberria Intxaurrendieta pintorea eta Tomas Garbizu Salaberria musikaria.

Joxe Jeronimo Salaberria eta Maria Joakina Klara (Tomas eta Eliasen aiton-amonak)



Fólio *doscientos cuarenta y cinco*

Acta de nacimiento


Número 35
Tomaz
Garbizuren Salaremia

En la página 2039 del Tomo 117 del Registro civil de San Sebastián consta inscrito el parto comunal de Tomaz Garbizuren Salaremia nacido el día 12 de Septiembre de 1932 a las once y media de la tarde de San Sebastián Pais Vasco

En la universidad de Lezo, provincia de Guipúzcoa a las once y ocho del día trece de Septiembre de mil novecientos treinta y dos ante D. Ignacio M. Olazagasti y Aguirre Juez municipal, y D. José Esteban y Salazar Secretario, compareció D. Candido Garbizuren Salaremia natural de esta universidad de Lezo provincia de Guipúzcoa de edad de treinta y cuatro de estado libre su ejercicio profesional y domiciliado en la calle del San Juan número quince de esta universidad presentando con objeto de que se inscriba en el Registro civil un niño; y al efecto, como padre del mismo, declaró: Que dicho niño nació en la casa del declarante el día doce del presente mes a las once y media de la tarde

Que es hijo legítimo de D. Candido Garbizuren y Salaremia, natural de esta, mayor de edad, casa del foralero y resido de Lezo unión y de Doña María Salaremia, mayor de edad, casada, dedicada a sus ocupaciones propias de su estado y domiciliada en el de su marido. (32 años)

Que es nieto y por línea paterna, de D. Angel Garbizuren, natural de esta, y ya fallecido; y de Doña María Inés Salaremia.



Ezkerretik eskuinera, goiko ilaran: Jose Ramon, Migel Anton, Juan Joxe (Elias Salaberriaren aita), Lino, Nikolas, Martzelino. Beheko ilaran: Paulina, Karmen, Jose Jeronimo eta Maria Joakina (Tomasen aiton-amonak), eta Maria (Tomasen ama).

1849ko otsailaren 22an ezkondu ziren Lezon. Hamaika seme-alaba izan zituzten: M^a Karmen, Joxe Ramon, Migel Anton, Paulina, Juan Joxe (Eliassen aita), Ines, Lino, Nikolas, Martzelino, Joxe Manuel eta Maria (Tomasen ama).

Maria Salaberria Agirre eta Kandido Garbizu Galarraga elkarrekin ezkondu ziren eta hamar seme-alaba izan zituzten:



Kandido Garbizu eta Maria Salaberria,
Tomasen gurasoak.


Jose Millan Garbizu (1889-1962). Anaia zaharrena. Antonio Pildainen³ adin berekoa, elkarrekin burutu zituzten apaiz-ikasketak Gasteizko apaizgaitegian. Musikarako dohain aparta zuen gizona, eragin handia izan zuen Tomasen gaztaroko musika heziketan. Pasai Antxo eta Albisturreko elizetan eta Donostiako Artzain Onaren katedralean eman zituen bere bizitzako urterik onenak. Urtetan jasan behar izan zuen gaitz larri batek eraman zuen 1962. urtean.

Hona bere bizitzaz garaiko ohar nekrologikoak zioena:

A la memoria de D. José Garbizu

La reciente muerte del sacerdote don José Garbizu nos lleva a evocar épocas de verdadera afición musical en la vida donostiarra cuando aún funcionaban en los viejos cafés de la ciudad las pequeñas orquestas y tríos compuestos por elementos de auténtico prestigio, de sólida formación artística como los Barriola, Aranburu, el gran Alzueta, Gandía, Navidad y otros instrumentistas de gran categoría. Por otra parte, y en otro aspecto, estaban los protectores Pagola, Cendoya, Figuerido y Larrocha, los maestros de la generación actual.

Don José Garbizu, vinculado íntimamente a estas tendencias y conocedor en ese ambiente, representaba la figura simpática y relevante entre estos músicos. Conocía a



Jose Millan Garbizu.

fondo la historia de estas gentes, aconsejaba, orientaba, compartía sus éxitos; seguía la vida del Orfeón Donostiarra, del inolvidable Esnaola, con quien le unía profunda amistad, estaba en todo aquello que representaba música, inquietud artística.

Era don José el sacerdote que después de aquellos famosos conciertos de la Banda Municipal dirigida por el maestro Ariz, paseaba por el viejo Bulevar, con el maestro charlando de la actuación de la citada entidad. Fue condiscípulo de don Antonio Pildáin, ambos de Lezo, actualmente éste obispo de las Palmas, de quienes decía en aquella época el obispo Cadena y Eleta: “Tengo dos talentos: Pildáin y Garbizu”. Recuerdan bien los condiscípulos de don José Garbizu sus dotes de inteligencia y su talento musical durante los años de estudio en el viejo Seminario conciliar de Vitoria, siendo como era el alma de todo lo que representaba éste en aquel centro religioso. Pasó su vida entre músicos dedicado a su labor de apostolado sobre todo. Siguió muy de cerca las innovaciones de la música religiosa, las orientaciones de las revistas musicales más en boga, y así el día que cantó su primera misa en la parroquia de Lezo, encargó que se interpretara la “Pontifical” de Perosi, que seguramente, no se había interpretado hasta ese día en Guipúzcoa, actuando al órgano el compositor don Julio Valdés, en atención a don José Garbizu, capaz de movilizar a media humanidad por su contagioso dinamismo, relaciones sociales y simpatía.



Ezkerretik eskuinera Jose Luis Garmendia, Kandido Garbizu (Tomasen aita), Jose Bernardo Elpuerto, Jose Ramon Isasa, Esteban Garmendia, Jose Maria Ayestaran zinegotziak eta Bonifazio Astigarraga udaltzaina, 1915. urtearen inguruan.

Fue el finado sacerdote un gran filósofo y moralista, dejando un recuerdo imborrable entre cuantos le trataron y los numerosos amigos o desconocidos que se acercaban a su persona para solicitar un consejo, una orientación.

Ameno conversador, rebosaba un envidiable humor y optimismo. Su muerte ha sido con la oración y la sonrisa en los labios. La misma enfermedad que ha minado su cuerpo no fue suficiente para doblegar su espíritu. “Esto que tengo —nos dijo en una ocasión— es una gracia del Cielo que la llevo con alegría desde hace muchos años”. Le recordarán siempre con veneración cuantos le trataron, pobres y ricos, sacerdotes y seglares. Su figura humilde se agiganta en la charla, donde afloraba su sabiduría, con una sencillez de expresión que llegaba a cuantos le rodeaban. Jamás tenía una frase crítica para nadie. Todos eran buenos para él. Su generosidad no tenía límites y los pobres le adoraban. Con este recuerdo rasgado por el sentimiento hacia un sacerdote virtuoso, pedimos al Señor su bendición para quien supo sobrellevar una cruel enfermedad con sencillez, alegría y santa resignación.⁴

Anjela Garbizu (1891-1974). Arantzazun bizitu zen bertako dendan oroigarriak eta erlijio gauzatxoak salduz eta fraideentzako jostun-lanak eginez. Arantzazun bertan hil zen eta Oñatiko hilerrian dago hobiratua.

Jon Garbizu “Zubigar” (1893-1930). Senideetarik hirugarrena. Olerkari saritua. Hona anaia olerkariaren bizitzaz duela urte batzuk beste liburu batean genioena:

Bere gaztaroa hantxe igaro zuen, goiko eta beheko eliza, etxea, frontoia eta sagardotegietan banaturik. Garaiko ohi-turari jarraituz 14 urte zituelarik hasi zen lanean Erretereriako “Real Compañía Asturiana de Minas” delakoaren bulegoetan, eta lanetik etxera zihoan batean trenak harrapatu, eta zaurien ondorioz 1930. urtean hil zen.

Nork zaletu zuen Jon eta nola bertso eta olerkigintzan? Lau eragin eta iturburu nagusi aipatuko genituzke, deus ere kendu gabe, noski, berezkoa izango zuen jaidurari. Eliza, lagunartea (sagardotegia eta batzokia), etxea eta zalantzarik gabe, bere irakurketak.

Hamahiru olerki ditu, erlijio gaiekin zuzen-zuzenean zer ikustekorik dutenak. Bostek Eguberria omentzen dute, eta nola ez, Lezoko Gurutze Santuari eskainia dio bat, eta beste bat “Lezon igandero Dotriñara joaten diren irakasle-ikasleen opaz” idatzirik du. Lezoar heldurik ba al da oroitzen ez denik bere haurtzaroko une hartaz, bazkalondo haietako dotrina hartzeaz, abestiez, bezperez eta sermoiez?

Oso maite zituen Jonek adiskideak eta lagunartea. Hala, maiz ikusiko dugu, Pasaiara ezkondu eta gero ere, amari (oso amazulo baitzen) eta Lezoko sagardotegiei bisita egiten. Eta hemen mama goxoaz eztarria busti ondoan, makina bertso botea izango zen. Nabarmentzen zaio, gainera, bere olerkigintzari bertsolarien erraztasun hori. Ezagunak ziren Lezoko Festetan Xenpelarrek XIX. mendean Ardotx Oiartzungo bertsolariarekin batera herriko plazan bertako neskatzez ondutako bertsoak. Txirrita ere batean baino gehiagotan Lezoko sagardoa-ren gozoa probatua behar zuen izan.

Liburuzaletasuna beranduxko hasi zitzaion, antza. Soldadoxka garaian, Donostiako Gazteluan, ezagutu omen zuen eta “Satarka”. Hondarribiko olerkari ospetsua, baina



Anjela Garbizu.



Jon Garbizu “Zubigar”.

ez zekiela idazten zuenik. Geroago irakurriko zituen, eta gustura, alajaina, honen “Txinpartak”, eta horrela seguruen, lehen aldikoz ezagutuko zituen Victor Hugo eta Heine, poeta handiak. Beste liburu pare bat ere aipatzen dizkigu bere olerkietan. Bat, Robustiana Mujika, “Tene”, zumaiar emakumearen “Idazki ta Olerki” liburua. Berari eskaini zizkion bertsoleerro hauek:

Agur, Tene maitea, idazle azkarra,
emakumeetako eredu bakarra.



Jon, Daniel eta Tomas Garbizu anaien gerra aurreko idazlanak biltzen dituen liburua.

Alejandro Bilbao kaputxinoak, “Biotza Abeslari” argitaratu zuenean “Maruri 'tar Erramun” i izenekoa, bestea.

Baina, dudarik gabe, bere lehen eredu eta aitzindari Sabino Arana izan zen, “Ama Euzkadiren seme onena”, eta honekin batera Ebaristo Bustintza “Kirikiño”, “Euskeraren eusle onena”, Karmelo Etxegaray, “Euskalerriko eguzkia”, Bitor Garitaonaindia, “enara beltxuntx euskeltzalea”, bere hitzak erabiltzearen. Eta beste anitz. Denentzat zuen errespetu eta bihotz samur, eta abertzaletasunak suturik eta eraginik eztabaidetan bero bazen ere, beti begirune handiarekin jokatzeko zuen.

Amaren ahotik jasotako euskara, esan dezakegu ere, ezbaierik gabe, izan zela bere maitale bakarra. “Harrobi baten antzera”, “Ur gardendun erreka garbien antzera”, “Zubi zahar baten antzera”, “ele kuttun”, “mintzo maite”, eta “hizkuntza lagun, erruge, eder eta txukuna” bezala ikusten zuen, eta bere burua langile apal bat gisara haren baitan.

Berezko zuen etorreraz, “zerutar jarioaz”, eten gabe jardun zitzaigun hil arte luma zorrozten, 122 olerki, ipuin batzuk, itzulpenak eta Lezoko hiztegi bat ere idatziz. Eta lan hau ez zen, noski, garaikideen artean saririk gabe gelditu, honako sariok jaso baitzituen:

1924: “Ostegun Deuna”. Baiona, Gure Herria. “Euskera Arrobitzat”. Baiona, Gure Herria. “Nere Erriaren basterra”, Donostia, Euskal Esnalea.

1926: “Ezin poztu”. Donostia, Euskal Esnalea. “Colección de palabras no indicadas en el Diccionario de Azkue”. Iruñea.

1927: “Igaropide. Donostia”, Euskal Esnalea. “Udaberri mindua”. Donostia, Euskal Esnalea.

1928: “El Quijote”ren IX. Kapituluaren itzulpena”. Iruñea.

1929: “Aizkorri ta Itxaso”. Donostia, Euskal Esnalea. “Maitasun-txingarrak”. Donostia, Euskal Esnalea. “Txori ausarditsuak”. Donostia, Euskal Esnalea. “Andre Korneli”, La Señora Cornelia, Cervantes-en itzulpena. Donostia, Euskal Esnalea.

Esan bezala, lantegitik etxera zihoala tren bidea oinez igarotzerakoan trenak jo eta bota zuen. Donostiako erietxe batera eraman zuten, oin bat ebaki, itxuraz sendabidean jarri baina gero eta gaixoago, hil zorian jarri zelarik Pasaia Antxoko etxera eraman zuten eta ordu gutxiren barruan hil zitzaigun gazte-gazterik, hil berria dugun bere emazte pasaitar Luisa Iraeta eta Jon, Imanol, Miren Arantza, Itziar eta Irene seme-alaba kuttunez inguratutik.”⁵

German Garbizu (1894-1908). Hamalau urte zituela hil zen muin azaleko eritasunak jota.

Daniel Garbizu “Iruzubi” (1896-1984). Hau ere musikazalea, bertsozalea eta herriko kronikagilea gerra aurrean EL DÍA-n izan genuen. Hona bere bizitzaz ohartxo hau:

Daniel, lau urtez Jon baino gazteago eta beste hainbeste Tomas baino zaharrago, olerkari, bertsolari eta abeslari on bat dugu. Bere anaiaren heriotza ondoan hasten zaigu idazten. Lehenik Lezon, barniz fabrikari, lan egin zuen eta gero portuan.

Seme baten jaiotza zela, lagun baten heriotza, okasioan okasioarako bertsoak ontzen zituen, alegia, bertsolarien moduan. Lezoko Gurutze Doitsuak, Ama Euskera gaxoak, Xoxoak, Urretxindorrek emango diote gaia kantari hasteko. Beraz, fedea, aberria eta naturaleza izango ditu, “Zubigar”ek bezalaxe bere olerkigintzaren oinarritzko habe nagusiak. Jaizikibel mendiari eskainitako olerki bat saritua izan zen ere, behin.

Gizon umoretsua, kontu kontari egotea oso gustokoa zuen, eta hor ditugu adibide bezala: “Eizera goiz juan”, eta “Lapur” ipuinak.

Lezoko garaiko kronista ere bagenuen, Donostiako EL DIA egunkarian. Hemen ematen zituen herriko gorabeheren, xelegeberien, jaioberrien eta ezkonberrien berri. Txerrimuño sagardotegian mama goxoari nola-halako jipoiak ematen zizkioten garaiak

Zirikatzaile aparta, irakurgarriak dira Oiartzungo Pilliparekin izan zituen eztabaidak egunkaria medio. Abertzale sutsu, aberria bere olerkietan lantzen zuen, eta, esate baterako, ez zen lotsa “KENDU”



Daniel Garbizu “Iruzubi”



Daniel Garbizu eta Joakina Aranburu senar-emazteen urrezko ezteietan. Zutik, ezkerretik eskuinera, Liborio, Benita eta Tomas anai-arrebak.



Daniel Garbizu "Iruzubi"

*aldizkariaren alde bertsoak paratzeko eta honen zabalkunde-
aren alde deia egiteko, adibide honetan bezalaxe:*

*Zabaldu zaizkiogun gure atek
baita besoak ere berdiñ-berdiñ,
eusko etxe guztitan sartu dediñ
¡Ez izutu laguntza emateak!*

1984. urtean hil zen Herreran. ⁶

Segunda Garbizu (1898-1903). Haurtxo zelarik hil zen.

Margarita Garbizu (1899-1971).



Margarita Garbizu

Tomas Garbizu (1901-1989). Gure Musikaria.

Benita Garbizu (1903-1983). Donostian Tomas eta Liboriorekin bizi izan zen, Zabaleta Kaleko 51an bi anaiak zaintzen.

Liborio Garbizu (1905-2000). Apaiza, pilotari iaioa eta baritono aparta.⁷ Gerra garaian Artzentalesen desterratua izan zen. Azken urteetan Tomasekin batera bizi izan zen.

Tomasek lehen lehenik, oinarrizko ikasketak Lezo eta Erreterriako eskola publikoetan burutu zituen. Erreterrian Don Cipriano Fernández de Landa y Castillo izan zuen irakasle. 1866ko abuztuaren 10ean lehen hezkuntzako maisu laguntzailer izendatu zutenetik 1911ko ekainaren 20an erretiroa hartu zuen arte, Erreterriako eta inguruko herrietako hiru belaunaldi pasatu ziren Arabako Arkaute herrian jaio zen gizon honen eskuetatik. 1919ko urrian ongi merezitako omenaldia eskaini zion Erreterriako herriak. Geroagotik bere izena duen kalerik ere bada Erreterrian. Ez zuen Tomasek bere burua asko handiesten ikasketez jarduten zuenean:

Txarra. Musikarako ona, baina beste gauzetan txarra. Ez zuten uste askok baina nik badakit txarra nintzela. Batez ere



Benita Garbizu

matematikan eta... Nik barruan sartuta neukan lanik egin gabe biziko nintzela. "Ni aiuntamentuko ofizinan jartzen banaute hilko naiz" esaten nion nire buruari. Edota "enpresa batean sartzen banaute, han joango da dena hankaz gora". Eskolara Erreteriarra joaten nintzen Don Ziprianorengana, eta eskolako lanak egiteko Benantxiori ematen nizkion. Hark egiten zizkidan denak".⁸

Solfeoko oinarriak eta musikarako diziplina parrokiako koruaren jardunean bereganatu zituen, garaiko Lezoko beste hainbat haurrek bezala. Hiru dira, honen haritik, Tomasen haurtzaroko musika heziketaz arduratu ziren irakasleak:


Julian Ayestaran elizako koadjutorea eta bertako koruaren zuzendaria. Berarekin ikasi zituen Perosi, Refice eta garai hartan abesten ziren musikagileen meza eta gainontzeko kantu liturgikoak.

Jose Millan anaia zaharrena. Honek pianoa eta organoa ongi jotzen zituen eta bere esanetara egon zen Tomas gaztaroko urte haietan.

Eta denen gainera, Jose Gezala Alzate elizako organista eta, garai hartan ohikoa zen bezala, herriko haur guztien musika heziketaz arduratzen zen irakaslea.

Entzun diezaiogun Tomasi nola kontatzen duen grazia bereziaz bere gaztaroko garai hura:

... nire garaian Jose Gezala jaunaren etxera joaten ginen solfeo klaseak ematera, bera baitzen parrokiako organista. Inork ez zuen don Jose deitzen, ezta Jose bakarrik ere, baizik eta Josetxo. Jenio txarra zuela ez esatearren, esan dezagun oso bizia zela. Bere



Liborio Garbizu



Tomas eta Liborio anaiak



Tomas Garbizu Lezoko ikaskideekin



Julian Ayestaran apaiza.

eginkizunak betetzen oso zuzena eta metodikoa. Normalean nahiko zakarki tratatzen gintuen; horrelaxe zen bere izakera, baina gaiztakeriarik gabekoa, beste irakasle asko bezalaxe. Entzun izan dudanez, gurekin baino gogorrago zen handiagoeekin, gu baino lehenago klaseetara ibili zirenekin. Diotenez, patxada handiz agurtzen zituen: Adiós, caballeros... batekin eta ondoren berehalaxe: Majaderos, más que majaderos!... eta eskaileretan behera korrika joaten ziren [...] Nik parrokiako koruan kantatzen nuen, zuzendari Julian Ayestaran jauna zelarrik [...] Musika banda bazegoen eta zuzendari Florenzio Gezala zen (Pontxio)...⁹



Jose Gezala organista.

Urteen buruan, bizitza osoaren buruan, uzta ederra emango zuen Tomasen gogoan hazi hura ereina biziki eskertu zion Josetxo Gezalari, hau 1928an hil zenean EL PUEBLO VASCO egunkarira bidali zuen artikulu hunkigarri hartan aitortu zuenez:

Ahí está el cantorcillo, desgranando primores desde su rodeado lecho de dolor. ¡Cómo nos hace sentir el garbo de su batuta trovadora que traza en el aire espirituales arabescos, fugas aladas y arpegios incopiables!, mientras su discípulo amado reproduce aquel silbo de mirlo ufano que el antiguo maestro lograba penetrar en mi corazón, anegado en lágrimas de composición.

No mira el reloj. Lo mismo canta a la mañana, al mediodía, a la tarde, a la noche... cuando la luna platea sendas y hortalizas. Pero de repente... para... se calla... y luego lanza como unos ayes entrecortados que parecen un gotear de notas tristes. ¡Ha visto al enemigo, ha visto a la muerte!

Escena final: al poco rato yacía el cuerpo entumecido del ínclito maestro en un lúgubre ataúd cruzados sus anquilosados dedos, amaratados sus labios y cerrados sus ojos de severidad que dejaban en mi alma un aura de sentimentalismo y veneración.

A los acordes de una marcha fúnebre será conducido hoy el maestro a la última morada; yo no podré acompañarle, por eso encarezco a los músicos que procuren que esos acordes penetren como un bálsamo de loor en el corazón que ya no late con latidos de vida, plasmado en el maravilloso arte de la música plástica verdad de la eterna concepción de sacrificio, sinceridad y amor.

Y el miércoles, día de su funeral, cuando pose yo mis manos en el sagrado instrumento, procuraré también que suba al cielo una plegaria ferviente en sufragio del que fue mi primer maestro y del que plantó en mí la semilla del “arte divino”, cuya importancia y significación se condensan en las siete notas: do, re, mi, fa, sol, la, sí que más tarde quiera Dios que broten en mi

imaginación el fruto de felicidad y la gloria del triunfo.¹⁰

Bere bizitzako urte askotan jaioterrira ez bazen hurbildu ere egin, badakigu Lezo bihotzean eraman zuela beti. Nongoa zen galdetzen zioten bakoitzean Lezokoa zela erantzungo zuen lotsa handirik gabe edo ondoren etor zitezkeen galderei beldur handirik izan gabe.

Tomasek zioenez,

Lezo herri maitagarria zen; batez ere baserri alde hura. Baina orain asko galdu du. Herria bera ere oso maitagarria zen. Dena den, gogoan dut nola ziren bi edo hiru aldetako kastak: haundixkiak (dirudunak). Beren diru izate hura ibiltzeko moduan ere ezagutzen zen. San Isidrotara joaten ziren Madrilera... eta guk San Isidrorik bazen ere ba al genekien ba? Gure ama ez zen joaten; hura txerriak kontzen; ni ere bai. Nik txikitari amari zera esaten nion: “baina ama, guk ez al dugu etxeren bat edo... zelairen bat edo... denek badute”. Hark “ez maitia” edo “bai maitia, zu denak baino aberatsagoa zara” erantzuten zidan.

Gogoan dut Don Pedro Barrios¹¹ orduko medikua. Ez zen euskalduna, Zaragozako. Denak sendatzen zituen euskeraz zekizkien bi hitz bakerrekin: “Zalda berua”. Besterik ez zekien. Donostiako teatrora abonatuia zegoen, beti lehenengo filan. Konpainia guztiak ezagutzen zuten... Ondo konpontzen zen baserriarrek. Baserrietan jakingo zuten zer edo zer erderaz ere. Nik ez nekien erderaz; oso gutxi. Lezoko bikarioak behin proba bat jarri zidan: “Jauna, eskeintzen dizut egun honetako lan eta neke guztiak” erderaz jarri behar nuen. Eta nik: “Te ofrezco Señor los trabajos y los cansa todos de este día”. Nik ez nekien erderaz. Agian Don Pedro medikuak gehiago jakingo zuen euskeraz nik erderaz baino.

Bi mediku ziren Lezon; Fernando Carril¹² bestea. Goizuetatik etorria zen. Honek ere ez zekien euskeraz. Etxe dotorea zuen, jardin ederrarekin-eta. Bere semeek bazuten bizikleta eder bat. Ni bizikleta haren atzetik ibiltzen nintzen. Askotan, bizikleta zegoen tokira joaten nintzen eta gainean eseritzea bakarrarekin pozik gelditzen nintzen. Handik berriz goiko sorora jostatzerara...

Beste gauza atsegina: baserri alde hura. Hango sagarrak, gereziak, zelaiak, hango ixiltasuna. Orain, berriz, kea eta... Ni ez naiz aurrerapenen kontrakoa baina...

Beste gauza goxua: sagardotegiak. Bonifazio Pagolak egiten zuen sagardo bikaina. Baita



Luistarren kongregazioko lagunekin.

Adrian Salaberriak ere, eta Indioneoek... Tokan ere aritzen ziren. Ni ere sartzen nintzen, sekulako "axertua" nuen.

Beste gauza goxua: Ilunabarreko pelota-partiduak. Estanis Salaberria oso ona zen. Baita gure anaiak Daniel eta Juanito; eta geroago oso ona Liborio, hau batez ere palaz. Orduan ez zen ezker-paretarik, eskuinekoa baizik; kontrako alde aritu behar zen. Eta gainera frontisa, dena kroskaz beteta. Handik pelotari onena ateratzen zena "campeón de Gipuzkoa" nahi ta nahi ez. Han pelotak pareta jo eta nondik aterako zen erne egon behar zen gero... Apaizek ere jokatzeko zuten: Don Eusobiok, Pildainek, nere anaia Josek (pelotari ona zen). Sotana altxa, zinturoia jarri eta han ibiltzen ziren. Altzara ere joaten ziren eta ni haien atzetik; gero intxaurrak-eta jatera.

Kaia aldea ere gogoan dut. Baina horrek irabazi egin du. Orduan lohia besterik ez zen han.¹³

Beraz, ikusten dugunez Tomasen haurtzaroa aski pobre baina zorionsua izan zen mende hasierako Lezo hartan. San Juan kaleko etxea kai ondoan, eliza, eskola, eta frontoia. Jaizkibelgo magalean baserriak eta zelai-soroak. Eta afizio guztietatik musika nabarmenduko zitzaion, zeren jada 1915erako konposaturik zeukan *Cántico de Comunion* delako abestia.¹⁴



Ezkerretik eskuinera Martzelio Salaberria (lehen alkateordea), Regino Gezala (alkatea), Florentzio Gezala (bigarren alkateordea), Fidel Otegi (idazkaria).
1915. urtearen inguruan.



Ezkerretik eskuinera Antonio Pildain (Gasteizko apaiztegiko irakaslea);
Eusebio Garmendia (Lezoko bikarioa);
Julian Ayestaran eta Julio Garmendia (Lezoko apaizak).



Arantzazu XX. mendearen hasieran.

Arantzazuko ikasketak

Hamabost urte betetzear zegoelarik eta lehen Mundu-Gerra irakiten zegoen garaian, 1916ko irailaren 9an, Arantzazuko Ama Birjinaren egunean, bertako seminario serafikora joan zen Tomas, amak lagundurik, ikasketetan sakontzeko asmoz. Egun hartako pasarte xeibre hauxe kontatzen zuen sarritan:

Entonces no estaba todavía proclamada como Patrona. Entré en la iglesia con mi madre en el momento de la Misa Mayor, y como yo conocía y sabía cantar la partitura que estaban ejecutando quería a toda costa subir al coro para hacer allí mi pequeño papel. Efectivamente, dejé a mi madre en la iglesia y subí por el convento, sin haberme costado poco el abrir camino por aquellos claustros enrevesados (en este caso no se puede decir endiablados), hasta que al fin preguntando a unos y a otros conseguí llegar a donde quería.

Como es natural, causé la sorpresa de la comunidad al ver que yo sin decir nada y sin permiso de nadie me acomodaba entre los chicos del colegio que cantaban la misa rodeados de bajos y tenores, que eran los mismos religiosos. Creo que era la Misa Pontifical de Perosi. Desde aquel día fui nombrado solista del coro de Aránzazu... Una de las lecciones de la Benedicta la cantaba yo siempre y recuerdo que el primer día de mi actuación dije “Jube



Arantzazuko ikasleen musika-banda
1916-1917 ikasturtean

Domine benedicere” en lugar de “Domne”, pero tampoco andaba del todo desquiciado para no saber palabra de latín.¹⁵

Ikaslez osatutako banda ederra ere bazen Arantzazun garai hartan, Augusto Ruiz de Larrinaga frantziskotarrak zuzentzen zuena. Tomasi flauta ego-kitu zitzaion, baina halamoduzko interpretea izan bide zen, pasarte errazekin atrebitzen bazen ere, zailagoak iristen zirenean albokoaren esperantzan geratzen baitzen, behatzak gehiegixko mugitu

behar zirela-eta. Klarinetea ere ezagutu zuen.

Ohizkoa zen ere komentuetan eta fraidetxeetan eguberriak iristen zirenean antzerki ikuskizunak, ez baitziren opor hauetan etxerutzen, bertakoen entretenigarri gisara prestatzea, eta hauetan ere, Tomasek, iaioa eta berezko sena zuenez, parte hartzen zuen:


...vi que una de las veces la comunidad soltó de pronto una carcajada cuando yo menos lo esperaba, pues no había motivo para ello a mi juicio, y es que había dicho: “Santa Lucia que llevaba dos platos en un ojo”. Ni siquiera me di cuenta hasta que terminó la escena y me lo tuvieron que advertir los compañeros.¹⁶

TOMASEN NOTAK ARANTZAZUN

IKASTURTEA	1916-17		1917-18		1918-19		1919-20	
	1. hiru.	Azk.	1. hiru.	Azk.	1. hiru.	Azk.	hiru	Azk.
Latín	8,5	9,2	8,5	9				
Castellano	8,2	9,2	8,2	9				
Geografía	8,5	9,2	8,5	9				
Catequesis	6,5	7,5	8	9				
Dibujo/Caligrafía	7	7	7,5	7,5	7,5	7,5	8	8,5
Solfeo	9	9,2	9,2	9,2	9,2	9,2	9,5	9,5
Piano	8,7	9	9	9	9,2	9,2	8	8
Flauta					9	9		
Gregoriano								9
Latín/Castellano					9	9,2	9,5	9,7
Retórica					9	9,2		
Griego					8	9	9	9,5
Aritmética					8	8,2		
Historia/Literatura							9,5	9,7
Religión							7,5	8
Gramática Vasca							9	9,7
<i>Aplicación</i>	8,2	8,7	8,2	8,2	8,5	9	9,5	9,5
<i>Conducta</i>	Buena	Buena	Buena	Buena	Excte.	Excte.	Excte.	Excte.

Lau ikasturte oso egin zituen bertan. Berak sarritan bestelakorik esan bazuen ere, eta orduko emaitzek erakusten dutenez, ikasle bikaina izan zen. Latina, grekoa, erretorika, aritmetika, euskal gramatika eta beste hainbat ikasgairen artean, solfeoa, pianoa eta gregorianoa ere ikasi zituen.

Ikusten denez nota onak ateratzen zituen eta hoberenak literatura eta musikan, hamar bat lortzera iritsi zelarik Gregorianoan, hain zuzen. Aplikazioa eta portaera hobetzen joan zen eta azkenean bikain eman zioten bietan.



Aita Arregi.

Tomasek irakasle bikainak izan zituen Arantzazun: Gil de la Cruz Barandiaran, Jose Adrian Lizarralde, Antonio Recondo, Jose Ramón Zulaika, Fructuoso Andueza... ziren, besteak beste, gaztetxo haien heziketaz arduratu ziren frantziskotarrak. Baina, guztien gainetik, aita Arregi¹⁷ zen Tomasek gogora ekartzen zuena garai hartako oroitzapenez jarduten zuenean. Erabakiorra izan zen Tomasen etorkizunerako Aita Arregik beregan izan zuen eragina:

“Creo que fue entonces cuando recibí como una impronta la certidumbre de saber que iba a ser músico”.

Hala ere, esan behar da Tomasek Arantzazun eman zituen lau ikasturteetatik azkenekoan baka-
rrik (1919-20) izan zuela aita Arregirekin ikasteko aukera, hau 1914-1919 urteen artean Bartzelonan egon baitzen musika goi mailako ikasketak egiten. Dena dela, kontuan hartzen badugu Tomasek Arantzazu utzi zuen urte berean Liborio anaia gazte-ena bertara joan zela bi urterako, pentsa daiteke behin baino gehiagotan hurbilduko zela Tomas Arantzazura Aita Arregirekiko harremana eten ez zedin. Eta hala da, harreman estu hori ez zen inoiz eten: *“Un día vino el P. Arregi a mi casa de Madrid¹⁸, y, al escuchar en el piano algunas de mis composiciones que yo se las ejecutaba, exclamó sorprendido: ¿De dónde te salen a ti estas armonías?”*.

Aita Arregik Arantzazuko erreperitorioa goitik behera berritu zuen: *“Trajo con él un sople de modernismo que me hizo quedar prendido en el mundo*



Aita Lasarekin 1983an.

ambiental de la música.” esango zuen Tomasek. Rachmaninoff, Griesbacher, Hartmann... ordu-rarte inoiz entzun ez zituzten konpositoreen mezak eta moteteak, bere musika-lan ausarten arte-an, ezagutzeko aukera izan zuten Tomasek eta bere ikaskideek.

Arantzazu aldizkarirako aita Anasagastik aita Arregiri egin zion elkarrizketa batean argi ikus-ten da Burgés-en eskolak beregan izan zuen eragina, Tomasen konposizio prozedurak gogora dakarzkigutenak, bestalde:

—¿*Sus maestros?*

—*Estudié en la escuela de Burgés; el primero de los grandes maestros españoles que enseñó en España la música moderna. Su estancia y aprendizaje en Alemania le habían puesto en contacto con las más actuales tendencias, aún no conocidas en España, y Aránzazu, en consecuencia, fué uno de los centros —probablemente, el primero en el País Vasco— que ofreció programas musicales del género moderno religioso.*

—¿*Característica más señalada de la escuela de Burgés?*

—*Su música es sinfónica; no trata solamente de acompañar a la melodía (lo más corriente en el género vocal) sino que, al tiempo que acompaña, va creando melodías independientes y originales para cada una de las voces.*¹⁹

Ongi ezagutzen zuen Tomasek aita Arregiren nondik norakoa: “*El P. Arregi estaba relacionado con casi todos los músicos destacados: Gabiola, Urteaga, Zubizarreta, Echeveste, Guridi... y también con compositores profanos, como Pablo Sorozábal, porque el Padre Arregi era un espíritu abierto a todas las tendencias, y era un gran franciscano.*”

Arantzazuko inguruneak eta giro izpirituz beteak inoiz urratuko ez zen arrastoa utzi zuten Tomasen gogoan. Arantzazu, Aloña, Urbia, Benedicta, Angelusa... Tomasen bihotzean urrezko hizkiz idatzitako esanahi bereziko hitzak izango ziren betiko.

Lehen musika eta idazlanak

Ikastetxe serafikoan egin beharreko ikasketak amaitu ondoren, 1920ko uztailaren 16an utzi zuen Arantzazu. Bertako agiri laburrak hauxe dio: DESTINO: NOVICIADO. Ez dirudi, beraz, ordurako oraindik komentuko ikasketak bere horretan utzi behar zituelako erabakia hartua zuenik. Lezon, guraso eta senideen artean denboraldi laburra egin ondoren, 1920ko abuztuaren 11n Zarautzeko komentura joan eta abitua jantzi zuen. Bertako artxiboko agiriak dioenaren arabera “*Tomas Garbizu Salaberria tomó el hábito el 11 de agosto de 1920. No profesó.*” Ez zuen, bada, inolako botorik egin²⁰. Ordurako erabakita zuen musika ikasketa serio

eta sakonak egin behar zituela. Donostiako Musika Akademian pianoa ikasi zuen Jose M^a Iraola²¹ irakaslearekin eta harmonia Beltran Pagolarekin.²²

Ikasketa horiek egin ahal izateko Donostiako Udalaren beka bat ere erdietsi zuen.²³ Aurkitu zuena, baina, eragozpenik bidean:

El día nueve de Octubre de mil novecientos veinte y dos, a las doce, se reunió en el local de la Academia municipal de Música, el Jurado que había de actuar en los ejercicios para la adjudicación de dos becas vacantes que existen para cursar los estudios en el expresado centro docente.

Seguidamente dio comienzo el acto, y los concursantes fueron examinados por el siguiente orden:

Primero Tomás Garbizu que aspira a la clase de piano.


Segundo Juan López para clarinete y piano.

Tercero Angel Lizarraga, para canto.

Como la edad de alguno de los aspirantes ofrecía ciertas dudas para resolverlo en el momento, quedo suspendido el acto para volver a reunirse el Jurado en el mismo día a las 8 de la noche, con el objeto de deliberar después de enterarse de la forma en que se halla redactado el anuncio oficialmente publicado, pero nada se determinó en concreto. Con lo que se dio por terminado el acto.

Hemezortzi egun beranduago beste agiri hau plazaratu zuten:

A las doce y media del día veinte y siete de Octubre de mil novecientos veinte y dos, se reunió en la Casa Consistorial despacho de la comisión de Fomento, el Jurado que ha actuado en los últimos ejercicios verificados para la adjudicación de becas, constituido por los Señores Don Antonio Pagoaga, Diputado provincial, Don Jose Olaiola, Teniente Alcalde y Don Secundino Esnaola, profesor de canto. Se dio lectura al anuncio oficial publicado con fecha 25 de Septiembre último en el Boletín Oficial de la Provincia correspondiente al lunes 2 del actual, y vista la edad que en él se fija para los aspirantes a las clases de instrumento y canto, el Jurado determinó proponer a la Junta Auxiliar de la Academia en vista de los brillantes ejercicios practicados a Juan López de Rentería para una de las becas, quien se halla comprendido dentro de la edad que se requiere según el citado anuncio, y



Beltran Pagola.



Jose Maria Iraola.

como los otros dos concursantes, Tomás Garbizu y Angel Lizarraga no se hallan comprendidos dentro de la edad que se fija, acordó dejar el asunto en suspenso y consultar a la Junta Auxiliar para que esta con conocimiento de causa, pueda resolverlo en la forma que estime más procedente.

Con lo que se dio por terminado el acto.

Nolanahi ere, eta esan den bezala, azkenean lortu zuen ikasketekin jarraitu ahal izateko behar zuen beka edo pensioa.

Ikasketekin jarraitu zuen eta 1922-1923 ikasturtean, 4. kurtsoa bukatu ondoren, pianoko lehen saria irabazi zuen. Hona hemen kurtso hartan bete behar izan zuen programa:

12 Estudios. Op. 32.. Cramer.

12 Estudios. Op. 636 (21 libro). Czerny.

6 Inventiones (a dos o tres voces). Bach.

4 Estudios. Arte de frasear. Heller.

Primer tiempo de la sonata Op. 9 núm. 1. Dussek.

Primer tiempo de la sonata núm. 7. Mozart.

Medios auxiliares de mecanismo.

Escalas en terceras en todos los tonos mayores hasta 3 alteraciones. Escala cromática a la 8ª.

Escalas en terceras y sextas u otros ejercicios análogos para empezar a ejercitar la muñeca (Staccato).

PROGRAMA		Nicanor Zabaleta Recital de Arpa	
Cl. BOCHSA (1786-1856)	Tres Estudios		
L. V. BEETHOVEN (1770-1827)	Six variaciones fáciles sobre un Tema suizo, para arpa (WoO 64)		
G. R. VIOTTI (1758-1804)	Sonata para arpa Allegro brillante Adagio Allegretto vivo		
J. D. KRUMPHOLTZ (1745-1790)	Arie y Variaciones		
F. MADINA (1910-1972)	Sonata Vasca (1916) Allegro Minuetto Toccata (Dedicada a Zabaleta)		
J. A. DONOSTIA (1880-1957)	Preludios vascos Oliacez Rat hatian Eresia		
M. ALBENIZ (nacido en Vitoria, siglo XVIII)	Sonata		
T. GARBIZU (1901-)	El Clavecín vasco Minueto vasco Gavota		
J. GURIDI (1885-1981)	Zortziko Zarra		
<p>NOTA. — Venta de localidades en el Teatro Victoria Eugenia. Butacas, palcos y plateas: 200 pts. Butaca de balcón y anfiteatro: 100 pts.</p>			

Nicanor Zabaletak eta Tomas Garbizuk beti izan zioten elkarri halako begirune eta mirespena.

1923-1924 ikasturtean 5. kurtsoa burutu zuen. Ikasturte honetan ohorezko aipamena izan zuen; lehen saria, berriz, Antonia Ortega ikasleak erdietsi zuen. Merezi du aipatzea bederen ikasturte honetan pianoko prestakuntza kurtsoko lehen saria gero harpa-jotzaile aparta bilakatuko zen Nicanor Zabaleta donostiarrak irabazi zuela.

Hau zen 5. kurtzorako ikasleek prestatu behar zuten programa:

12 Estudios. (Primer libro "Gradus ad Parnasum") Clementi.

10 Estudios. (2º libro. Gran velocidad. Op. 299) Czerny.

6 Fugas a dos o tres voces y algunos de sus preludios. (Primer libro) Bach.

4 Estudios. Arte de frasear Heller.

Primer solo del concierto en re menor Mozart.

Primer tiempo de la sonata en sol mayor, Op. 35. núm. 2 Dussek.

4 Romanzas sin palabras Mendelssohn.

Organoari dagokionez, ez zitzaion inoiz kontserbatorioko programa ofizialari eta bertako diziplinari lotu eta, hain ongi menderatu zuen instrumentua bere kasa ikasi zuela esan daiteke; horretan, neurri handi batean bederen, autodidakta izan zela, alegia.

Pasaia Donibaneko elizan bazuten kantore-talde ederra Damian Puyk eta aurrerago Angel Dadiak zuzentzen zutena. Gelasio Aranburu apaiz eta musikariak Schola Cantorum bikaina zuzentzen zuen Antxon. Arraunean iaioak, musikari zegokionean baztertuxea ikusi bide



Pasai Sanpedroko eliza eta ingura XX. mendearen hasieran.



On Mariano Azkue.



Pasai Sanpedroko organoaren kotsola.



Pasai Sanpedroko Cavallé-Coll organoa.

zuen Mariano Azkue²⁴ San Pedroko erretoreak bere parrokia. Tomas eraman zuen organista eta zuzendari lanak betetzera²⁵. Lezon bizi zelarik, oinez edo batez joaten zen elizkizunek eta hartutako konpromisoek hartara behartzen zuten bakoitzean. Deia Nartxisaren dendan, 6125 zenbakia zuen telefonoan jasotzen zuten eta sarritan Maritxu Salaberria²⁶ joaten zitzaion Tomasi abisua ematera.

Bixente Etxeberria sanpedrotarra behin baino gehiagotan etorri zen batez Tomasen bila Lezoko sarreran zegoen kanposantu zaharraren pareko moilera.

Jenio biziko gaztea, koruko kantoreek bere aginduak behar bezala betetzen ez zituztenean, sarritan entzun behar izaten zituzten “Zuek, sanpedrotarrok, arraunerako besterik ez duzue balio” eta antzeko erretolikak.

EUZKADI egunkaria irakurri ondoren, bertako haurrei ere solfeoa irakasten zien eguerdian eskolako geletan. Hainbat etxetara ere joaten zen eskola partikularrak emanez pianoa irakastera. Berarekin ikasi zuten, besteak beste, Margarita San Baudeliok, Karmen Antiak, Odriozola ahizpek, Pepita Enbil, Plácido Domingo tenore ezagunaren amak, Rosario Bergarak... Rosariok zortzi urte irauten zuen piano karrera osoa ikasi zuen Tomasekin.

Azterketa ofizialak, jakina, Donostiako Kontserbatorioan egin behar izaten zituen.



Rosario Bergara.

Erabiltzen zituen oinarritzko metodoak *Czerny*, *Bertini*, eta beste asko gaur egun oraindik ere indarrean diren metodoak ziren. Handik aurrera maisu handien obrak jo behar zituzten, jakina. Solfeoa ikasteko *Solfeo de los Solfeos*.

Gerra zibila piztu zenean, iparraldera ihes egin aurretik, Rosario Bergarari eskatu zion San Pedroko organoaz bera arduraz zedin, igarri baitzuen nekez jarriko zituela bere hatzak berriro teklatu haren gainean.

Rosario Bergara, neska gaztea izanik, baimen berezia eskatu behar izan zuten lan hura bete zezan.²⁷

Konposiziorako gaitasunak ere oso finkatuta zituen garai hartarako. Pasai San Pedrorako idatzi zituen, zenbait moteteren artean, gregorianoko Kirial erromatarreko IX. eta XI. mezetan oinarritutako “*Orbis factor*” eta “*Cum Jubilo*” mezak.

Euskal kulturak bere osotasunean erakartzen zuen Tomas gaztea.

Antonio de Orueta donostiarrak 1927an, **Saski Naski** ikuskizuna abian jartzeko zenbait marrazkilari, idazle, margolari, dantzari eta musikorengana jo zuen behar zuen taldea osatzeko asmotan, eta Gregorio Mujikaren laguntza bereziarekin aurrera atera zuen egitasmoa.

Hona hemen izugarritzko arrakasta lortu zuen ikuskizun hartako partaide izan ziren hainbat artistaren izenak:

Konpositoreak: Joseba Olaizola, **Tomas Garbizu**, Buenaventura Zapirain, Alfredo Larrocha, Jose Antonio de Donostia.

Musika zuzendariak: Gelasio Aranburu, Juan Gorostidi...

Marrazkilariak etab.: Pedro Antequera-Azpiri, Pepe Agirre, Juan Zabalo “Txiki”...

Idazle nagusia: Gregorio Mujika

Aktorea: Gregorio Beorlegi


Errezitalaria: Maria Luisa Irigoien

Harpa jotzailea: Nicanor Zabaleta


Kantariak: Donostiako Orfeoiko hainbat abeslari

Hauk denak Garibai kaleko “Escuela Vasca de Declamación” delakoan biltzen ziren. Lehen emanaldiko²⁸ “Sagardotegian” agerraldiko musika Tomasena izan zen²⁹. Emanaldi honetan parte hartu zuten Orfeoiko 40 ahotsek, Donostiako Orkestra Sinfonikoko 32 irakaslek, hainbat dantzari donostiarrek, Gelasio Aranburuk Pasaian zuen Schola Cantorum taldeak...

Jon Garbizu “Zubigar” Tomas baino zortzi urte zaharagoa, beti izan zen eredu Tomas gaztearentzat. Sarritan



Bixente Etxeberria.



Saski Naski ikuskizuna iragartzeko kartel bat



Saski Naski ikuskisuna iragartzeko kartel bat

aipatzen zuen bere idazlanetan euskara txukun, garbi eta ulergarriaren eredu anaia olerkariak erabiltzen zuena.

Biziki mingarria izan bide zen Tomasentzat, adiskideentzat eta sendi guztiarentzat 1930ean Zubigarri heriotza eragin zion zorigaiztoko istripu hura.

Honela idatzi zuten bere alde hainbeste aldiz bere idazlanak plazaratzeko erabili zuen Euskal Esnalea aldizkariko kideek:

Garbizu'tar Jon il da .- Beste bat. Beste euskal-idazle bat il zaigu: Garbizu'tar Jon, Lezo'ko olerkari Zubigar ezaguna. Makiñatxo bat aldiz irakurri dezute ementxe bere izena, olerki xamur ta idazti orien oñetan!

Errenderiko Real Compañía Asturiana'ko bere lantokira zijoala, burni-bidea oñez igarotzean, trenak jo ta bota zuan; Donosti'ko osategi batera ekarri zuten, oñ bat ebaki zioten, senda-bidean itxuraz zuzen jarri zan; baña gero berriz gaxoagotu, ta il-zorian Pasai-Antxo'ko bere etxera eraman zuten. Ordu gutxi barru il zan gizarajoa.

Idazle saiatua zan. Gure sariketa geienetan saritu bear izan genuen, bestien gain agertzen zan-eta. Azkenengoan ere lau sari eman genizkion: bat, Cervantes'en La Señora Cornelia Gipuzkoa'ko euskeraz ederki ipiñi zualako.

Zenbaki ontantxe bertantxe ere berak egindako ipui polit-polit bat irakurri dezazuteke. Beste lan batzuk ere badauzkagu oraindik gordeta, ta guziak argitaratuko ditugu.

Garbizu'ren olerki onenak liburu batean biltzeko asmoa jaio da. Asmo ederra orixe. Zubigar norañoeko olerkaria zan, orduantxe argi agertuko da.



1930ean I. Eusko-Olerti eguna Erreterian ospatu zenekoa. Bigarren ilaran Lizardi eta Orixe idazleak

Guk, Euskal-Esnalea'koak, il zaigun olerkariaren izena goratzeko, bere omenez itzaldi bat eratu degu. Udaberri ontako itzaldi-salleko azkenengoa Garbizu'ren omenez izango da, ta datorren ilaren 4'ean, benetako bere adiskide izan zan Arzellus'tar Ander idazle iaioak Lezo'n egingo du.

Irakurle: otoiztxo bat Garbizu olerkariaren alde.

Eta Emeterio Arrese³⁰ tolosar poeta ezagunak ere izan zuen hitz ederrik Zubigar lagunarentzat:

Zubigar il da!

*Zubigar il da...! Sorterriyaren
naigabeak il-eresi
baten antzera Jaizkibelen gaur
arranots iluna dagi.
An bai samina...! Lengo zoritxar,
lengo jazo negargarri
guzien gañez beste bat orain...,
berriro goibel Euzkadi!*

*Biotz-mamitik sortutako itzez
euzkeraren alde beti
bertso yayoan egile zintzo,
Lezotar kementsu ori
Eriotzak, ai!, eraman du-ta
itun dago Maitagarri!
Il da Zubigar...! Otoi xamur bat
biotzez goratu bedi!*

*Cum Jubilo*³¹ meza gregorianoan oinarrituz Tomasek idatzitako meza abestu zen Errenteriako Parrokian “Jautarkol” idazle errenteriarra omenduz 1930 urtean egin zen I. Eusko-Olerti egunean. Han bildu ziren, besteak beste, Jose M^a Agirre “Lizardi”, Nikolas Ormaetxea “Orixe”, Esteban Urkiaga “Lauaxeta” eta Jose Ariztimuño “Aitzol”, Gregorio Mujika, Agustin Anabitarte, Antonio Paguaga, Mikel Urreta eta goi mailako beste euskal idazle eta eragileak.



Irratsaio batean. Tomasen atzealdean Liborio anaia. Aurrean, ezkerrean Sabin eta Polentzi Gezala atabalaria eta txistulari lezoar gaztetxoak.

Hona nolako ekitaldiak izan ziren egun horretan:

1. Meza nagusia.
2. Literatur ekitaldia, non Esteban Urkiaga “Lauaxeta”-ren *Maitale Kutuna*, poema saritua irakurri zen.
3. Aitzolen solasaldia euskal poesiaz.
4. Mikel Urreta eta Antonio Paguagaren mitina euskeraren alde.
5. Bertsolari txapelketa.
6. Antzerki emanaldia.³²

Bere anaia *Jon Zubigarren* bideari jarraiki, 1921ean hasia zen bere poemak eta lanak argitaratzen *Euzkadi*, *Argia*, *Aranzazu*, *Irrintzi*, *Euskal Esnalea* aldizkarietan eta bestetan, Tomas Garbizu ere. *Tege* ezizenez hasi zen idazten eta plazaratzen 1924az geroztik olerkiak, ipuinak, umorezko xapladak eta izkirimiriak, politika-antzerki-musika kronikak *Euskal Esnalea*, *Txistulari*, *Argia*, *El Día*, *El Pueblo Vasco*, *Argiaren Egutegia* ... aldizkari eta egunkarietan.

Errepublikara garaietan, Donostiako Irratetxean ere egiten zituen bere lantxoak Aitzol eta Lauaxetak bezalaxe. Honelaxeko izena du, hain zuzen *El Día*-n agertutako albistea, non Garbizu anaiei berri ematen zen eta Tomasek bereziki prestatu emanaldiaz:

EUSKAL IRRATSAIOAK

Saio polita antolatu digute gaur ilunabarrerako lezoar ertilariak.

Garbizu 'tar Tomax ereslari ta izlari jatorra eratzale izanik ala gerta bear.

Berak egingo du gaurko itzalditxoa. Ta bai pianoan ber-berak idatzitako “Biribilketa” bat, ta Lizarra 'n orain berpiztu duten “Baile de la era” izenez ezagututako dantza berezia jo ere.

“Zubigar” adiskide ona (G.b.) zanaren olerki bi entzungo ditugu aren bi semetxoak, Imanol eta Jon mutikotxoak esanda.

Bi andereño ditugu abeslari, Iñarra 'tar Tomaxe ta Elistondo 'tar Kandidate. “Nere maite polita” arek, eta onek “Goiko mendian” abestuko dizkigute,

Reparaz, abeslari jatorra ere badatorkigu “Aritzari” abestera.

Ta “Aritz ederrean”, “Neure senar” ta “Petra txardin-saltzalia” abestuko omen dizkigu Garbizu 'tar Liborio, abosperen ospetsu ta apaiz jaun gazte agurgarriak.

Azkenik txistulariak ere izango ditugu: Gezala anaiak, iru txuloak noiz itxi ta noiz iriki ta mingaña ta ezpañak nola jarri badakitenak noski, ez al da ala?

Ta iñork geiago nai badu...³³

Euzkadi'ko Txistulari Batzak, 1933an, Arturo Kanpioni eskeini zion omenaldian hantxe izan zen Txistulari aldizkariko idazle euskaldunak ordezkatzeko.³⁴

Bere iritziek oihartzuna ere bazuten, ezen Antonio Labaienek zuzentzen zuen Antzerti aldizkarian (1932-36) behin baino gehiagotan jasoak izan ziren. Eta Saski Naski taldean hala nola Lezoko batzokiko taldearekin, besteak beste, 1935eko otsailaren 7an Donostiako Poxpolin Antzokian Viarrek gaztelaniaz idatzi Alma vasca eta Altunak itzuli Euzko-Gogoa- antzerkian parte hartu zuen.

Lezon ere izan zuten Tomasek antzerkirako zuen zaletasunaren berri:

El domingo pasado se celebraron con gran éxito en el salón catequístico de esta parroquia las funciones que a su tiempo anunciamos.

El acto resultó altamente agradable por el carácter familiar que lo componía, y las obras interpretadas fueron admirablemente representadas en todos sus caracteres, destacándose mucho por su sentimentalismo y fina afición, los señores Martín Alberdi y Tomás de Garbizu, como únicos intérpretes en “Los dos ciegos”³⁵ y Salaverría y Larrea por su caracterizado buen humor en la obra “Los reclutas”.

*Todos fueron muy aplaudidos. Les felicitamos animándoles para que pronto compongan alguna otra velada agradable.*³⁶

Goiz hasi zen Tomas literatur sariak irabazten, bai olerkigintzan, bai ipuingintzan edota hitz lauz. Horrela, 1923az geroztik honako sariak irabazi zituen *Euskal Esnaleak* antolatu txapelketetan: 1923, *Txakur leiala*, (Ipuina); 1924, 23 *Izirimiri*, (Hitz lauz); 1927, *Umezurtz-antzera*, (Ipuina); 1927, *Erbesteko negarra*, (Olerkia); 1928, Gaia: *Gizonaren zoriontasuna* (Hitz lauz).

Zortzi poema arin plazaratu zituen *Euskal Esnalea* aldizkarian eta EL DÍA astekarian, 1927tik 1930era doan epean. Gai nagusiak aberria, mendia, eta erlijioa dira. Bertan euskara errazean, XIX. mendetik zetozen gaiak, euskara eta aberria amatzat hartuta, —Felipe Arrese-Beitia, Felipe Casal, eta beste hainbesteren modura—, izadia, hau da, Euskal Herri mendiz eta itsasoz inguraturua, eta erlijioa erabiltzen ditu. Oro bertso errimatueta, baina hauen neurria aski askea delarik, eta aski modu librean moldatuak.

Bere hizkeran, ageri da euskara garbizalearekin batera, hots, neologismo (*izpar-egunkari-*, *araudia-estatutua*, *erkala-errepublika*, ...) eta aditz trinkoenganako (*dariot*, *dagerki*, ...) joera, garaian jatoriasunaren eredu zirenak, bai eta musikalitate berezia errepika eta hots-jokoetan. Beraz, azpimarratzekotan zerbait formaren aldetik, hotsen, musikalitatearen lantzea eta arintasuna nabarmenduko genuke. Gaiak aski arruntak dira, eta ohizkoak, herriaren gorapatzea eta hiriarren kontra, eta honelaxeak, alegia, poema malkotsu eta negartiak direla, hitz batez, garaiko erromantizismo berantiarren ispilu, beste olerkarien poemagintzaren antzeko.

Baina gerraurre honetan poeta gisa nabarmendu ez bazen ere, dudarik gabe hizlari bezala, polemista eta musikologo gisa ezaguna egin zen, bere erraztasuna eta umore ziridunari esker. Hona, adibidez, eman zituen hitzaldi zenbaiten antolatzaile, urte, toki eta izenburua:

Euskal Esnalea	1929	Gipuzkoako Ateneoa	<i>Euskalduna ta bere eresiak.</i>
Euskal Esnalea	1931	Novedades Antzokia	<i>Gregorio Mujikari omenaldia</i>
Tolosako Aberri Etxea	1933	Tolosa	<i>Euzkadiko oitura zarren abertzaletasuna</i>

Ez ziren ordea olerkiak eta hitz-lauzkoak Tomasek gerraurreko urte haietan argitara eman zituen lan guztiak. 1931-1936 urteen artean, Errepublikako urte guztietan barrena hain zuzen, *El Pueblo Vasco* egunkarian Joseba Zubimendik zuzentzen zuen *Euskal Eresi ta Izkuntzaren alde sailean* ahotsa eta pianorako hamabost konposizio eder aurkeztu zituen: *Goizen Paris'en; Akerra ikusi degu; Mendi-goyetan; Itxarkundia; Nik maite nuen kutuna; Begira nago; Oyes; Guazen mendirik mendi (Mendigoiizaliei); Ni Mendexa'ra; Mendiko negarra; Itxasua laño dago; Eguarri-abestia; Katalin; Arantzazu'ra; Nere maite polita.*

Bruno Imaz, Luis Urteaga, Norberto Almandoz, Jose Olaizola, Jose M^a Gonzalez Bastida, Angel Dadié, Busca de Sagastizabal... izan ziren, besteak beste, Tomasekin batera sail honetan beren konposizioak argitaratu zituzten beste musikagile ospetsuak.

Kulturaz, oro har, eta euskal kulturaz, bereziki, sentitzen zuen kezka han-hemen egotera eramaten zuen Tomas gaztea. 1934an *Gu* kultur taldea sortu zen Donostian. Han dugu berriro ere Tomas:

Estaba en los bajos de la calle del Angel, número 13; era una sociedad aparentemente como las otras, pero que tenía indudables peculiaridades. Allí se celebraron exposiciones de pintura y se dieron conferencias. La inauguración corrió a cargo de Rafael Sánchez Mazas. Todos los socios de Gu tenían la obligación de tutearse y en los locales se permitía la entrada de las damas. También podían los socios pasar la noche en el domicilio social, donde existía un lecho cómodo y debidamente acondicionado. Gu estaba gobernada por un rector, Eduardo Lagarde, y sus administradores eran Marcial Otegui y Juan José Aguirreche.

Entre sus socios figuraban los pintores Olasagasti, Landi, Tellaeche, Montes Iturrioz, Martiarena, Kaperochipi y Cabanas; los escritores Pio Baroja, Tobalina y Berruezo; los abogados Juan Pablo y Luis Lojendio; el fotógrafo Marín y los compositores Telleria y Garbizu.

Ocuparon el púlpito de la sociedad, donde se daban las conferencias, Ernesto Giménez Caballero y Eugenio Montes. Juanito Telleria dio un memorable concierto de armónium y Sainz de la Maza, otro de guitarra.

Cenó en Gu, dos o tres veces, José Antonio Primo de Rivera, coincidiendo en una de las cenas con el conde de Keyserling.³⁷

Garaiko eztabaida literario eta politikoetan parte hartze zale handia izan zen Tomas, batik bat EL DÍA eta EUZKADI egunkarietan. Adibidez, gaztelaniaz “*La misión de los críticos*” artikuluan³⁸, non kritikarien distantziaz eta inpartzialtasunaren alde hitz egiten duen. Halaber “*Euskeraren Alde*” artikuluan³⁹, Orixe eta Aitzolen aurka altxatzen da, hauek oso Lizardizale agertu baitziren, eta bere ustez ilunegi izaki hau. Honen aurrean proposatzen zituen ereduak beste herri idazle hauek ziren: Larreko, Irigarai eta Oxobi.

Gerraurretik argitaratu zuen azken lana, Abelino Barriolak 1932 idatzi *Zozoarro* antzerki-ikus-taldiaz, eta Xabier Mendigurenen⁴⁰ hitzetan, antzezti *ote zen ez dakigunaz*, bertan xeheki eta zorrozki alde onen eta txarren berri emanez, kritikari heldu gisa⁴¹.

ERBESTEAN (1936-1952)

Donibane Lohizunen

Mila bederatziehun eta hogeita hamaseiko uda iritsi zenean, eta Euzko Irratian, besteak beste, lan egiten zuelarik Tomasek, oso beltz ikusten zituen gauzak militarren Errepublikaren kontrako asaldamendua zela eta. Horrela bada, beste abertzale eta errepublikazale askok bezala, gerra zibilaren ondorioz ihesi joan beharrean aurkitu zen. Lehenik mendebaldera eta gero euskal kostan itsasontzi batera igo eta Iparraldera jo zuen.

Gerra garaiko hautsak nekez harrotzen bazituen ere, Tolosan euskal musikaren funtsaz ari zelarik esandakoak dira honako hauek:

*... Tolosatik pasatuak dira musikari aurreratuak, euskal musikaren mamia zertan datzan adieraziz. Arrazoi batzuen artean datza Arcachon-en lastoartean lo egiteko odisea experimentatzea gerra bitartean, aita eta ama hiltzen ikusi gabe, gero Irungo koarteliloa dagoen edo kokatuta zegoen tokian lurtean etzatea, edo Gobernu Zibileko kalabozoan aulki baten gainean, edo Ondarretako gelaxkan, leku estu batean sei edo zazpi pertsona pilatuta, komun batekin aurrean, trapu txiki batekin estalia, ikuskizun irrigarria disimulatzen zuelarik nolobait, azkenean Euskaditik kanpora irtetzeko desterraturik, eta pentsioz aldatzea behartuta egotea eta aldarrikatu gabe joandako gerrako ezbeharren biktima izan zeala.*⁴²

Bere bizitzan garrantzi handia izango zuten bi gizon ezagutzeko aukera izan zuen urte latz haietan: Jean-Marie Diharce⁴³ donibandar gaztea, Xabier Iratzeder idazlea bilakatuko zena eta Charles Lebout organista eta konpositore paristarra.



Aita Xabier Iratzeder.

Jean-Marie Diharce Tomas baino ia hogeitaz urte gazteago izanik ere, —1920ko urtarrilaren 4ean jaio baitzen Marticotenea etxean—, Donibane Lohizuneko itsasertzean ordu asko eman zituzten elkarrekin ibilbide luzeak eginez. Han uztartu ziren betiko urteen buruan uzta bikaina emango zuten bi sentsibilitateak. Tomasen heriotzaren ostean honela hustu zuen barrena:

Ez zen eta ez zitaken izan bi “Tomas Garbizu”-rik. Hogoita hamasei edo zazpian Donibanerat etorri baitzen ihesi, zenbat ibilaldi egin dut lau urtez harekin, itsas-bazterrean!

Euskal-kantuez mintzo ginen; eta, nitan den Iratzeder-goia, harek du egunetik egunerat moldatua.

“Begira nago begira hor goiko bide berrira: Noiz etorriko ote dan, maitea nere herrira”.

Bihotza zabalegi zuen Garbizu-k, zoakon lurreko-maiterik nehoiz nihun aurkitzeko. Euskaldun-goari emana zen, euskal-kantu ta euskal-soinuen egun guzietako gertakariez gorago eremana.

Berrogoi-ta batean, udazkeneko haiz-egoaren hegaletan, joan naiz Beloke-n fraidetzerat; hura Donostia-rat itzuli da. Ez dugu halere, geroztik, elgar ahanzi. “Liturgia” berriaren egunak argitu direnean, dei egin diot; eta, nik hitzak, harek doinuak, eliz-kantu berri asko asmatu dugu.

Gipuzko-Bizkaian baino lasterrago hasi baiginen hemen Baiona-ko eta Erroma-koen baime-narekin, aita Lerchundi-k zuen (erran gabe doa) lehen euskal-meza egin. Bigarrena, haatik, Garbizu-k: “Herriko Meza”; eta, bertzalde, zenbat kantu ala salmo berri, hiru bozetan!

Diskotan argitaratu ta zabaldu ditugun lehen sei salmoak: Garbizu-renak. Nola ez aipa ere, argitu gabeak egon diren: “Nerea da zerua”, “Xoriak sistu”, larogoi-ta hameka orrialde dauzkan “Babiloneko” salmoa?

—Geroztik, Urteaga-rekin dugu gehienik lan egin; hemen baiginuen maiz, Donibane-tik etorria. Nahi-t-ez, ahanzixea sentitu duke Garbizu-k bere burua.

Euskaltzaindiko bilkura batetik ateratzean, buruz buru egin nuen karrikan harekin. Hitzik gabe, aintzinat jo zuen; eta, brist itzulirik, erran zautan: “Euskaldun prantsesak: gizon atsegiñak, bainan... hotzak”.

Etorri zitzaitan halere, behin edo bertze, Beloke-rat; eta aldi batez... bazkaltzerakoan, zer ikusten du, nor ikusten? Urteaga; hura ere hor.

Garbizu-k orduan su ta ximixt: ez zela, segur, bertze horren ondoan bazkaltzerat sartuko. Ez uste izan, halere, deus etsaigorik bazukela; bainan sonulariak soinulari...

Zer egin? Urteaga bertze sala batean bazkal-arazi ahal izan ginuen ohore handienekin.

Horiek hola, urteak jin urteak joan, urrundik elgarri atxikiak egon ginen Garbizu eta ni.

Orai zenbeit urte, Lezo-n eskaini diotelarik omenaldi handi bat, Donostia-ko Apezpikua ezin etorri, ni (orduko aita Abadea) deitu ninduten Meza ta mintzaldi emaiterat.

Hor zen Garbizu, herritar guzietz inguratua, lehen lerroan. Hitzaldia bururatzean, hurbildu nitzai; eta, herritarren aintzinean, zerutiar guziak lekuko, eman diot nere besarkarik kartsuena.⁴⁴

Supazter xokoan izeneko bertso eder hauek ere eskaini zizkion Tomas Garbizu soinuariari 1938ko urtarril hotzean:

*Orduan zen Eguberri!
Tomas, orroit ote zira
Su-garren sorgin dantzari
Nola ginauden begira,
Lotuz kantu xaharreri?
Zoin zen goxoa gau hura!*

*Lehengo Euskaldun gaitzen
Kantuak eta dei latzak
Haitzetan baitziren sartzin
Adar mamiak dakartza.
Hargatik da maiz aditzen
Sutik Arbasoen boza.*

*Bihotzetik zenbeit kantu
Hor xaramelatu-eta
Horra nun zaikun airatu
Egurraren boz pollita:
Sutik gozorik zen aitu
Kantuz eta eleketa...*

*Gauaz igan naiz mendira
Entzun dut Aiten boz hori...
Ez zuen ez goxo hura
Oi, hil auhenka zen ari:
Haizeak Aiten nigarra
Bizkaiatik daut ekarri!...*

*Zerbeit goxo bazen sutik
Airatu kantuño hortan;
Bainan "mur-mur" ahapetik
Egurak erran hitzetan
Ez ziteken adi tuntik...
Baginauden ametsetan...*

*Erori naiz belauniko
Eskuak kurutzaturik:
"Noiz, Jaun Goikoa, noiz zaizko
Supazterrari goxorik
Sistuño hek ber-piztuko,
Anaiak bateraturik?"⁴⁵*

Charles Lebout Pariseko organistak Donibane Lohizunen hartu zuen bizitoki. Hau ospe handiko organista, konpositorea, eta euskal kanten biltzailea ere bazen, —besteak beste *Aide Delizius Huntan*-en aldaera batena—, Rodney Gallop-ek adierazten digunez.⁴⁶ Lebout-ek berehala erreparatu zion Tomasen musika-senari. Maisuaren aholkuek eta Frantziako organo tradizioan inprobisazioari eman ohi zaion garrantziak izan zuten eraginik Tomasek ondoko urteetan bereganatuko zuen organista ospearekin.

Gerraostean, oraindik ere, maisu frantsesak Tomasi Madrilera igorri zion gutun batean hau zioen: "*Travaillez, travaillez, car vous êtes capable d'atteindre des buts que d'autres artistes n'y*

arriveront à le faire” (Egizu, egizu lan, beste artistek inoiz hatzemango ez dituzten helmugetara iristeko gai baitzara).

Maisu eta lagun izan zuen soinularia zendu zenean honela idatzi zuen Tomasek egunkariko zutabeen esker onez:

Desde San Juan de Luz nos llega la triste noticia del fallecimiento del prestigioso organista Charles Lebout, considerado como el segundo intérprete de Francia, tanto por los artistas como por sus amigos y el público.

Su carácter recatado, un tanto solitario, abstraído, lejos de pertenecer a este mundo de la propaganda, quizás perjudicara a su personalidad artística. Pero Charles Lebout no tenía más intimidades que con la Música. Vivía para ella, junto a su hermoso Pleyel y el pequeño órgano que cuidaba él mismo con extraordinario celo, que incluso lo afinaba con un escrúpulo poco común.

Era primer premio de piano de París y después de la guerra de 1914 fijó su residencia en San Juan de Luz y se hizo cargo del órgano de la iglesia parroquial. “Aquí, en este pueblecito, —me decía— paso la vida entre la Música, la pelota y el fandango”. Era íntimo amigo de Ravel.

No me pregunten ustedes con quién estudió el órgano, porque les voy a contestar que estudió solo. Fue un autodidacta excepcional, un caso sorprendente que se hizo con una técnica musical extraordinaria lejos de las disciplinas escolásticas. Fue una caso de voluntad y de amor propio, de alma, de sensibilidad.

Tocando horas y horas llegó a dominar la técnica organística sin tener sentado en el banquillo del organista a un profesor, interpretaba a todos los autores, pero preferentemente a Bach. Sabía la razón y el por qué de los distintos estilos de composición y también la manera de tocar un instrumento. Era siempre atinado y sereno en sus juicios.

Y mis amigos y los suyos se extrañaban de cómo conseguía yo que este hombre entrara en un café, dado su carácter solitario. En mis viajes a San Juan de Luz paseaba con Charles Lebout y, sin conocer sus gustos, le invitaba a tomar café y a sentarse un rato.

En una ocasión vino a Madrid a dar un concierto con un violinista. Al día siguiente del concierto me llamó para almorzar en un restaurante de Lavapiés, dejando en suspenso todos los compromisos anteriores.

Actuaba una vez el coro de los Pequeños Cantores de París y al órgano el maestro Duruflé. En uno de los entreactos actuó Lebout. Después de la actuación de este ilustre maestro, Duruflé exclamó:

—Pero usted ¿qué hace aquí?

—¿Yo? Tocar el órgano.

Y vivir entregado a la Música dentro de la mayor quietud espiritual. Así ha muerto, lleno de serenidad, de bondad. Ni su muerte ha sido motivo para airear la triste noticia. Ha muerto solo,

con Dios y la Música. Y su fallecimiento ha sido una sorpresa para sus íntimos amigos, entre ellos yo, que he pedido fervorosamente por su alma.

Descanse en paz. ”⁴⁷

Gerra amaitu zen urte berean, Tomasen gurasoak Lezoko Aldasoroenea etxean hil ziren sei hilabeteren barruan: 1939ko martxoaren 27an ama, eta 1939ko urriaren 1ean aita. Urte bat geroago ere, 1940ko otsailaren 10ean oraindik iparraldean da Tomás, Eusko Deya-ko albiste batek dioenaren arabera, errefuxiatuen alde egindako jaialdi batean parte hartuz, pianoa joaz.



Ziburun, Ravelen jaiotetxearen atarian

St. Jean-de-Luz

Collaboration des Basques émigrés à une fête de bienfaisance.

Deux fêtes ont eu lieu à Saint-Jean-de-Luz, au Casino de la Pergola, au profit des euvres du Comité d'Action des Anciens Combattants de Saint-Jean-de-Luz et Ciboure.

Les Basques émigrés, parmi lesquels se trouvent des éléments artistiques de valeur, le pouvaient manquer de collaborer à ces fêtes organisées par Mme Goodchils.

Ainsi donc, le public aussi nombreux qu'intelligent, put admirer les belles voix de Mlle Lide Ibarrondo et de M. Sagarzazu, déjà connues par tous ceux qui avaient eu l'occasion de les applaudir dans leurs choeurs respectifs, "Elai-Alai" et AEResoinka".

*Un autre basque émigré, M. **Tomas Garbizu**, accompagna au piano les chansons interprétées par ces artistes au cours de différents sketches.*

Nous enregistrons avec satisfaction cette collaboration de nos compatriotes à une fête de bienfaisance dont le caractère a permis l'exprimer dans cette forme la sympathie et a reconnaissance des Basques envers la France.

La fête eut un grand succès, auquel contribuèrent aussi d'autres éléments notables de la ville et de la colonie étrangère: Milles Geneviève Beau, Elvira Viñes-Soto, Rose-Marie et Jacqueline Favre, Mathio Higny, Evelyn Ricard, Regine Barbet, Monique Arnoux, Anne-Marie Berntsen, Claude Goldschmidt, Armelle Ricard, Yvette et Huguette Domange, Geneviève de Villepion, Ghislaine Chervin, Mme Moussempe, Mlle Fisher; MM. Charles Nicholson, Christian Berntsen, Capitaine Goodchild, Daniel Domange, Georges Olascuaga, Jean Larregain, Jean Etchgoyen, Daniel Gieules, comte de Rivière, Ignacio Insausti, Robert Usabiaga, Rafael Angulo, Leon Dourritzague, etc.

Un Atrès bien” à M. Laffargue dans ses histoires basques, et M. Gaston Beaugnies de Saint-Marceaux dans ses exercices de prestidigitacion.

*M. le sous-préfet de Bayonne assista à la matinée du 23 qui fut présidée par les maires de Saint-Jean-de-Luz et de Ciboure.*⁴⁸

Ikusten denez jaialdi hauek oso borobilak gertatzen ziren, kantez aparte, ixtorioak eta zirkojokoak, besteak beste antolatzen baitziren entzun eta ikusgarri. Eta dena errefuxiatuen alde dirua biltzearen.

Tomasi entzuna diogu ere, bizitzaren halabeharrez solfeo eta piano klaseak ematen zituela Donibanen, eta pianoa jotzen jairen bat edo beste antolatzen zenean, baina ez soilik errefuxiatuen alde, gertatzen zenean, Chantaco golfeko pianoan ere maiztxo jokatzeko omen baitzuen, geroago Madrilen eginen duen eran.

Erbestean bizi arren nola-hala, bere izena ez zen ahantzia, ezen geroago adiskide on izango zuen Jesus Maria Arozamena donostiarrak eta Victor Espinos-ek 1938ko urtarrilaren 31an Victoria Eugenia antzokian beste batzuekin batera antzetzarazi zuenean *El retablo de Navidad*, musika ilustrazioak F. Cotarelo, F. Moreno eta J. Garcíaenekin batera Garbizurenak izan ziren.


Maurice Ravelen obraren miresle.

Maurice Ravel, Ziburun 1875ean jaiozako euskal musikari ospetsua, 1937ko abenduaren 27an hil zen Parisen. Tomasek askotan esaten zuenez, Johan Sebastian Bach eta Maurice Ravel ziren gogokoen zituen bi musikagileak. Organojole eta irakasle izanik, guztiz asetzen zuen Bachen musikaren sakontasunak eta alde guztietatik darion erlijiozkotasunak.

Bestelakoak ziren, baina, Ravelen musikak sortzen zion zirraren arrazoiak. Ravelen harmonia, kontraste, perkusio-efektu eta abarren antzekoak ditu Tomasen musikak. Oso hurbilekoak zituen Ziburukoaren sonak.

Ravel 1937an hil bazen ere, Tomasek ezagutu zuen, antza denez, honakoxea esan baitzigun: *Nik Frantzian ezagutu nuen, han bizitu nintzen eta.*⁴⁹ Beraz, 1936ko udazkenetik 1937ko abendurako epe horretan beharko zukeen izan. Epe honetan ere, eta Donibane-Paris artean ziurren, biak aipatzen baitituzte musikologoek,⁵⁰ prestatu zuen *Cantantibus organis*, hamar piezaz osaturiko koadernoak. Badirudi Tomasek Lebout-i galdetu zionean ea bazeukan zerbait E. Torresenik, erantzun ziola organojole frantsesak: *Zertarako nahi duzu, zuk, Tomas, hobeto konposatzen duzu eta.* Antologiatxo hau Ervitik argitaratu zuen Donostian, eta zati hauek ditu: *I. Entrada*,

2. *Meditación*, 3. *Gradual*, 4. *Ofertorio*, 5. *Evocación (A mi madre)*, 6. *Oración*, 7. *Improvisación*, 8. *Canción*, 9. *Interludio* eta 10. *Final*. Kritikariren batek ez zuen oso begi onez aztertu lana, dirudienez, bertan ageri delako, *un asomo de atonalismo sin penetrar en él*,⁵¹ eta Gonzalez Amezua atera zen Tomasen defentsan, erantzunez, obra hau intimitatean entzun behar dela, darrion urrin mistikoa dastatu ahal izatearren, eta Garbizu, dudarik gabe, euskaldun-espainol Ravel berria zela.



Maurice Ravel Ziburuko frontoian, bere omenezko pilota partidua jokatu zuten egunean

Tomasek Raveli buruz hitz egiten zuen guztietan gai bera jorratzen zuen, alegia, musikagile euskalduna zen ala ez. Argi du ez dela nahikoa Euskal Herrian jaiotzea, eta ezta euskaraz hitz egiten jakitea bera ere, euskal musika egiteko:

Ziburun jaio zen, baina ez da asko Ziburun jaiotzea. Ni usotegian jaio izan banintz ez nintzateke usoa izango, Garbizu izango nintzateke. Nire ustez, ezin daiteke esan Ravel euskal musikoa denik, gainera berak esan zuen ez zuela nahi printzipioz, ez zituela euskal gauzak ukitu nahi. Ravel oso frantsesa da musikaz, eta bi edo hiru hitz euskaraz jakitea ez da nahikoa. Euskal Herrian jaiotzea "pecata minuta" da, eta Ravelek oso garrantzi haundiko musika frantsesa egin zuen, eskola frantsesaren adierazgarrietakoa delarik.

Eta gaztelaniaz jarraitzen du Tomasek hain gogoko zeukan Raveli buruz mintzatzen, haren euskalduntasunaz eta musikaz:

*Hay una fotografía del compositor junto con los pelotaris vascos. Esa foto está muy divulgada y para colmo, cualquiera puede sacar una fotografía, o bien con los pelotaris, los aizkolaris, o con... Juanito Kojua. Es posible que su estado de alma aflore en algún momento en su música, debido a su origen vasco pero sólo de una manera inconsciente, y que no es poco si fuera así. Ravel alcanzó la meta del más puro refinamiento de la escuela francesa, que era, precisamente, su preocupación. Por cierto que, referente a Ravel, hay una anécdota de cuando vino a Bilbao su Vals. Se dice, que en uno de los ensayos, dijo en euskera: "Gatxa da, gatxa" (Es difícil). Se lo conté a Sorozábal, quien me dijo que fue él quien organizó aquella Semana de Conciertos en pro de Ravel. "De esa anécdota no me acuerdo —me dijo Sorozábal—, pero sí, que, con gestos y mímica, quería pedir algo que salpicara. Entonces me di cuenta de que le gustaban las lanpernas..."*⁵²

Badirudi ez zuela inork konprenitu Ravelek esan nahi zuena, zeren ziuraski gatza, gatza, hau da, zerbait bizi eta saltalari, mugitua, ez zerbait zaila eskatuko zuen.

Tomasentzat Ravel musikagile unibertsala da, bere musikak muga guztiak gainditzen ditu: *Raveli Euskal Herriak ez dio goratu behar. Ravel mundu guztian goratua dago*, zioen, eta hitz hauetan ikus dezakegu, beraz, alde batetik Tomasen adimen zorrotza, logika eta zentzu arrunta, eta bestetik, protesta antzeko ukitua, alegia, bizirik zeuden eta behar bezala tratatu gabeko artistez arduratu behar zela.

Madriren

Gerra bukatutakoan, eta Irungo eta Donostiako kartzelak ezagutu ondoren etxeratu zen, baina ikusi dugunez, jada hilak zituen gurasoak eta familiako guztiak bera baino nagusiago zirenez, Benita eta Liborio izan ezik, Madrilera abiatu zen hamabi urte luze iraungo zuen bidaian.

Ez zen, noski, batere erraza izango Madrileko egoitza Tomasentzat, jada berrogei urtetan sartua eta musikaz soilik bizi edo elikatu nahi, eta profesional gisara garaile atera nahi zuenarentzat. Bestalde, bere ustez sorterrian gelditu izan balitz San Pedroko elizako organo bankuari itsatsirik ez zukeen inoiz lortu ahal izango hiriburuak eskain diezaiokeen proiektzioa eta musika arloko harremanik. Hauexek dira, hain zuzen, bere hitzak:

Yo me fui porque es cierto lo que se dice, que para los artistas de aquí la única salida, es salir. Creo que es bueno ver y hacer comparaciones y aprender, pero también es cierto que no se es bueno porque se ha salido, sino que los que se van es porque son buenos y salen ya cargados con un buen equipaje.[...] ⁵³



Madriren 40ko hamarkadan

Madriren gogor lan egitea suertatu zitzaion.

1940ko urriaren 30ean Jazinto Benaventeren Teatro Lara-n aurkitzen dugu musika-ilustrazioak eginez honen *Aves y pájaros* obran⁵⁴. Bi parte zituen antzerki honek eta Aristofanesen eran antolatua izanik, badirudi garaiko kritikari zorrotzei ez zitzaiela gehiegi laket izan errealistegi zelako, baina Benavente txaloak jasotzera igo zen agerlekura eta aski hitz patriotikoak ere izan zituen.

Obra hau dela eta Gregorio Torresek⁵⁵ salatzen du denbora luzeegian iraun zuela tamalez bi Espainia delakoaren

klitxeak, hots, hegazti eta txorierna Benaventeren irudi lotsagarrian. Hona, bestalde, Jorge de la Cueva k zioena:

Aves y pájaros. Comedia aristofanesca de Jacinto Benavente

Lo que sucede en el país de las aves es tan idéntico a lo que ha ocurrido en España, que el ingenio del actor tiene que ceñirse demasiado a lo real. Las ficciones de la fábula son por eso tan primarias que muy pocas veces durante la obra vivimos en el país de la fantasía y de lo general. [...]

Irene Lopez Heredia estuvo magnífica en todo su papel, pero en el monólogo de la Corneja se superó; dio arte, gracia, variedad e intención, con simplicidad magistral; Adela Carboné dio gracia increíble a su papel y lo destacó con acierto finísimo. Muy bien Ana Siria. Marino Asquerino, Alburquerque, en el buitres; García, Montijano y todos en general, en un magnífico conjunto. El público subrayó los momentos, aclamó y aplaudió a Jacinto con vivas entusiastas...⁵⁶



Futbolzalea genuen Tomas.

Garaiko USA karikaturagileak egindako marrazkian, Irene Lopez Heredia (La Corneja) eta Adela Carboné (La Cacatúa) andreak eta Jose Latorre (Evelpides) eta Mariano Asquerino (El autor) jaunak ageri ziren. Badirudi, bada, Garbizuk bohemia mundu honekin harremanik izan zuela.

Madrileko beste antzokitan ere lan egin zuen sosak biltzearren. Hauexek dira, bere hitzak:

Había que trabajar en ellos para sacar unas pesetas. Actué bastante con Tamayo en las zarzuelas y también llegué a hacer música para don Jacinto Benavente. Para una obra suya, “Aves y pájaros”, compuse la partitura, en la que había dos himnos, uno para cada bando. El ingenio de don Jacinto iba hasta el extremo de que el mismo discurso que soltaba con motivo del estreno lo iba cambiando según las ciudades donde actuábamos. Perdí la partitura de aquella obra, al igual que he perdido otras muchas. Actué junto a las grandes estrellas de la época. Recuerdo especialmente a Celia Gámez, Carmen Sevilla o a la inolvidable Lili Murati.⁵⁷ Recuerdo que el maestro Torroba quería que yo tocara a mi aire, con total libertad. Cuando volví a San Sebastián para hacer las oposiciones del Conservatorio, los amigos de Madrid me dijeron que el órgano había dejado de oírse en la capital desde que faltaba mi música.

Eta Gran Vían topatu omen zuen behin Burgosko adiskide bat beste lana bideratuko ziona:

*Tenía que trabajar mucho para salir adelante. Buscando trabajo estaba por la Gran Vía madrileña, cuando me encontré con un amigo de Burgos, que había sido organista en París y que venía huyendo de los alemanes. Estaba montando el órgano de la Embajada francesa. Fui a solicitar el puesto de organista y como González Amezua que era el ingeniero que dirigía el montaje, sabía que yo quería aquel trabajo, habló por mí y me lo dieron inmediatamente.*⁵⁸

San Luis de los Franceses-eko organoa ez zen oso handia, baina bai nahikoa Tomasek ariketa aski bertan egin zezan, eta zituen dohaiak interprete eta inprobisatzaile gisara lan zitzan. Mila bederatzehun eta berrogeian OESA (Organería Española Sociedad Anónima) enpresak egina, bi teklatu zituen eta hamasei errejistro, trakzio mekanikoa zuelarik.

Meza, komunio, hileta eta beste eratako elizkizun guztietan parte hartzen zuen, bizia aurrera ateratzearren. Honela aitortzen zuen berak: *Todos nos dedicábamos a estos menesteres, porque para poder vivir había que tocar muchos pitos. La vida en Madrid es intensa y se trabaja bastante más de lo que es creencia popular.*

Madrileko garai hau, oso latz eta gogorra izan arren, oroitzapen biziz gogoratzen zuen elkarriketaren bat ematen zuen bakoitzean:



Madrileko San Markos elizako organoa

Creo que era el único que en aquella época tocaba “La Marsellesa” con total impunidad. Cuando había alguna fiesta en la embajada había que tocar el himno, aunque estuviera prohibido, yo disfrutaba interpretándolo a todo volumen, con el obispo de Madrid como aliado. En cierta ocasión asistió a misa de manera oficial el embajador francés. El celebrante era un cura que había en la embajada con ciertas pretensiones pero que jamás llegaría a ser obispo. Todos le consideraban como una excelente persona, para mí no era más que un simple contrabandista. En el momento del sermón apagué el motor del órgano, como lo hacía siempre, pero las aspas del motor no pararon de inmediato, como es natural. Ante el ruido del motor que aún se oía me dice desde el altar el cura francés: “Pare, pare usted el motor”. A lo que yo le contesté desde el coro emulando a Xenpelar:

4.º ESTRENO del sainete futbolístico en un acto y cuatro cuadros, original de los antiguos alumnos Jesús María de Arzamena y José María Laita. Música de los maestros, Manuel Parada y Tomás Garbizu

“EL FENOMENO“

con el siguiente reparto (por orden de aparición en escena):

Burguete	Gustavo A. Pérez Puig.
Remacha	Jesús María Crespo.
Vergas	Jaime Laita.
Remigio	Antonio Cobos.
Hermógenes	Tomás Martín.
Bambino	José María Cavanillas (hijo).
Elcuterio	Justo Melendo.
Escalona	Luis Rodrigo.
Don Ernesto	Miguel Díez Guerra.
Ordencanza	Ignacio Gil Delgado.
Barón	Antonio Forcada.
Alfredo	Fernando Urquidí.
Conductor	Agustín Blanch.
Cobrador	Ignacio Gil Delgado.
Viajero 1.º	Manuel Serrano.
Viajero 2.º	José María Cavanillas.
Un peatón	Julián Fernández Serrano.
Policia Urbano	Tomás Martín.
Guardia	Carlos Lahoz.
Pardo	Manuel Serrano.
Fotógrafo	Ignacio Gil Delgado.
Carnejo	Agustín Blanch.
Camarero 1.º	Ignacio Gil Delgado.
Camarero 2.º	Rafael Porres.
Leocadio	Tomás Martín.

Dirección escénica de los autores.
 Director de orquesta: Maestro Garbizu.
 Coreografía: Emilio Barta.
 Apuntador: Sebastián Abollo.
 Decorados: García y Ros.
 Vestuario: Humberto Carnejo.
 Alrezo: Vázquez Hermanos.
 Peluquería: Ruiz.

5.º FIN DE FIESTA, a cargo del genial humorista

RAMPER

Asociación de Antiguos Alumnos de Areneros

PROGRAMA


de la velada teatral que como homenaje al Hermano Carlos G. Zurbano, en su 25 año de profesorado en el Colegio, celebrará el Cuadro Artístico de la Asociación, el día 31 de diciembre de 1948, fiesta anual de la misma, en el Salón de Actos del Colegio (Alberto Aguilera, 23)

A las cinco y media de la tarde

“Hace tiempo que está apagado”. Inmediatamente pensé: “Aquí ha acabado tu estancia en Madrid, Garbizu. Tendrás que volver a Lezo.” Al acabar la misa el párroco me mandó el aviso de que me presentara ante él. Una vez en su presencia me dijo: “Le he llamado a usted porque ha estado formidable” y me invitó a comer. Era evidente que su relación con aquel cura intruso tampoco era muy cordial.⁵⁹

San Marcos elizako organista ere izan zen. Hemen organo sinfoniko erromantikoa zegoen, San Luisekoa baino handiagoa, Akilino Amezua organogilearen eraikintza ohikoa. 1905. urte inguruan egina, berrogeita hamasei notadun bi teklatu eskurako eta hogeita hamar notadun oin-kiaz moldatua zegoen, orotara hogeita hiru errejistroekin. Transmisioa mekaniko-pneumatiko-tubularra zen.

Eta horrela sosen bila antolatzen ziren musika sorketa askotara aurkeztuko zen Tomas, eta zenbaitetan irabazi ere bai, hala nola Orfeo Catalá-k 1941ean antolatu zuen Soprano eta abesbatza mistoentzako sarian irabazle atera zen *Cancó de bressol* deituaz.



San Marcos
elizako atarian



Jesus Guridi.

Vicente Menaren hitzetan oinarrituz koru eta orkestarako konposatu zuen 1941ean *Danos la paz* kantata, zein Donostiako Victoria Eugenia antzokian, Easo Abesbatzak eta Donostiako Kontserbatorioko orkestak estreinatu zuten Ramon Usandizagaren zuzendaritzapean 1943an.

Halaber, 1945ean Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutakoan Soprano eta ahots zurientzako norgehiagokan irabazle atera zen *Baratzeko* obrarekin.

Ez du aipatzen Tomasek bederen hiru urtetan, 1942, 1943 eta 1948an Teatro del Colegio de Areneros, delakoan, hau da, jesuiten ikastetxeko antzokian urte amaieran, Jesus M^a Arozamenaren eskutik eman zituen musika-lagunaldiak. Hona, zehazki artxiboek diotena:

*Un viaje a la fortuna*⁶⁰ komedia, Jesuitetan 1942ko abenduaren 31an antzeztua. Ekintza Madrilen eta Arjentinako irudimenezko Puerto Chico-n gertatzen zen.

*Nuevo en esta plaza*⁶¹. Aurrekoa bezala, komedia, Arenerosko Ikastetxeko antzokian emana 1943ko abenduaren 31an. Egile berak eta Tomasen musika laguntzarekin. Ekintza Los Alamillos, Madrileko mendian eta Utreran gertatzen zen.

El fenómeno. Carlos G. Zurbano anaiaren omenez 1948ko abenduaren 31an, urteroko jaialdian ikastetxeko antzokian emana. Hona Jesus Maria Arozamena eta José María Laita-k idatzitako esku-programaren autokritikak zioena, besteak beste:

Para ilustrar musicalmente nuestro sainete “El fenómeno”, que situamos en un ambiente de tan palpitante actualidad como es el del fútbol, hemos buscado la colaboración de dos grandes músicos: Tomás Garbizu, que ya nos acompañó en ocasiones anteriores, solo unas veces y unido otras a otros queridos colaboradores nuestros como los maestros Guridi, Misol, Moreno Torroba, el desaparecido maestro Alonso (q.e.p.d.), etc. [...]

*Los cuatro hemos puesto en la obrita el máximo interés, con la sola pretensión de que pueda servirnos de entretenimiento en esta tarde de fiesta familiar de fin de año*⁶²

José Tamayok⁶³ zuzentzen zuen Compañía Lope de Vegarekin ere kolaboratu zuen Tomasek Calderón de la Barcaren *El Gran Teatro del Mundo* antzezkizunaren ilustrazio musikalak egiten 1946an. Eta Lara, Areneros, Circo Price, Lope de Vega, Fuencarral-eko antzokiak izan ziren

besteak beste Tomasen joaldien ikuskizun eta entzundegi, hala nola Komediako teatroa, non Arthur Miller idazle ospetsuaren *Saltzaile baten Heriotza* lana musikalki ilustratu zuen⁶⁵, 1952ko urtarilaren 10ean, Jose Tamayoren zuzendaritzapean. Antzekizun honetan organoa elektrostati-koa zen eta partitura Axel North-ena. Hona lau antzezleri lehenen banaketa.

Willy Loman..... *Carlos Lemos*

Linda, su mujer..... *Josefina Díaz*

Happy, su hijo menor.... *Angel de la Fuente*

Biff, su hijo mayor..... *Francisco Rabal*

Alfonso Sastre eta José María de Quinto, besteak beste, urte batzuek geroxeago teatro berri baten bila agiria sinatzen dutenean, hots, *Teatro de Agitación Social* delakoaren alde, taularatze-ko proposatzen dituzten egileen artean Sinclair, Toller, Steinbeck, Rice, Sartre, Brecht eta Miller izango dira.⁶⁶

Garai hartan artista eta bereziki musikari euskaldun ugari bizi ziren Madrilen, adibidez, Sorozabal, Guridi, aita Otaño, Gabiola... Azken hiru hauek Madriliko Musika Kontserbatorioko zuzendari izatera iritsi ziren. Hantxe zegoen Juanito Telleria zegamarra ere, Jose Millan Tomasen anaiaren adiskide handia, zein gazte garaetatik ez zuen ikusi. Honek, ezaguna den bezala, mol- datu zuen *Cara al sol* himnoaren musika, eta jada zarzuela bat estreinatua zuen, *El joven piloto*, izenekoa.

Ez da harritzekoa, bada, adiskide horien bitartez San Fernando akademiak ematen zuen Cartagenako Kontearen beka lortzea musika ikasketetan jarraitzeko. Hauek burututakoan, gaine- ra, On Mariano Benlliurek domina bat ipini omen zion kontatzen zuenez:

Conservo con cariño la medalla que recibí de la Academia al terminar la etapa de mis estudios. Recuerdo perfectamente que me la entregó el ilustre escultor Benlliure (D. Mariano), recuerdo también que antes de entregarme en persona me dirigió unas palabras. Yo apenas podía escucharle porque justamente levantaba la voz y se notaba que estaba agotado por el paso de los años. Una vez que hubo terminado sus palabras de salutación se me ocurrió preguntarle si conocía a mi primo el pintor Elías Salaverria y me contestó: “Pues eso era lo que le



“Conde de Cartagena” beka baliatuz burutu zituen konposizio ikas- ketak amaitutakoan jaso zuen dominaren bi aldeak.



Ramón González de Amezua organistak Madrileko bere auditorioan zuen organo honekin ematen zituzten kontzertuak Garbizuk eta Guridik gerra osteko urteetan. Organo hau, gaur egun, Donostiako apaiztegiko eliza nagusian dago.

*decía a usted precisamente: a ver si era usted primo de Salaverria". Vi que en aquel momento había cometido yo un patinazo.*⁶⁷

Tomasek larunbatero, urte osoan, gaeko hamabietan Matias Prats, Radio Nacional de España-ko esatariak komentatzen zituen organo kontzertuak eskaintzen zituen. Kontzertu hauek, bakar-bakarrik eskaintzen zituen Tomasek gehienetan, batzuetan Guridi adiskide handia lagun izan bazuen ere. Zerabilten organoa OESA etxekoa zen, eta Ramon Gonzalez de Amezua-ren Auditorium-ean zegoen, eta gaur egun organo hau Donostiako apaizgaitegiko elizan aurkitzen da⁶⁹.

Jesus Guridi⁷⁰ Tomas baino hamabost urte zaharragoa zen, baina elkarrekin organo kontzertu asko eskaini zuten, eta elkarrekiko miresmen eta errespetu handia mantendu zuten beti. Elkarrekin jo zuten esan dugun bezala Espainako irrati nazionalean askotan, eta Donostiako Artzain Onaren katedraleko organo handia inauguratu zenean ere bata bestearen ondoan ziren. Biok batera aipatzen ditu Jesus Maria Arozamena historialarak ere, zeinekin bizi zen Tomas, Ayala kaleko 6an:

En la escuela organística española de la que formaban parte Eduardo Torres, Norberto Almandoz, Juan María Thomas, Luis Urteaga, Tomás Garbizu, Miguel Echeveste, José María Beobide, Juan Bautista Lambert, el padre Otaño, Martín Rodríguez o Zubizarreta, Jesús fue un renovador importante. Tiene también valor la simple consideración de que Guridi escribió obras para órgano, siendo un compositor que había dedica-



Ezkerretik eskuinera: Elias Salaberria, Tomas Garbizu eta Jesus Maria Arozamena, Eliassen Madrileko estudioan

do sus horas de creación a géneros musicales tan distintos como son la ópera, la zarzuela, la sinfonía, el cuarteto y la canción. Y fue, siempre que pudo, un organista activo (en los últimos años de su vida, titular de la iglesia de San Manuel y San Benito, de Madrid). Cuando Radio Nacional de España encargó a Garbizu unas emisiones, invitó a Guridi para que tomara parte en uno de aquellos sábados organísticos; aceptó sin la menor vacilación, colaborando con el eminente organista guipuzcoano en aquellos inolvidables conciertos.⁷¹

Hona Arozamenak kontatzen digun Madrileko bizitzaren beste anekdota, Jeanne Demessieux⁷² organojole frantsesa bertatik igaro zenekoa, eta non ikusten dugun hirurak, hots, Guridi, Garbizu eta Demessieux, hala nola Ramon Gonzalez Amezua zein ongi konpontzen ziren:

Cierto día vino a dar un concierto de órgano en Madrid, en la iglesia de San Luis de los Franceses, de la que era organista el gran músico vasco Tomás Garbizu, Jeanne Demessieux. Oyó Jesús el concierto desde el coro y Garbizu le pidió que propusiera un tema a la organista. Guridi eligió un tema de Amaya; ella meditó un rato y se puso a tocar. Lo hizo de tal manera, que al terminar confesó Guridi: “De buena gana no volvería a tocar el órgano.” Mademoiselle Demessieux tenía entonces veintidós años. Actualmente toca todos los domingos en la misa de once y media en la iglesia de la Madeleine, de París.⁷³

Al día siguiente del concierto en San Luis de los Franceses, la joven organista, Guridi y Garbizu dieron un recital para Radio Nacional, desde el domicilio de



Jeanne Demessieux
(1921-1968)



Luis Mariano

Ramón González Amezáia, en el que tenía instalado un órgano —el que está en el Seminario de San Sebastián—; Guridi tocó sus Variaciones vascas (su verdadero título es Variaciones sobre un tema vasco), porque tenía interés en que las conociera Jeanne Demessieux.⁷³

Parisen Luis Mariano⁷⁴ Palais Chaillot-en estreinaldi arrakastatsua 1941ean izan zuenez geroztik honen fama eta ospea gero eta handiagoa egiten joan zen, eta Tomasek gaztetandik ezagutzen zuen, hau da, Luisek hamabost urte inguruan zituenean eta Tomas jada musikari ezaguna zelarik. Honelaxe kontatzen digu Tomasek bien arteko harremana:

Entonces su vocación no iba por el canto. Siempre vestido de blanco y sin un duro, quería ser bailarín. A mi me parecía que tenía condiciones buenas de tenor y le animaba a la canción. Aquí se hizo del Orfeón y cuando vino la guerra y se fue a Francia, formó parte con Gabriel Olaizola y Jordá, del coro que hicieron en París y que era el albergue de todos los refugiados, porque lo financiaba el Gobierno Vasco en el exilio. Las primeras actuaciones de Luis Mariano fueron con una orquestina, amenizando la travesía de un trasatlántico y en el primer viaje tuvieron que volver a puerto por amenazas de la aviación alemana.[...]

“Merçi, Paris” de Luis Mariano es mío. Yo estaba en Madrid y Luis Mariano solía escribirme para contarme: ¿Sabes Tomás? me preguntan de quien es “Merçi, Paris” y yo les contesto que mío”. “Joróbate”, solía pensar. Yo sabía cómo sentía Luis Mariano y aquella canción le iba.⁷⁵

Madrilen zelarik Tomas ez zen gelditu, noski harremanik gabe bere sorterriarekin. Ziurren itzuliko zen urtean behin baino gehiagotan, trena hartuz Lezora eta Donostiara hemen geldituak ziren anaia-arrebak eta adiskideekin hitz egitera eta musika egitasmoak bultzatzera. Honela bada, ikusten dugu Irungo Coro Maitearekin, eta hau zuzentzen zuen Maria Teresa Hernández Usobiagarekin harremanetan, zeren honek 1949ko urriaren batean Oñatiko Unibertsitatearen klaustroan eman zen musika programa, bai lehen partean (*Ave Maria*, lau ahotsetara, eta Schubert-en *Wiegenlied* bosta ahotsetakoaren konponketaz) eta bigarreanean Manuel Ponceren moldaketa batekin (*Estrellita* lau ahotsetara) aurkituko baitugu.

Halaber Madrileko Udalak 1949an antolatu zuen kontzertuaren programan, XXX. *Aniversario de la Fundación de la Biblioteca Musical Circulante* zela eta ospatzeko lehen partean azkeneko bi piezetan Tomasen parte hartzea nabarmena izango da:

5° PLEGARIA Tomás Garbizu

DIE BLUMEN. Schumann

6° EVOCACIÓN T. Garbizu

Soprano, Marimí del Pozo.

Armónium, Tomás Garbizu (Lector núm. 1.295) ⁷⁶.



Elías Salaberria Intxaurrendieta.

Elias Salaberria Intxaurrendieta⁷⁷, lezoar pintore ospetsu eta saritua, gerra zibilean Finlandiako Enbaxadan errefuxiatu, Valentziara pasa eta Frantziar barrena ibili ondoren berriro 1943an jada Madrilan aurkitzen dugu, eta San Fernando Akademiako kide izendatu zuten 1944ko apirilaren hamabostean. Sarrera solasaldia gai honi buruz egin zuen: *El cuadro de Historia*. Eta berari erantzun zion José Francés-ek, erakunde honetako idazkari betirakoak. Urte honetan bertan Donostiako Udalak antolatatu Euskal Artisten Erakusketarako honako lau koadro aurkeztu zituen: *Ixiar*, *La confesión del requeté*, *Caserita*, eta *Estropada*. Elias lanean etengabe, —Montesa kaleko 27an atikoan—, bizi zen, noiz behinka esposizioak Donostian, Monteviden edota Buenos Airesen prestatuz, eta Tomasekin ere harremanik izan zuen herri bereko eta lehengusu propioak zirenez. Elias, dakigun bezala, lanean hil zen.

Hona pintorearen heriotza nola kontatzen diguten Tomasek eta Arozamenak, bigarrenaren kronikarekin hasiz:

Aquella tarde, Tomás Garbizu, el compositor, y yo, habíamos ido a Toledo como otras tantas tardes, a visitar a nuestro anciano y juvenil amigo don Julio Pascual, maestro de la forja en hierro, en cuya casa-taller hemos pasado horas inolvidables. Al volver a Madrid, nos esperaba un funcionario judicial.

—¿Don Tomás Garbizu?

—Sí...

—Me han informado los Padres Franciscanos de San Francisco el Grande que es usted pariente de Don (consultó unos papeles) Elías Salaverría.

—Primo carnal.

—Don Elías ha fallecido y como es usted el único familiar que está en Madrid, tiene que acompañarme para cumplir las formalidades de la ley.

Así fue cómo tuvimos noticia de la muerte del pintor. Camino del Instituto Anatómico Forense, aquel hombre nos explicó que un fraile se lo había encontrado muerto en el andamio que le montaron en la iglesia para la restauración de unas pinturas. Su esposa pasaba una temporada con su hija que, casada con un diplomático, vivía entonces en Teherán. Tomás

Garbizu Salaverria acudió a cumplir el doloroso deber de reconocer el cadáver de su primo y ponerse al habla con la viuda y con la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando de la que Elías era académico.

El del Juzgado y un conserje del depósito nos llevaron a través de pasillos y escaleras hasta una sala. Estaba en mangas de camisa y con un pantalón de trabajo con manchas de haber limpiado en ellos los pinceles.

–Gizajua... (Pobrecillo).

En un despacho había dos periodistas.

–Señor Garbizu, reciba nuestro pésame... ¿Hace mucho que no veía usted a su primo?

–Anteayer estuvimos comiendo en casa de...

Y me presentó.

–Comimos Elías, Jesús Guridi y nosotros. Hoy debíamos de habernos reunido invitados por él.

Y Tomás habló a aquellos periodistas, no del hombre ilustre, sino del hombre, del lezotarra, de aquellos años mozos de ilusiones, de la madre del pintor, de la plaza del pueblo, de los paseos por el Jaizquibel, de sus gustos sencillos... Pocas veces he oído hablar a nadie con tanta emoción. Se diría que Garbizu era un niño y que estaba refiriéndose a otro niño.

Al salir de allí, mientras íbamos en silencio por el paseo del Prado, sentí que rezaba.⁷⁸

Maite eta estimatzen zuten elkar, beraz, Tomas eta Eliasek, eta honek, hemezortzi urte zaharrago izan arren, bazuen traturik Tomasekin, ikusten denez elkarrekin maiz afaltzen baitzuten Guridiren eta Arozamenaren konpainia onean. Hona Lezoko herriak Eliasi 1968an egin zion omenaldian Tomasek euskaraz idatzi zuena:

Bat batean, Elias Salaberria aitatu hutsarekin, badirudi harritu egiten garela. Jakina: aspaldiko urteetan isilik daukagun gizona aurreko aldean jartzean, ustekabeko bihotz ondokoa sortzen du.

Guk ondo dakigu zein den gizon hau; guk ezik, munduan zehar hain ezaguna den pintatzailea ezin ahaztu beste askok ere.

Garai batean ez zen gure Elias Salaberria besterik entzuten bazter guztietan: pintatzaile bikaina, han eta hemen txaloa besterik ez zuena.

Nik bezain ondo gogoan dituzue noski haren berebiziko lanak: “Iñaki donea” “Korputz-prozesioa Lezon”, “Arantzazuko Ama”, “Elkanoren buelta”, “Don Juan Tenorio”, “Garate Anaia”. “Xabier donea”

“Santa Cruz apaiza”. “Parrokiko abeslaria”. baita inongo zuloetako gizon eta emakumezko koadro ikusgarriak.

Eliasek egin dituen aurpegi-irudiak bene-benetakoak dira; gutxi bezalako erretratu egilea baitzen. Elortza Jauna, Aita Otaño, Komillasko markesa, Patrizio Etxeberria, Marañón, Albako Dukea, Sotomayor, Arozamena, Erregina, Errege eta zenbait naziotako buruzailleak.

Bere bizi guzian Madrilen izaten zen, nai zuten eta urtero-urtero bere etxera azaldu.

Euskaldun garbia. Hainbeste urte Madrilen egin eta Lezotik atera zen egunean bezalaxe egiten zuen euskaraz. Zenbat dira, urte bi kanpo aldean egon direlako euskara galdu dutenak, zabarkeriaz edo lotsakizunez. Betikoa: zenbat eta ezjakinago, orduan eta harroputz handiago. Elias Salaberria, gizon aipatuak, bazekien ondo bere jaiotza hizkuntza eta jakinduri ospea ez zirela elkarren kontrakoak.

Gizon ezjakinak, burua arin eta bihotza epel; gizon ikasiak, bihotza sugar, eta burua trinko.

Elias pintatzaile handiari Lezoko herriak gorralpen jaia opa dio. Horretarako eraiki dute pinturako konkurtso bat Eliasen izenean. Ez dute bide txarra aukeratu lezoarrek; berri ere herri-koskor honetatik pintatzaile berriak sortzeko zorian; eta nik esan behar banu, sortuko dira. Lezoko umeak berenez baitu ertilanetarako odola eta begi bizia...

Elias Salaberria goraltzea jaiatu buruan. Bai behar ere. Honezkerok Donostia batean behar zuen gizon ospetsu honek zerbait oroigarri. Oraindik ikusi lezakete nahi badute, inor gutxi bezalako pintatzaile hau ez ote den goi-goietan jartzeko halakoa. Dena dela, Lezok behintzat, erein du hazia eta bere garaian etorriko zaio uzta ona. Orain arte egin diren omenaldiak, han edo hemen, ez dira auzokoen bidez eginak. Auzoko herriek ez dute asko ikustekorik beste aldeko gizonekin. Esan nahi dut, alegia, norbera saiatzen ez bada, besteen isatsarekin euliak astindu zain ez egoteko.

Herri bakoitzean bertako agintari eta bizilagunak suarazi behar dute, zerbait egingo bada; gero, goialdekoak beren begiz ikusirik herrikoen arretoa bizia, bilduko dute haiek ere luzaro gabe sutarako egurra.

Behin baino gehiagotan esan diet bati eta besteei, Donostiak zer egin ote lezakeen Elias Salaberriaren alde.

Nola, ordea, nahi bezala adierazi, Lezoko herrian bertan gaur arte ezer egin ez bazaio?

Orain bai, kopeta tente aurreratu liteke edonor, erantzun txar baten kezka gabe.

Lezoko omenaldiak esnatuko al ditu hainbeste idazle eta pinturaekiko gizon trebeen bihotz argiak.



Lezoko Gurutze Santuaren Basilikako karpandorrea. Bere langelan zuen Elias Salaberriaren marrazkia.



Aurreko koadroaren atzealdean dagoen Elias Salaberriaren zirriborroa.

ZERUKO ARGIA 1968 - IRAILAK, 1



L E Z O

Elías Salaberria

LEZO'KO ERRIAN EGINGO ZAIO JAI-ALDI GORAGARRIA

Bat baitan, Elías Salaberria aita-utsakin, badirudi arritu egiten zela. Jakina: aspaldiko urtietan jilik daukagun gizona aurreko aldan jartzian, ustegabeko biotz onkora sortzen du.

Guk ondo dakigu zein dan gizona; guk ezik, munda zear aian ezama dan pintatzailea ezin aaztu gaste askok or.

Garai batean etzen gure Elías Salaberria besterik entzuten bazter zitan: pintatzaile bikaña, an ta men txaloa besterik etzuen.

txi bezelako pintatzaile au ez ote den goi-goietan jartzeko alakoa. Dena dela, Lezo'k beintzat, eroin du azia eta bere garaian etorriko zaio uzta ona. Orain arte egin diran omeñaldiak, an edo omen, ez dira auzokoen bidez egitak. Auzoko erriak ez dute asko ikustekorik beste al-doko gizonekin. Esan nai dut, alegia, nor bere salatzen ez bada, besteen isatsakin suliak astindu zai ez egoteko.

Erri bekoitzean bertako agintari eta bizilagunek su-arazi bear dute, zerbait oningo bada: gero, gaitalde-

tik, ba'genituen Elías'en lanik asko, bertako semeen gongoangarri. Ala ere gauz bat esan nai diet belarri ertzera nere Lezoar maltotri, Elías berak egun bi il baño lenotik nere aurreko aldan ailtortua. «Xabier Donea» kuadro bikaina bukatu ondoren: «Kuadro au Lezoko parrokiara ko utziko dut itz guskin: «Ni, eliz ontan bataiatua naiz».

Eskerrikasko, Elías. Nun nai dela ere, kuadro aundi ori, Lezo'ko erriak badaki gaurtik aurrera, zure biotz onaren berri.



Orain arteko nire jarduna, ez derizkiot oso manikoa; zerbait esan nahi eta hari ertzetik ote nabilen uste.

Egia esateko, Elías Salaberriaren lehengusua naiz. Bere aita eta nire ama zena, anai-arrebak. Isildu gabe ari ninteko Eliasen bizi eta bere lan sustraiak aitortu ahaleginean. Elkarrekin bizi izan bai gara Madrilen urte askotan, ez noski etxe berean, baina bai lehengusu ezik, ia senide bezala.

Elías Salaberria hil zen egunean, ni bakarra Madril guzian zernahitako. Bere etxeoak hain xuxen egun haietan alde eginak baitziren; eta azken orduan neronek ikusi nuen eskutatik nola alde egin zigun betiko. San Francisco el Granden eliz-sabaia zahar-berritzen ari zela hil zen. Bere laneko besoetan hil ere!

Ikusi ditut bere etxean azkeneko koadroak: “Santa Cruz apaiza”, “Marañón”, “Garate Anaia”, “Xabier Donea”.

Eliasen maiteenetako koadroa “Parrokiko abeslaria” izenekoa. Bai, ba, bere aita zena kantari Lezoko elizkizunetan zintzo. Koadro honi begira negar egiten ikusi dut gure Elías gizajoa. Lezoko herrian, elkar ondo ikusiak izan bagina antzinatik, bagenituen Eliasen lanik asko, bertako semeen gongoangarri. Hala ere gauza bat esan nahi diet belarri ertzera nire lezoar maiteei. Elías berak egun bi hil baino lehenagotik nire aurreko aldean aitortua, “Xabier Donea” koadro bikaina bukatu ondoren: “Koadro hau Lezoko parrokiarako utziko dut hitz hauekin: “Ni, eliz honetan bataiatua naiz”.

*Eskerrik asko, Elias. Non nahi dela ere, koadro handi hori, Lezoko herriak badaki gaurtik aurrera, zure bihotz onaren berri.*⁷⁹

Artikulu honen gaztelaniazko aldaera ere egin zuen Tomasek⁸⁰.

BERRIRO TXOKOAN (1952-1989)

Donostiako Musika Kontserbatorioko katedraduna

Gogoetatu zuen noizbait, bada, hots, 1952an hain zuzen, Madrileko egonaldia, bohemia denbora edota aroa amaitutzat eman behar zuela, pentsatuz jada bizkar gainean menderdi zeramala eta lan egonkor bat biltzeko garaia zuela⁸¹. Adiskide onik ere utzi zuen, antza, Madril aldean⁸².

Hala bada, erabaki zuen Donostiako Udalak bere Musika Kontserbatorioan atera zituen katedra oposizioetara aurkeztea. Lehen-lehenik, ordea, zenbait arazo eta oztopo gainditu beharrean aurkitu zen, hala nola bere musika karreraren titulazio guztiaren eguneratze eta balioztatzearena. Gauza bitxia gertatzen zen. Hainbat eta hainbat lan pianorako, ahots eta pianorako, organorako, orkestrarako, kantatak, mezak eta beste, berrogeita hamaika urte kunplituak zituelarik, solfeoko lehen urteko azterketa egin beharrean aurkitzen zela.

Lau egunetan, hau da, 1952ko irailaren 22tik 25erakotan, solfeoko bost urteak, pianoko karre-
ra osoa, harmoniako lau urteak eta laguntzako beste biek eskatzen zituzten azterketak burutu
zituen Donostiako Musika Kontserbatorioan nota hoberekin noski, ondoko espedienteak adie-
razten digunez:

1952-IX-22

1º de solfeo (Sobresaliente): Secretaria, M^a Teresa García Piudo

2º de solfeo (Sobresaliente): Secretaria, M^a Teresa García Piudo

1952-IX-23

3º de solfeo (Sobresaliente): Secretario, Ricardo García Carresse

1º de armonía (Sobresaliente): Secretario, F. Escudero

2º de armonía (Sobresaliente): Secretario, F. Escudero

1952-IX-24

1º de piano (Sobresaliente): Secretario, Primitivo Azpiazu

2º de piano (Sobresaliente): Secretario, Primitivo Azpiazu
3º de piano (Sobresaliente): Secretario, Primitivo Azpiazu
4º de piano (Sobresaliente): Secretario, Primitivo Azpiazu
5º de piano (Sobresaliente): Secretario, Primitivo Azpiazu
Hª de la música (Sobresaliente): Secretario, Juan Cuberta
Estética (Sobresaliente): Secretario, Juan Cuberta
Música de salón (Sobresaliente): Secretario, Elias Arizcuren

1952-IX-25

3º de armonía (Sobresaliente): Secretario, F. Escudero
4º de armonía (Sobresaliente): Secretario, F. Escudero
1º de acompañamiento: Secretario, Mª Teresa García Piudo
2º de acompañamiento (Sobresaliente): Secretario, Mª Teresa García Piudo
6º de piano (Sobresaliente): Secretario, Primitivo Azpiazu
7º de piano (Sobresaliente): Secretario, Primitivo Azpiazu
8º de piano (Sobresaliente): Secretario, Primitivo Azpiazu.

1953-IV-26

1º de órgano (Sobresaliente): Secretario, Julio Gómez
2º de órgano (Sobresaliente): Secretario, Julio Gómez
3º de órgano (Sobresaliente): Secretario, Julio Gómez
4º de órgano (Sobresaliente): Secretario, Julio Gómez
5º de órgano (Sobresaliente): Secretario, Julio Gómez.

Beraz, baldintza guztiak beterik, Donostiako Kontserbatoriorako deitu Solfeoko Katedra lehiaketara aurkeztu zen eta katedra erdietsi.

Ikasturte horretan bertan, alegia, 1953-54ekoan, eta Donostiako Udalaren Kultur Batzordearen eskaeraz, 1954ko martxoaren 17an, solfeoko katedrari organokoa eransten zaio, ondorengo udal erabakiak adierazten duenez, eta horrela Gipuzkoan organoko ikasketei aro berri bat emanez:

Que se acuerde designar a Dn. TOMÁS GARBIZU Profesor del Conservatorio de Música como encargado de la cátedra de órgano percibiendo sus haberes como cátedra acumulada en igualdad de condiciones con los otros Sres. Profesores del mismo Conservatorio.

Lo que traslado a Vd. para su conocimiento y efectos.

Dios guarde a Vd. muchos años.

San Sebastián 20 de marzo de 1954.

EL ALCALDE

Organo-irakasle izan zen hemezortzi urteek ospe berezia eman zioten ikasle eta musikazale guztien artean eta ezbairik gabe, gaur egun Gipuzkoan organorako musikaren inguruan dagoen maila jasoak asko zor dio Tomasi.

Organo Programa hau jarri zuen indarrean:

CURSO PRIMERO

-Ocho Estudios para juego ligado (cuatro digitados y cuatro sin digitar), del Método de N. J. Lemmens u otra Antología.

-Primeros Estudio-Ejercicios con pedalier, del método de Remondi u otro semejante.

-Una obra fácil de uno de los compositores siguientes:

A. de Cabezón


J.B. Cabanilles

D. Buxtehude

L. N. Clerambault, etc.

-Dos Partitas (sin pedalier) de J. S. Bach.

-Dos Preludios (con pedalier), sin Fuga, de los "Pequeños Preludios y Fugas" de J. S. Bach.



Pablo Sorozabal.

CURSO SEGUNDO

-Ejercicios-estudios para vencer dificultades de distinto género con pedalier, del Método de Remondi u otro semejante.

-Dos Partitas (con pedalier) de J. S. Bach.

-Variación (de "Preludio, Fuga y Variación") de C. Franck.

-Tocatta (de la "Suite Gothique") de L. Boellman, o Tocatta de A. Mailly.

-Dos Pequeños Preludios y Fugas de J. S. Bach.

-Conocimientos preliminares de la registración.

CURSO TERCERO

-Continuación del Método de Remondi.

-Canzona de alguno de los autores siguientes:

G. Frescobaldi

F. Couperin

J. Titelouze

-Uno de los Pequeños Corales de J. S. Bach.

-Berceuse de E. Torres.

-Una Fuga de J. S. Bach, de dificultad similar a la "Tocatta y Fuga en Re menor".

- Minueto (de la "Suite Gothique") de L. Boellman.
- Pastoral de C. Franck o Fantasía de C. Franck.
- Ampliación en el conocimiento de los registros y combinaciones de los mismos.

CURSO CUARTO

- Canzona de J. S. Bach o "Coelestis Urbs Jerusalem" de J. Titelouze.
- Una Fuga de J. S. Bach.
- Choral N° 3 de C. Franck.
- Un Concierto de J. S. Bach.
- Andante (de la Sinfonía V) de Ch. Widor.
- Toccata (de la Sinfonía V) de Ch. Widor.
- Lectura a 1ª vista de una obra fácil sin pedalier.

CURSO QUINTO

- Un Choral de J. S. Bach.
- Variaciones de Concierto de J. Bonnet, o Carillón de Mulet, o Letanías de M.C. Alain.
- Fantasía y Fuga en Sol menor, u otra de las Grandes Fugas, o Pasacaglia de J. S. Bach.
- Final de la Sinfonía VI de L. V. J. Vierne, o Sonata VI de F. Mendelssohn.
- Lectura a 1ª vista de una obra, e improvisación.

Saiatu zen gomendiozko bidez 54-56 urte epean Majisteritza Eskolan edota Institutuan musika irakasle bezala lan egiten gutunetan ageri den bezala⁸³, baina erantzuna ez zen izan espero zuena, zegokion irakasgako irakasleak edo ikastetxeko zuzendariak proposatu behar zuela eta...

Lanean jo eta ke eten gabe jarraitu zuen Tomasek eta honen adierazgarri da jaso zituen sarien ugaria. Adibidez, 1954ean bertan Madrilen saritu zuten Donostiako katedraleko organo handiaren estreinaldia zela eta *Jesús y la samaritana (Tríptico al Buen Pastor)* deitu organorako lana.

Tomasen etxeratzeak, berriro habiratzeko edo sorterriratzeko ez zion deuseztarazi, inolaz ere, Madrilen lortu zituen lotura eta harreman onak. Guridik 1955eko martxoaren 9an Madriletik etorri berria zenak bidalitako gutun honek adierazten digun bezalaxe:

Mi querido amigo:

Muchas gracias por su felicitación. No creo que hagan falta tantas pesetas para un amaiketako, pero, en fin, si quedan algunas, de aquí al verano, lo tomaremos en San Sebastián.

Se piensa dar a conocer la misa en el Buen Suceso, el 24 del corriente, que es el día de San Gabriel. Los niños de la Escolanía del P. Gorostidi- ya están preparados. Los tenores y bajos, —de los Cantores de Madrid— ahora han empezado a estudiarla. No sé si llegaremos a dar de ella una buena versión.

Seguramente la darán por Radio Madrid y podría Vd. oirla.

Un abrazo de su buen amigo.”

Jesús Guridi ⁸⁴

Jarraikitzen zion, bederen 1955ean, Madrileko Sociedad Artística Musical delakoaren bazkide izateari, 3.038 zenbakiaz eta urtero hamar pezetako borondatezko kuota ordainduz.

Ospe eta izen handiko zen Pablo Sorozabal⁸⁵ konpositorea ere behin baino gehiagotan topatu zuen ziurrenik Donostian nahiz Madrilen. Izaera bizi eta berezikoak ziren biak, eta adiskidetasunezko begirunea zioten elkarri, 1961eko maiatzaren 30ean Madriletik Sorozabalek idatzi zion gutun honetan ageri den bezala:

Sr. D. Tomás Garbizu.

Mi querido amigo: acabo de recibir tu simpática carta con el programa. A mí también me hubiese gustado dirigir tu obra⁸⁶, pero de todas formas no hubiese sido factible pues estoy metido una vez más en una temporada lírica en la Zarzuela.

El camarero de “Vinces” me pregunta a menudo por ti. Sigue saludándome en euskera. Para mediados del próximo seré abuelo... ¡Es la ley de la vida! Ya sabes que te deseo cordialmente un gran éxito y estoy seguro lo conseguirás pues tú eres un músico de los “de verdad”.

Un fuerte abrazo.

Hiruzpalau aste geroago, 1961ko ekainaren 25ean, eta zorionak emanez, beste gutun hau igorri zion Sorozabalek Tomasi:

Mi querido amigo: ante todo mi cordial felicitación por tu gran éxito. Pues, aunque yo ya lo daba por descontado, lo celebro como si fuese mío. Desde ayer estoy retirado.

A la hora de comer me dió un mareo y como cualquier “Margarita Gautier”, me desmayé.

Llamaron al médico y resulta que estoy muy bajo de tensión. Hoy me han hecho análisis de sangre... y ya veremos el resultado... ¡Estoy muy cansado! He trabajado demasiado. Dentro de unos días me iré a Miraflores, y luego a Deva. Estoy seguro que cuando llegue al País Vasco se me pasará. ¡Aquél clima es maravilloso!

Bueno, Tomás, un fuerte abrazo y mi entusiasta enhorabuena.

Pablo Sorozabal.

Halaber zazpi urte geroago, frankismoaren azken urteetan, 1968ko apirilaren 7an hain zuzen beste gutun hau jaso zuen Tomasek, non Sorozabalen izpiritu zorrotz, kritika gogor eta umore fina ageri den nabarmenki, ez baita ia deus zutik gelditzen:

Sr. D. Tomás Garbizu.

Mi querido amigo: he recibido tu afectuosa carta con el recorte de “La Voz” sobre mi árbol genealógico. Ya lo conocía; me lo enviaron mis hermanas. No comprendo cómo ese señor, a quien no tengo el gusto de conocer se ha tomado la molestia de averiguar tantos datos.

De todas formas le puse unas letras dándole las gracias pero advirtiéndole que a mí toda la cuestión de linaje, nobleza, etc, etc, me importa un pito.

No me extraña que Bello Portu se haya marchado. ¡Cualquiera aguanta a esa pseudo-orquesta y a toda la salsa que tiene que tener alrededor! San Sebastián, musicalmente hace tiempo que pasó a tercera división. ¡Es una pena! Ahí se vive muy bien y es un pueblo bellísimo, pero tiene que ser a base de buenas shalshas y buenas bebidas. De arte ni hablar.

Bueno, la verdad es que aquí sucede algo parecido. La diferencia es que aquí están los ministerios y que unos cuantos viven al calor de las subvenciones y de los festivales oficiales. Pero en el fondo todo es mentira. Toda España es un asco. Lo malo es que le pillan a uno viejo para emigrar.

Hoy he recibido una carta muy cariñosa del compositor ruso Shostakovich, elogiando mi Suite Victoriana. Me la pidió un compositor español que vive en París, una tal Palacio, y este se la envió a Shostakovich a Moscú.

Bueno, Tomás, muchas gracias por tu atención y recibe un fuerte abrazo de tu viejo y buen amigo.

Pablo Sorozabal.

Ernegatuta, jenio bizikoa zen Sorozabal auhenka ari zaigu eta argi eta garbi kultur ofizialaren gezurra, subentzioen menpe bizi den garaiko musika salatzen du. Hala ere, 1968ko maiatzaren 25eko beste honetan Sorozabalen irudi ezaguna azalarazten zaigu berriro:

Querido Garbizu.

He recibido tu carta que como todas las tuyas es cordial y tiene salero. En la tele me tomaron miedo y procuraron no dejarme hablar. Mi programa lo hicieron diferido, y siempre lo hacen directo. ¡El miedo es libre!


Gracias y un fuerte abrazo.

Tomasek bezala, beregan hain eragin handia izan zuen aita Arregi Sorozabalek ere biziki estimatzen zuen: *Le llevaba a un palco discreto para ver sus obras de teatro, entre ellas el estreno de “Black el payaso”⁸⁷. También me confesó⁸⁸ que Sorozábal le había dado o le daba 200 pesetas para los pobres; estoy hablando del año cuarenta.*

Sorozabalen benetako izaera garden azaltzen digu Tomasek gerraosteko pasarte hau gogora ekartzen duenean 1985ean Artzentalesen igarotako udaldi baketsu hartan:

Un día me llamó el maestro Gabiola⁸⁹, director en aquel entonces del Real Conservatorio de Madrid; por lo visto le había visitado un policía de la Comisaría de Madrid queriendo saber si en efecto era verdad que Sorozabal renunció a la dirección de la Banda de Madrid por haber sido asesinado un fascista, componente de dicha banda musical. Le dije que sí, según los informes que yo tenía; ahora bien, no era yo precisamente el más autorizado para sacarle de dudas; si el policía no lo sabía, no sé yo por qué recurrió a mi el señor Gabiola.

Sorozabal hubiera actuado de la misma forma si en lugar de este músico, hubiera sido otro de cualquiera ideología que fuera. Se trataba de la Banda y nada más. Seguramente no sospechaban en esa actitud del maestro, conociendo su manera de pensar.



La prueba de que Sorozabal hubiera mantenido la misma actitud en el caso contrario, sé que durante los años de la guerra civil, dijo, refiriéndose a los desalmados que entraban en las casa particulares: “Sabía que los ricos no sabían ser pobres, pero ahora me he convencido de que los pobres no saben ser ricos”, y era porque destrozaban todo lo que llegaba a sus manos.

Me alegro mucho, me dijo Gabiola, que Sorozabal tenga amigos como usted. Y yo me preguntaba qué sabía Gabiola cómo era yo...⁹⁰

Garbizu ez zen oso ase erraza, eta egia aitortu behar bada, garai haietan musikarien bizitza ere ez zen oso eroso, horregatik ahaleginak egin zituen solfeoko eta organoko katedrez gainera akonpainamendukoa ere eransten, eta gaiarekiko bi kurtso osatuak behar zituenez, 1960eko irailaren 27an aurkeztu zen azterketetara Madrileko Musika Kontserbatorioan. Baina, jakina denez, jauregiko kontuak baratxe joaten dira eta hona bada Jose Maldonado, Hezkuntza Nazionaleko idazkariordeak 1961eko otsailaren 16an idatzi ziona:

Mi querido amigo:

Acabo de recibir una carta del Gobernador Civil de Guipúzcoa, Sr. del Moral, en la que me da la noticia tan satisfactoria de que tus aspiraciones han podido verse logradas por acuerdo del Pleno del Claustro del Conservatorio, por el cual quedas encargado del desempeño durante el medio curso restante de la Cátedra de Acompañamiento.

No he de decirte cuánto me alegra esta noticia y, con mi enhorabuena, te saluda muy afectuosamente.⁹¹

Esan dugun bezala Euskal Herrira itzuli arren ez zituen harremanak eten Tomasek Madrilen zeuzkan adiskide onekin, aurreko gutunek eta Arozamenak idatzitako ondorengoak adierazten diguten bezala:

Querido Tomás:

Te ruego que hables con Gorostidi para que te dé una relación de las obras corales de Guridi que existen en su repertorio, con especificación de aquellas que el Orfeón estrenó, y que Gorostidi te haga unas impresiones tuyas sobre las relaciones que tuvo con Guridi.

Te mando en hoja aparte unos cuantos versos en vasco que corresponden a las “Melodías Vascas”, afin de que me hagas la traducción. Las traducciones de que dispongo, de Azcue, son muy malas.

Un abrazo.⁹²

Ikusten dugunez, Arozamenak zuen iritzia Azkueren itzulpenez ez zen oso ona, eta Tomasek Arozamenarentzat lan bereziak egiten zituen, hala nola musikologo eta itzultzailearenak, eta, antza denez, adiskide lezoarraren euskal itzulpenek gehiago asebetetzen zuten. Gutun hau idatzi

eta bi urte geroago, Lezoko udala prestatzen ari denean Elías Salaberriari omenaldi bat, honako borondate ona agertuko du, alegia, prest dagoela pintore famatuaz hitz egiteko:

Querido Tomás:

Tan pronto he llegado a Madrid después de este mes de ausencia, acuso recibo a tu carta de 24 de agosto.

Puedes decir a los señores de Lezo que con mucho gusto yo hablaría de Elías Salaverría y que el próximo día 16 yo podría estar en San Sebastián, pero que no tengo tiempo material, de aquí a esa fecha, para prepararme tal y como yo quisiera.

Precisamente voy a pedir unos datos de la obra completa de Elías y pienso que allá para noviembre podría tener concluido un trabajo que mereciera la pena.

He hablado con Parada que acaba de llegar de Torrevieja. Le he leído el párrafo de tu carta y me dice que él mismo te va a escribir.

Un abrazo.

P.D.- Me vas a decir que te doy demasiado la lata, pero quisiera, y a la mayor brevedad posible, puesto que me lo pide Luis Mariano, hicieras una letra en vasco del célebre zortzico NO TE OLVIDO. Te acompaño un ejemplar de canto y piano. La letra en castellano, como verás, no dice absolutamente nada. Yo la arreglé para una película de Sara Montiel, pero no tengo a mano lo que hice.

Convendría que hicieras una cosa absolutamente libre. Te ruego, pues, que lo hagas lo más rápidamente posible, puesto que Mariano la necesita para grabar un disco.⁹³

Wien-etik Arozamenak beste gutun-postal bat, — Staatoper, hau da, Estatu opera eraikintzaren irudiarekin —, igorriko dio euskarazko hitzokin:

Agur, Tomax!

Straus'en erriyan gera. Musica'kin gezur galantak esaten dira. Danubio ori ez da urdiña. Urumea bezelakua da.

Eskumiñak Benita ta Liborio'rentzat.⁹⁴

Ez zuen, beraz, gazterik ezagutu zuen Luis Marianorekin harremanik galdu, eta hau Arrangoitzeko Mariano'ko Borda etxadian zegoenean bisitak egiten zizkion noiz behinka Tomasek. Pianoaren aurrean eseri eta burura etortzen zitzaizkion aideak jotzen zituen abilezia apartaz. Parisen 1970ean hil baino hilabete batzuek lehenago egin zion bisita Arrangoitzen eta *Nere* zortzikoan eskuz idatzitako honako hitzak irakur daitezke:

El zortziko que pensaba grabar Luis Mariano entre otras canciones mías como “Mendian bai alai”, “Eguntho batez”, “Donosti”. Pero esta le gustaba mucho no sé por qué. Las di a conocer en su piano de Arcangues unos meses antes de que muriera él.



On Jose Maria Zapirain.

Beraz, ezagun eta adiskide onak ziren Luis eta Tomas, eta honek behin baino gehiagotan lagundu zuen organoa edota pianoa jotzen, adibidez Irunen, Juncal-eko elizan

Iratzederrek beti euskaraz idatziko dio Tomasi, nola bestela?, eta Belokeko Abade hautatzen dutenean aita J. P. Indaren ondoren, honako gutuna idatziko dio gonbitatuz haren kantak abestuko dituzten hautatze zere-
moniarara:

*Bai, bai, esku onetan dira zure lanak... Goiz huntu-
tan igorri dauzkitzut bi azken fitxak: "Bihotz eta go-
goz bat" (21-an kantatuko duguna) eta "Jesu-Kristo
zu zare zu"; ez baitakit jadanik igorriak dauzkitzu-
dan. "Ene poza!" "Zurea da zerua" eta "Burugabe-
ak" eskuratzean...*

*Horra Belokeko aita Abade egin naute, 21an pozik ikusiko zintuzket adiskiden artean.
Xavier Belokeko Abadea.⁹⁵*

Arozamenak eta Garbizuk 1971. urtean hirurehun orritik gora zuen liburu benetan mardul eta eder bat plazaratu zuten, garai hartan ez-ohizkoa zena euskal musikologian. Titulua hauxe: *Viejas canciones donostiarras. Donostiako kantu zarrak.*⁹⁶

Berehala hasiko dira jasotzen zorionak liburuagatik, hala nola Jose Maria Zapirainek, bere adiskide eta kapilauak idazten dion gutuna Tomasi, martxoaren 10ean:

Mi muy apreciado y encomendado Tomás: acabo de hacerme con el magnífico libro que habéis publicado conjuntamente Arozamena y tú.[...]

Examinado el libro no puedo menos de felicitarte por tu aportación musical que es lo principal de la obra. Te has "desmelenado" en tu estilo peculiar. Nada de vulgaridades en la armonización y en el acompañamiento. Poesía, fantasía, modernidad sin retruécanos inútiles. FANTASTICO; TOMAS. [...] Por qué no habéis prescindido de los acompañamientos de Sarriegui? Comprendo que hay que respetar al autor... pero esa segunda parte desmerece de la primera tan pulida, tan volátil, tan soñadora..

Izan ziren tartean aurpegiatu zietenak erraz loditu zutela liburua, donostiar ez omen ziren kantekin. Dena den, liburuak ez du galtzen denboraren poderioan, irabazten baizik, literatur tes-

tuak, harmozizazioak eta irudiak benetan perla bitxiak baitira. Urte batzuek geroago Aizarnak galdetuko dionean zer-nolako kantan bildu zituzten, honakoa izan zen Tomasen erantzuna:


*No son, precisamente, las canciones selectas y auténticas del folklore vasco. Pertenecen más bien al sector populachero, son canciones de taberna, de fiesta, de romería. Son, por tanto, difíciles de armonizar y de dignificar sin romper el encanto y la naturalidad de las mismas, precisamente porque ya están sancionadas por el pueblo y les ha dado su perfil humano.*⁹⁸

Ikasle ospetsuak

Tomasek bere programa zehatz eta irakasle gisara zuen dohain bereziaz denborarekin ospetsu izango ziren musikariak lortu zituen, eta honetaz harro sentitzen zen bere adierazpen hauetan argi eta garbi kontura gaitezkeenaren arabera:

...He tenido en mi clase a Miren Derteano, de Bilbao, la primera alumna como oficial, a quien hice actuar al órgano en el Teatro Principal de San Sebastián, el día de Santa Cecilia; tengo que decir que llamó la atención a los mismos profesores del Conservatorio como organista, y por la novedad de que se trataba de una señorita. Para alguno de ellos era un misterio el ver actuar a la organista con los pies en el pedaleiro, siendo así que es lo más natural: no solamente es natural, sino inclusive de rigor en el manejo del instrumento. A ésta le han seguido en turno Lorenzo Ondarra, Esteban Elizondo, Mari Coro Sáenz, Víctor Echebarria, J. M. Alberdi, Manolo Yaben, Mari Sol Martínez, Maite Bidegain, Eduardo Goñi, Mari Carmen Aldanondo, Ana María Gonzalo, María Angeles Usóz, Maritxu Loidi, etc., de los que algunos desempeñan cargos el Conservatorio de San Sebastián como profesores oficiales.

Beraz, kabira iritsitakoan bere sorkuntza lana inolaz ere ahanzi gabe, batik bat irakasle eta pedagogo lanetan arituko zaigu. Badirudi, gainera, oso estu eta gogor hartzen zuela bere egitekoa, alegia, maisu zorrotza zela. Hona bere hitzak gaiaren inguruan:



Tomasen estimua erdietsi zuten ikasle bikain batzuk. Ezkerretik eskuinera eta behetik gora: Bittor Etxebarria, Miren Derteano, Jesus Mari Alberdi, (Tomas Garbizu irakaslea), Lorenzo Ondarra, Mari Koro Saenz eta Esteban Elizondo.

Irakasle batek pedagogo ona behar du izan. Eta adierazi ikasleari gauzak diren bezala. Bestalde, exigitu ere bai. Ez badu pasaje bat errepikatu behar, ez dezala errepiketu; baina bi egun egon behar badu errepikatzen, egon dadila.

Nik irakatsitako organista asko eta onak atera dira. Nik barruan nuen guztia ematen bainuen eta dirurik irabazi gabe. Hirurehun pezeta irabazten nituen nik ¡como si ganara ochenta mil! Irakasten oso zorrotza nintzen: fraseoa ondo egin, tranparik gabe... eta abar. Nik zorrotz fama banuen ere, jendeak neregana etorri nahi izaten zuen esaminatzera; zerbaitengatik izango zen.

Nere ustez, nik kontserbatorioan oraindik urratu ez den inpronta bat utzi nuen. Nerekin ikasi dutenen artean entzunetak agian hauek dira: Derteano, Alberdi, Coro Saenz, Aita Ondarra, Esteban Elizondo, Aita Etxebarria...

Kontserbatorioan, orain, kontratatuak eta holako asko daude. Kontrataturik badakit zer den, "Lehendabizi uraz hartzen zuen ardoa, gero urik gabe eta azkenez ura bezala". Lehendabizi kontratuz, gero auxiliar, ondoren oposizio murriztuak eta barrura zuzen-zuzen.

Esnobismo asko dago, zabaldu egin da jendearen bizimodua. Guk ez genuen ezer, nik ez nekien torero izango nintzen ere. Nere amak ez zekien musikoa nintzenik. Egun berriz esnobismoa besterik ez dago, musika akademiekin berdin, esnobismo asko, denak diruaren atzetik. Lehengo musikorik ez ziren hortik joan, elizan eta, ohitu zirelako eta gurasoengandik jasotakoagatik ekin zioten, orain eta gaur berriz halaxe entzuten ditut gazteak: "konpositore izan nahi dut". Zakurraren putza! Horrek ez du ezertxo ere izango, ze diruaren atzetik bait doaz, eta asko honela.⁹⁹

Baina Tomasek irakasle eta organista baino areago konpositoretzat zeukan bere burua. Organo kontzertu ugari eman arren, badirudi maiteago zuela inprobisatzea, bere jaidura propioari jarraitzea, estu-estu partiturak interpretatzea baino. Horrela izen handia emango zion *El buen Jesús y la Samaritana* Avilako Nazioarteko organo saria irabazi zuen 1971an, baina aitortzen digunez, nahiago zuen beste organojoleek, eta batez ere ikasle izandakoek interpreta zezaten.

Organo irakasle izan zen urte luzez Donostiako Musika kontserbatorioan, hau da, 1954tik 1971ra, erretiroa hartu zuen urtea.

Sariak, omenaldiak eta azken urteak

Hirurogeita hamar urte bete zituen egun berean hartu zuen erretiroa¹⁰⁰ Sasoi oneko gizona, irakaskuntzaren beharretatik aske, konposizio lanari lotu zitzaion estu-estu eta jarraian bere bizitzako azken hamazazpi urteetan.

Erretiroa hartu zuenean gelditu zitzaion soldata hileko 4.417 pezetakoa zen. Horren aurrean errekurtsioa aurkeztea erabaki zuen. Berak karrerako zortzi urteak ere kontabiliza zitzaten eskatzen zuen, horrela 6.141 pezeta hilean irabaziko baitzituzkeen. Errekurtsio hau 1971ko abenduaren

30ean egiten du. Apurka-apurka erretiro-soldata duinagotzen zihoan arren, beti jo behar izan zuen hango eta hemengo lehiaketetara diru-iturri besterik bilakatuko ez baziren ere.

Donostiako hiriak 1971ko urriaren 29ko udal plenoan, *Kultura eta Kirolak* sailak hala proposaturik, zilarrezko domina ematea erabaki zuen egindako zerbitzuen sari gisara, agiriak adierazten duen bezala:

Que en atención a los méritos extraordinarios que concurren en el Profesor jubilado del Conservatorio Municipal de Música D. TOMAS GARBIZU SALABERRIA, se acuerda concederle la MEDALLA DE PLATA DE LA CIUDAD.

Domina ezartzearen ekitalia 1972ko apirilaren 17an gertatu zen, Tomasi Felipe de Ugarte alkateak zuzendutako gutun honetan argitzen den bezala:

El Alcalde Presidente del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián Saluda a Dn. Tomás Garbizu y tiene la satisfacción de comunicarle que el próximo lunes día 17 de los corrientes, a las 13 horas, en el Salón de Sesiones de este Ayuntamiento, tendrá lugar el Acto de imposición de la Medalla que le fue concedida como reconocimiento a los servicios prestados por Vd. a la Ciudad.

Al Acto, que será público, podrán asistir cuantos familiares, compañeros o amigos lo deseen. Felipe de Ugarte y Lambert de Sainte Croix aprovecha esta ocasión para reiterarle el testimonio de su más distinguida consideración.

San Sebastián, 14 de Abril de 1972

Urte bereko uztailian, hogeita hemezortzi urte lehenago bere lehengusu propioa Elias Salaberria pintura arlotik gertatu zuten bezala, *Academia de Bellas Artes de San Fernando* delakoan izendatu zuten akademiko urgazle Donostiako hiriarri zegokion sailean.¹⁰¹ Idazkariak bidalitako agirian honelaxe aipatzen zitzaion izendapena:

Antes de la elección y a propuesta del Sr. Director Excmo. Sr. Duque de Alba, se acordó que antes de dar publicidad a la elección y como requisito previo a la aceptación de los electos, se recordara a estos que si la elección de correspondiente es un honor conferido a quienes se han distinguido en la defensa del patrimonio histórico-artístico, no menos entraña muy hondas responsabilidades. Ocurre con desgraciada frecuencia que esta Real Academia se entera de desafueros y atentados cuando son ya irreparables: una denuncia a tiempo de nuestros correspondientes hubiera permitido en esos casos una eficaz defensa.

Esan beharrik ez dago ohore honek izugarrizko poza sortu ziola Tomasi, ez baitzen lehen aldia ohoratzen zuela Akademiak, lehen ere 1940etan Cartagenako Kontearen beka bat baliatu izan

ahal baitzuen, eta izendatze akordioan bertan urgazle edo korrespondiente zirenek artearekiko zeukaten betebeharra eta ardura¹⁰² azpimarratzen zen.

Bazter guztietatik jaso zituen zorion-gutunak, hala nola Donostiako Aurrezki Kutzaren partetik,¹⁰³ eta Tolosako CIT-etik,¹⁰⁴ *Centro de Iniciativas Turísticas* delakotik, alegia...

SARIAK

URTEA	OBRA	SARIA	INTERPRETEAK
¿?	Atso zarrak	Gipuzkoako Foru Aldundiaren saria	Ahots nahasiak
	A Pamplona voy, de Pamplona vengo	Tolosako lehiaketan lehen saria.	Gizonezkoen korua
	Oraingo aldian	Bilboko Aurrezki Kutzaren saria.	Txistulari banda
1941	Canço de Bressol	Orfeó Catalá saria.	Sopranoa eta Ahots nahasiak
1945	Baratzeko	Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehen saria	Sopranoa eta ahotz zuriak
1954	Jesús y la samaritana (Tríptico al Buen Pastor)	1954an Madrilén saritutako obra, Artzain Onaren katedraleko organo berriaren inaugurazioaren inguruan antolatutako lehiaketan.	Organoa
1956	Misa Benedicta	Arantzazuko eliza berriaren eraikuntza zela-eta antolatutako lehiaketan akzesita.	Bakarlariak, korua eta organoa
	Zu ta ni		Baritonoa eta gizonezkoen korua
1963	Baso Jaun (Osanbela)	Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Nazioarteko I. lehiaketan lehen saria.	Korua eta orkestra
1964	Elorri baten gañean	Euskal Kantaren I. jaialdian saritua.	Ahots nahasiak
1965	Los presos de Perpinyá	Torrevejako XI. Habanera eta Polifonia Lehiaketan “Ministerio de Información y Turismo” zelakoaren saria.	Ahots nahasiak
	Tabernerita	Torrevejako XI. Habanera eta Polifonia Lehiaketan “Ministerio de Información y Turismo” zelakoaren saria.	Ahots nahasiak
	Así es Torreveja	Torrevejako XI. Habaneta eta Polifonia Lehiaketan “Ministerio de Información y Turismo” zelakoaren saria.	Ahots nahasiak

	San Vicente de la Barquera	San Vicente de la Barquera (Kantabria) lehen saria.	Ahots nahasiak
	A Pamplona voy, de Pamplona vengo	Iruñako Udalaren saria.	Gizonezkoen korua
	Gure Herria	Bizkaiko Aurrezki Kutxak antolatutako lehiaketan hirugarren saria.	Txistulari banda
1967	Babilon beltza	Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Nazioarteko lehiaketan saria.	Bakarlarriak, Ahots nahasiak eta orkestra
	Garbiñe	Euskal Kantaren lehiaketan saria.	Ahotsa eta pianoa (orkestra txikia)
1968	Ardi joarea	Gabon-kanta berrien lehiaketan saria.	Ahotsa eta pianoa (orkestra txikia)
	Cuando llega la Navidad	Gabon-kanta berrien lehiaketan saria.	Ahotsa eta pianoa (orkestra txikia)
1969	Sor lekua	Euskal Kantaren lehiaketan bigarren saria.	Ahots nahasiak
1971	Tríptico sobre un tema gregoriano	Avilako Nazioarteko IV. lehiaketan Santa Teresa lehen saria eta urrezko domina.	Organoa
1972	El eco de una habanera	Torrevejako XVII. Habanera eta Polifonia Lehiaketan “Ministerio de Información y Turismo” zelakoaren saria.	Ahots nahasiak
1975	El viejo puerto	Torrevejako XXI. Habanera eta Polifonia Lehiaketan “Ministerio de Información y Turismo” zelakoaren saria.	Ahots nahasiak
1976	Akerra Ken nº 2	Tolosako lehiaketan lehen saria.	Ahots nahasiak
	Haltzak ez du bihotzik	Bizkaiko Aurrezki Kutxak antolatutako konposizio lehiaketan lehen saria.	Gizonezkoen korua
1983	Leiza	Isidro Ansorena lehiaketako bigarren saria.	Txistulari banda
1987	Ondarreta	Segurako II Fandango eta Arin-arin lehiaketan lehen saria.	Txistulari banda

Izena eta sos batzuek hartzeko bide ia bakarra zen garaian, ikusten dugunez sari ugari lortu zuen Tomasek. Gure kontuen arabera hogeita zazpi, baina ziurren gehiago ere irabaziko zituen, agian, berak horrelako kontuak zuzen eramaten baitzituen, eta bere hitzetan hogeita hamarerra iritsi ziren gutxienez:

“Nik irabaziko dudalako asmoz joaten naiz beti. 30en bat izango ditut gutxienez, ohea beteta daukat, azkeneko omenaldia San Pedron egin zidaten eta ez dakit ja non sartu emandakoak, toki-rik ez... Neri beti iruditzen zait irabaziko dudala, baina beti besteak egindakoa hobe iruditzen zait. Halaxe ibiltzen zait jendea "Aupa Garbizu, beste baten bila!", eta nik berriz, "Ezetz ba, neri futbolean bezala gertatzen zait: penaltia bota behar duenak aitaren egiten du eta porteroak ere bai". Ni ez naiz batere harroa gauza hauetan, premioren bat jasotzen dudanean eta, hiru edo lau egun igoal egoten naiz kalean azaldu gabe.”

EL DIARIO VASCO

Lunes, 16 de noviembre de 1987



Tomás Garbizu, sentado entre José Luis Tellería (izquierda) y José María Zapirain. (Foto Usoz)

En la clausura de la Semana Música-Coral del Ondartxo

San Pedro homenajeó ayer al compositor Tomás Garbizu

Pasaia (DV). – Con un homenaje de reconocimiento hacia la obra y la persona de un lezotarra que ha tenido estrecha unión con el distrito pasaitarra de San Pedro, el compositor y organista Tomás Garbizu, se clausuró ayer la Semana Música-Coral organizada por el Coro Ondartxo.

Los actos se iniciaron a las once de la mañana con una misa cantada por el Coro de Leoz e interpretada al órgano por el propio Tomás Gar-

bizu. A las 12,30 del mediodía, en el salón de actos de la Cofradía de Pescadores, se rindió el homenaje a Tomás Garbizu, con la intervención de José María Zapirain, quien glosó la figura del insigne compositor en presencia entre otros del diputado foral de Cultura, José Luis Tellería, y de las primeras autoridades de Pasaia y Lezo.

La jornada terminó con un 'poteo coral' por las calles de San Pedro y un almuerzo de hermandad.

Hasten zaigu kutxa zaharrearan barrena bila, sariak erakustearren. Pasatzen dizkigu eta honela hasten zaigu sari mota ezberdinei buruz mintzatzen:

“Yo he tocado todos los pitos. He cultivado desde el sinfónico coral hasta el fandango. De por sí el fandango es una cosa pequeña y también el recuerdo. Esta otra medalla es del concurso internacional de Avila. He sido premiado cuatro veces en el concurso de Habaneras. Es como dar patadas de barriga, pero si tiene buena barriga, vale.”

Eta nola behin Avenidako kafetegian gosaltzerakoan irakurri zuen norgehiagokaren iragarkia, eta pentagrama antzeko zerbait aho-zapi batean marraztu zuela, handik melodia atera zela eta geroxeago letra. Baina bazela zertxobait ongi lotua ez zegoena,

borobildu gabea. Ez zen gogoratzen Udaleko etxe zahar hark erlojurik zuenez. Pentsatu eta egin. Hantxe joan omen zen Roncalesan Iruñearaino erlojurik zeukan ala ez konprobatzera. Eta, gero, noski, saria irabazi. Eta eman ziotenean Gayarren saria, hantxe ibili zela hura besopean mundu guztia agurtzen apezpi-kua bendizioak banatzen bailitzan.

Omenaldien garaia iritsia zelarik, Kontserbatorioko ikasleek, Euskal Herriko Txistulariek, Liturgia batzordekideek, Pasaia San Pedroko herritarrek, Lezoko herkideek... oso gogoan izan zuten beraien alde eta, oro har, musikaren alde egindako lan guztia.

Lezoko herriak, 1982ko abenduan —Patri Urkizu alkate zen garaian— “*Herriko Seme Kuttuna*” izendatu zuen eta kale bati bere izena eman zion.

Garai honetakoa da, Udalak eskaturik, lezo-arrentzat idatzi zuen Himnoa.

Testuak hau dio:


*Itsaso gainetik
Jaizkibek mendia,
mendi gibelean
Jaizkibel oinetan
Lezoko herria.
Hemen biltzen dira
euskaldun jendea,
antzinetik baita
guztiz ezaguna
Gurutze ahalduna.
Ezker eskubi
zelai baserri,*



PASAI SAN PEDROKO 5. MUSIKA-ABESBATZA ASTEA
1990.eko Azaroaren 5etik 11a bitartean

5.ª SEMANA MUSICO-CORAL DE PASAI SAN PEDRO
Del 5 al 11 de Noviembre de 1990

Lezoko Herriak




Tomas Garbizu

Bere seme kuttunari

OMENALDIÀ

EGUNAK: ABENDUAK 17, 18 ETA 19AN
LEZO, 1982



*ondorengoan oinarri,
ohitura zaharrak,
agurgarriak,
herriko seme gizon argiak.
Gora, gora Lezo
haiz izen haundiko,
gure aurrekoen
sorleku garbia
Euskaldun Herria.*

Hona hemen orduko aktak dioenaren arabera Lezoko Udalak hartutako erabakia:

Tomas Garbizu Jn. Lezoko seme kuttun izendatzea eta berari Plaka bat ematea.

Gertakizun hau dela eta Alkate Jnk. jardunaldiari hasiera eman ondoren herriaren omenaldiaren azalpen gisa, harrera emanez hitz batzuek esan ditu:

"Gabon guztioi: Gaur, 1982ko abenduaren 18an arratsaldeko zazpitan hasiera eman diogu, Tomas Garbizu Jn. ren omenaldizko jardunaldi berezi honi.

Aztergai bakarra eta onartzeko proposamen bakarra eta hau dagoeneko nahiko aztertua eta onartua gure herriko Tomas Garbizu Jn. musikagile ospetsua, Lezoko seme kuttun izendatzea da, eta oroigarri gisa plaka bat entregatzea.

Jakin, oso ongi dakigu, Euskal Herriari eta musikazale guztioi eskaini digun bere obra guztiarengatik hau ez dela nahiko ordaina, zeren eta hain ezteki mamitzea lortu duen Euskal Herriaren izpirituaren musikazko adierazpena sortzen gorputz eta arimaz bizitza guztia eman duenaren lana, ezin baita ordaindu eta kitatu merezi duen neurrian.

Beste gabe, gaur gure artean izateagatik mila esker eta Lezoko herri guztiaren esker on eta omenaldi gisa, har ezazu plaka hau oroigarritarako.

Ondoren Korporazio honek aho batez onartu du Tomas Garbizu Jn. Lezoko seme kuttun izendatzea . Tomas Garbizu Jnk. hartu du hitza eta izendapen horrengatik eskerrak emanez, berak ere

Udalari "Lezoko himnoa"-ren partitura orjinalak entregatu dizkio, eta hauek Biltzar Areto Nagusian ipini dituzte, Lezoko Unibertsitateko Udalaren armarriaren koadroaren ondoan, hain zuzen, hau ere Lezoko beste seme ospetsu batek, Elias Salaberria pintoreak egina.

Esan dugun bezala bere jaioterriak antolatu zion omenaldia eta herriko "seme kuttuna" izendatzea oso gogo onez hartu zuen Tomasek,



“Lero ko erria”

Bertako seme baten
Kantu-amasa

Antsoy

Tempo de bismar

7. Karo garria-tik jarri-
-ki-bel mendi-a jarriki-bel mendi-a men.
-di zi-bele-en jarri-ki-bel oiño-tan Lero.
-ko erria-a E-mun bit gandi-ra eus-
Kaldun jende-a euskal-dun jende-a ain-
-tzi-rietik bait de guz-tz e-re-gu-na gun-
-tze aldu-na Erker es-ku-bi zelai bato-
-mi oudo-vengo-en oiña-ri oituvara-
-makl aqur qarni-ak e-rriko seme
giza argi-ak e-rriko seme giza argi-
-ak go-ra gorra le-ro ain izen aundi.
-ko ain i-zen aundi-ko gu-ve aurre ko-
-en roble-ku gandi-a eus-kaldun erria-
-a -a erria-



Lezoko parrokiako abesbatzarekin omenaldi egunean.
Tomasen eskuinean, Joxe Migel Amiano, zuzendaria.

eta harro zioenez ongi merezia zuen, zeren uste baitzuen edonor irits zitekeen profeta izatera bere lurraldean, baina sekulan ez bere ofiziokoen artean. Oraindik Jakes de Bela zuberotar abokatu ospetsuak XVII mende hasieran jasotako errefrau zaharra, *Nur da hire etsaya? Hire ofiziokoa*,¹⁰⁵ indarrean zegoen edo bederen arrazoin faltarik ez zeraman.

Eta merezimenduaren komentzimendua hain zeukan sinestua ezen Unamunoren pasadizo hura kontatzen zuen, nola saria hartzerakoan esan zuen, *Gracias por haberme ofrecido esta distinción tan mercedamente*, eta bestea harrituta haserreturik erantzun zionean, *Usted sabe que no se dice así*, alegia, ez zela hura erabili behar zen modua eta formalismoa, berriro ihardetsi zuela, *Sí, pero los que lo dicen de la otra forma, tienen razón*. Honelakoxea zen Tomas, eta noizbehinka, grazia handiz egiak gordin-gordin adieraztea eta eskandalo txikitxo sortzea gogoko zuen.

En Lezo, fueron tres días de homenaje que yo agradecí profundamente porque era reconocimiento a mis setenta años de trabajo en los que creo haber hecho muchas cosas no ya por la música en general, sino particularmente por la de nuestra tierra y es bonito comprobar que los demás son conscientes de tu esfuerzo. Pero como siempre hay un “pero”, yo tengo que decir que estoy dolido de que casi ningún profesional se unió al homenaje. Actuó el Orfeón Donostiarra porque estaba contratado. Ni el Coro Easo, ni el de Santa Cecilia, ni siquiera el Andra Mari, aparecieron por Lezo, a pesar de haber escrito obras para ellos en repetidas ocasiones. Alkain y Aizarna estuvieron representando al Ayuntamiento de San Sebastián. La Delegación de Cultura no se

dignó enviar un representante. Alumnos del Conservatorio del que fui profesor de órgano durante tantos años, apenas apareció alguno.

Gabriel Intxaurrendieta jesuita lezotarrak Juan XXIII.aren irudia zeukan beste honako postala bidali zion: *Nik ere Lezoko semea naitenez erriak egiten dizun omenaldian parte artu nai dut. Zorionak eta besarkada bat*.¹⁰⁶

Lezoko omenaldia zela eta zorion ugari opaldu zioten adiskideek eta musikari askok, batez ere bere ikasle izandakoek. Urte askotan egindako zorra nolazpait kitatzearen antzeko zerbait izan baitzen. Hona, adibidez, Jose Ignazio Ansorena txistulariak idatzi ziona:

Jaun agurgarri hori:

Pozaren pozez jakin dut Lezoko herriak antolatu dizun omenaldia. Bazen garaia! Baina, nonbait, esaera zaharrak dioenez: "Inor ez da bere herrian profeta". Dena den, azkenean aitortuko dizute merezia duzun ospea. Benetan pozten naitaizu oso musikari gutxik egin bait dute zuk adina euskal kultura ta musikaren alde. Gainera, txistuaren arloan, ez dut uste zu bezain trebe, jator ta euskal kutsuz hornitua besterik aritu denik. Nire izenean, beraz, eta Donostiako ta Euskal Herriko txistulari guztien orde z har ezazu ene agurrik beroena.

Espero dut, klaseak amaitzean eta denbora libre piskat gehiago izatean bisita koskor bat egitera zure etxetik agertu ahal izan. Barka nazazu lehenago agertu ezin ahal izatea.

*Merezi duzuna egiten hasi direlakoan. ZORIONAK!*¹⁰⁷


Tomas musikari ospetsu eta saritua zen jadanik, -hogeita hamar saritik gora-, eta, nola ez, Bidasoako izokin elkargoko ohorezko bazkide ere izendatu zuten. Ez izokinarekin deusere ikustekorik zeukalako, dudarik gabe, Luis Mariano irundarraren letrak eta musikak idatzi zituelako eta honen lehen bultzatzailetariko izateagatik baizik.



Omenaldi eguneko meza nagusia. Guztien buru, aita Xabier Iratzeder.



Juan Padrosa pianista eta Nekane Lasarte sopranoa Tomas Garbizurekin omenaldi eguneko kontzertu ostean.



Hona 1985ean Arzentalesen, hau da, bere anaia Liborio hainbat urte igaro zuen herrian atsedean hartzen dagoen bitartean idatzi zuena:

Hace poco me nombraron socio honorario de la Cofradía del Salmón aquí en Irún, que tiene la misión de cuidar el mantenimiento del río Bidasoa criadero del succulento salmón que recorrer el Enderlaza para seguir acariciando los bellos rincones y pueblos del Baztán. Yo no tengo nada que ver con el salmón, tampoco Caro Baroja, ni Camilo Cela que también pertenece a la Cofradía. Pero siempre reclama algún mérito

el acto de ser nombrado socio honorario. Así que, supongo que a Caro Baroja le nombrarían porque vive en Vera de Bidasoa, en Itzea y ha hecho elogios del río Bidasoa, histórico río, aún en la mente del famoso escritor Pío Baroja, que ha cantado las excelencias de este misterioso y polémico río y su paisaje...; a Camilo Cela porque en un escrito hizo apología de la calidad del salmón; a Pablo Sorozabal porque según él, nada contra corriente como el salmón; pero yo creo que el motivo era que pasaba temporadas en esta zona de Irún y Fuenterrabia; y en cuanto a mí, por haber compuesto algunas canciones a Luis Mariano, irunés, y por ser uno de los impulsores en su carrera artística. ¹⁰⁸

Orfeoi Donostiarrak 1984eko ekainaren 16an Arantzazuko Basilikan interpretatu zuen Garbizuren Benedicta Meza VI Musikegunak emanaldien barruan, eta Imanol Muruak, garaian Kultur Departamentuaren Diputatu foralak, honela egiten zion gonbitea:



Omenaldi eguneko meza ostean elizatik irteterakoan, herriak babesturik. Atzean: Patri Urkizu alkatea eta Mikel Arrizabalaga zinegotzia.

Lagun jator hori:

Nere agurra eman ondoren, zure obra Arantzazu Basilikan eskaintzeko aukera emanetz gure musika-ihardunaldietarako opa diguzun laguntza eskertu nahi dizut.

Zure etorria oso ohorezkoa izango litzaiuguke bihar, larunbata, Donostiako Orfeoiak eta José Manuel Azkuek Antton Ayestaranen zuzendaritzapean eskainiko duten kontzertuan, bertan zure sormen miresgarriak burututako Benedicta meza interpretatuko delarik.

Aldez aurretik, bihoakizu nere eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskerrona. ¹⁰⁹

Baina ez zen bere buruan soilik pentsatzen zuen artista, maiz gertatu izan ohi den bezala, eta Donostiako Orfeioa saritzen dutenean bere zorionagurra bidaliko dio, Antxon Ayestaranen erantzun gutun honek adierazten digun bezalaxe:

Lagun agurgarria:

Donostiako Orfeioa osatzen dugun izenean, 1984 gn. Urteko "Príncipe de Asturias de las Artes" saria dela eta bidali diguzuen bihotzeko zorionagurra benetan eskertu nahi dizut.

Zure gisa bere zaletasun eta ahaleginekin bat direnak eta bere arrakastarekin pozten direnak, berezketeta honen partaide egin nahi ditu orfeoiak.

Har ezazu besarkada beroena .¹¹⁰

Eta omenaldiak ez zizkion soilik Lezoko herriak eskaini, 1987ko azaroan Pasaiako herriak San Pedroko Ondartxo Abesbatzak antolaturik omenaldi bat eskaini baitzion, non Jose Luis Telleria kultur Diputatu izan zen Imanol Murua, une honetan Diputatu Nagusiaren ordezkari, eta Donostiako katedraleko *Coro del Buen Pastor* ere batu zen omenaldiari.

Errenteriako Eresbil-Eresiak antolatzerakoan, seigarren zikloan, 1988ko martxoaren 15ean, Abestia Euskalerrian izenaren pean eta Maite Arruabarrena sopranoa, Pello Ormazabal tenorra eta Javier Gonzalez sarmiento pianistaren laguntzaz programa osoa Tomas Garbizuren abestiez moldatu zuten, kanta gehienak Madrilen konposatuak izan zirenak. Hona zerrenda:

Oyes! (Canción de ronda), Amorea Margaritaxo, Neska, El eco de una habanera, Nere Maitea, Maitatz en ditut, Etorrera, Ixil-ixilik, Un grano de oro por un grano de trigo, El pez blanco, El pez rojo, Mi caballo cascabel (canción infantil), ... Y tenía razón, Del camino, La fuente piedra.

Donostiako erietxe batean eman zuen azken hatsa 1989ko azaroaren 27an, azken ordurarte lanerako kemena erakutsi zuen



Ezkerretik eskuinera: Patri Urkizu, Juan Padrosa, Patxi Intxaurrendieta, Tomas Garbizu eta Nekane Lasarte omenaldi eguneko kontzertu ostean, jai giroan.



Tomas Garbizuren izena hartu zuen Lezoko Udal Musika Kontserbatorioak sortu zenez geroztik.



Tomas Garbizu oroigarri bat jasotzen Ixkulin elkarte-
an omenaldi egunean. Eskuinean: Patri Urkizu ordu-
ko alkatea eta aita Xabier Irtzeder.

Garbizu maisuak. Ander Letamendia medikuak kontatzen du idazki batean,¹¹¹ nola hasi zitzaione-
an adierazten Tomasi hil baino bi egun aurretik
zein larria zen osasunaren egoera, honek hitz egi-
ten utzi gabe erantzun ziola:

*-¡Ander! Si lo que intentas es advertirme de la
preocupante gravedad de mi situación, lamento
decirte que estás totalmente equivocado, porque,
en mis oídos, aún no percibo las trompetas, los
violines ni los coros de arcángeles que nos
acompañarán en ese famoso viaje sin vuelta.*

Dena den oharturik zen jada urte bat lehenago azken eguna laister iritsiko zitzaiola, ezen
Lezoko Gurutze Santuari egindako bisita baten ondoren honako bertsook idatzi zituen:

Urte asko dira, nola ez,
larogeta ta zazpi urte
naiz ongi edo neke
eten gabeko ari luze.

Mendi zelaiak beti bat
nik ezin ikusiko,
Lezoko Gurutze Deunak
dei egitean betiko.

Nere beatzak ez indarrik,
belarriak ezin entzun,
nere mingaina ixilik,
Musika bidez erantzun ¹¹².

† TOMAS GARBIZU SALAVERRIA Jauna	
(Musikagile)	
ZURE MUSIKA ZABALTZEN JARRAITUKO DUGU	
	ORFEON DONOSTIARRA DONOSTIAKO ORFEOLA
Donostian, 1989ko azaroaren 29an	

Laurogeita zortzi urte bete berriak zituela hiltzen, bada, Tomas Garbizu Salaberria,
Donostiako San Ignazio erietxean, 1988ko azaroaren 27an. Biharamunean hileta elizkizunak
antolatuz zitzaizkion Lezon, Joan Bataiatzailearen elizan. Imanol Aldaregia, Eliz-barrutiko idaz-
kari nagusiarekin batera hamabost apaizek eman zuten meza, hauen artean konpositore, musika-
ri, irakasle, abesbatz zuzendari eta, nola ez, Arantzazuko frantziskotarren ordezkariak. Lehen
esaulkietan bere anaia Liborio eta familiako beste zenbait pertsona, eta agintariak: Imanol
Murua, Diputatu Nagusia eta Lezoko alkatea, Mikel Arrizabalaga. Organoa jotzen María del

Coro Sanz Agirre, eta aldamenean Esteban Elizondo eta Lorenzo Ondarra, Tomasen ikasle ospetsuak. Anbenduaren 3an beste meza bat eskaini zitzaion Donostiako San Inazio parrokiari, Tomasen auzoan, eta berak konposaturiko zenbait kanta abestu zuten, Santa Zezilia abesbatzak eta Donostiako Orfeoiak.

Coro Sáenz: «La última alegría de Garbizu fue preparar el concierto de Santa María»

La organista que ayer interpretó obras del compositor fallecido, junto al Orfeón Donostiarra y Gómez de Edeta, fue alumna y colaboradora del músico de Lezo

SAN SEBASTIÁN. DV
CRISTINA TURRAU

Para la organista Coro Sáenz Aguirre, el concierto que ayer se ofreció en la basílica de Santa María en memoria del que fuera su gran maestro Tomás Garbizu, fue algo muy especial. Ella, que siempre incluye una obra del compositor guipuzcoano en sus recitales, recordó, mientras pulsaba las notas del «Ainitz Urte», aquella tarde de agosto del 89 en su casa, cuando un representante de la Quincena, un músico, Tomás Garbizu y ella misma organizaron el concierto que ayer se ofreció en la iglesia donostiarra, convertido ahora en un homenaje póstumo. «El compositor estaba entusiasmado», asegura.

Aunque su padre, Pepe Andoain, fue un afamado acordeonista miembro de la Banda de Música de San Sebastián, intérprete de saxo y clarinet.



La organista donostiarra Coro Sáenz. (Foto Postigo)

Aita Iratzederrek berrirori ere apal ekarri zuen gogora betiko adiskidea:

Joan den azaroaren 27-an Donostia-n hil dela jakin dutanean, haren kantu hau gogoratu zait: "Fededunak, ez etsi, ez ilun jar... Denak xuti, gaur elgar eskutik har, Kristo beti guk argi, guk indar!"

OHARRAK

¹Hauek dira Tomasen lehen zortzi deiturak: Garbizu, Salaberria, Galarraga, Agirre, Arretxe, Etxanike, ..., Olaizola.

²Donostiako Gotzaindegia, Histori Agiritegia, 624. mikrofilma.

³Antonio Pildain (Lezo, 1890 - Las Palmas, 1973). Kanarietako apezpikua izan zen. Ikus: Gabriel de Armas, *Pildain, obispo de Canarias (Biografía inacabada)*. Edición, estudio y prólogo de Marcos Guimerá. Valencia, 1976. Eta beste hau: Agustín Chil Estévez, *Pildain, un obispo para una época*. Las Palmas de Gran Canaria, 1987.

⁴Tomas Garbizuren etxeko artxiboa (Aurrerantzean TGEA)

⁵Urkizu, Patri eta Intxaurrendieta, Patxi, *Garbizu anaiak*. Lezoko Udala, 1991, 2-4 orr.

⁶Ibidem, 4-5 orr.

⁷“Creo que debéis ser hermano de otro Garbizu, formidable cantor, que allá hace 40 años en el seminario de Vitoria, nos emocionaba con su torrencera de voz en el solo del aurtxo txikia...)No se llamaba Liborio? ...”(Casimiro Saralegik Tomas Garbizuri, Iruñea, 1972-III-23) TGEA.

⁸Patxi Intxaurrendieta, “*Tomas Garbizurekin solasean*”, *Aske*, Lezoko aldizkaria, 1987, 4. zb., 31. orr.

⁹*Garbizu anaiak*, aip. lib., 5. orr.

¹⁰EL PUEBLO VASCO, 1928ko uztailak 31

¹¹“... 1908an hasi eta gutxienez 1950 arte aritua. Ez zekien euskararik, beraz, erdaraz egiten zuen bere lana.” (ESNAOLA, Imanol: *Lezoko euskararen historia soziala*. Ikerketa lana. Lezoko Unibertsitateko Udala, 1999, 112. or.).

¹²“Bestea, berriz, medikua Fernando Carril y Letamendia izan zen, Madriden jaioa. 1887an Lezora etorri zen Goizuetatik 25 urte zituela bere amarekin batera. Ama Tolosakoa zuen arren, bera ez zen euskalduna...” (ESNAOLA, Imanol: Aip, Lib., 112. orr.).

¹³Patxi Intxaurrendieta, “*Tomas Garbizurekin solasean*”, aip. art. 30-31. orr.

¹⁴Emilio Casares et al., *Diccionario de la Música Española e Hispanoamericana*. Sociedad General de Autores, T.V, Madrid, 1999, 380-381 or.

¹⁵ARÁNZAZU, 1952, 331 zb. 248-9 orr.

¹⁶ARÁNZAZU, 1952, 331 zb. 248-9 orr.

¹⁷Jose Maria Arregi Arrimaldo, Bizkaiko Areatzan (Billaro) jaio zen 1879ko martxoaren 28an. Hamar urte zituela Arantzazuko ikastetxe serafikora eraman zuten. Hamabi urte besterik ez zituen bertako organista izendatu zutenean. 1895ean egin zituen botoak eta 1903an ordenatu Perun, bertako misioetara joana baitzen boluntario gisa hartarako egin zuten deialdi bati erantzunez. 1914ean Espainiara itzuli zen eta Bartzelonan Manuel Burgés maisuarekin goi mailako musika ikasketak burutu zituen: pianoa, harmonia modernoa, kontrapuntua eta fuga, konposizioa, orkestrazioa... 1919an Arantzazura joan zen eta lau urteren buruan bertako korua goi mailara jaso zuen. 1923an Arantzazu utzi eta Caspe, Zarautz, Gernika, Alfaro eta Najerako komentuetan barrena ibili zen bertako koruen ardura hartuz. 1940an Arantzazura itzuli zen berriro. 1945ean Kantabriako Santillana del Mar udalerriko klarisen komentura erretiratu zen. Apoplejia atake baten ostean, Arantzazura eraman zuten berak beti eskatu zuena bete zedin. Arantzazun hil zen 1955ko maiatzaren 5ean.

¹⁸Berrogeiko hamarkadaz ari da.

¹⁹ARANZAZU, 1953, 344. zb., XXXIII.

²⁰“Arantzazutik Zarauzko frantziskotar komentura: han frantziskotar habitua jantzi eta Nobiziadu edo proba urtea bizitzen hasi zen. Baina urte hartan Jainkoak beste bide batetik abiatzea eskatzen ziola konturaturik, bizitzako bide berri bati ekin zion. Eta musikarako gogoia gero eta areagotzen ari zitzaizola ikusirik, musika sakon ikastea erabaki zuen”. Karmelo Iturria: “*Tomas Garbizu joan zaigu*”, ARANTZAZU, 692 zb., 1990, 30. or.

²¹Jose M^a Iraolak Igeldon jaio zen 1886. urtean. Beltran Pagolarekin egin zituen musika ikasketak Donostiako Arte Ederretako Akademian. Hogeitabost urte zituen Donostiako Kontserbatorioko Piano irakasle izendatu zutenean. 1916an Errenterriko bandaren zuzendaritzarako oposizioetara aurkeztu zen, eta José Egurrola, Regino Ariz, Buenaventura Zapirain, José Franco eta José Olaizolak osatu zuten epaimahaiak bera aukeratu zuen lan hori betetzeko. Pianista handiak eta Kontserbatorioko irakasle izatera iritsi ziren hainbat ikaslek ikasi zuten berarekin: Félix Lavilla, Patxi Corostola, Luis Rego, Josefa Valverde, María Teresa García Piudo, Carmen Ocariz, Marimi Azpiazu, María Josefa Iribas, Juan Padrosak eta, esan dugun bezala, baita Tomás Garbizuk ere. José María Iraola Igeldon hil zen ilobez inguraturik, 1971ko maiatzaren 14an.

²²Beltran Pagola (Donostia, 1878- Donostia, 1950). Gipuzkoar pianista eta musikagilea. Musika ikasketak egin zituen jaioterrian Santestebanekin, eta Madrilen Tragórekin. 1898-1914 urteetan Donostiako kasinoko pianista izan zen. Geroago Donostiako kontserbatorioko irakasle izan zen eta bertako orkestra sortu zuen. Garrantzi handia izan zuen Pagolaren *Tratado práctico de armonía* liburuak. Musika lan aipagarriak ditu: *Sinfonía vasca*, orkestrarako; *Humoradas vascas*, piano eta orkestrarako; *El monje organista*, eta Pianorako *Sonata*. (LUR hiztegi entziklopedikoa).

²³“*Fui Becario del Ayuntamiento de San Sebastián, con 600 pesetas anuales*”, ARANTZAZU, 495. zb., 1972, 116. or.

²⁴On Mariano Azkue 1924-1927 urteen artean izan zen Pasaia San Pedroko erretore. 1927tik aurrera On Felipe Goena Urkiak bete zuen lan hori 1936an, gerra zibilaren hasieran hil zuten arte.

²⁵Tomasen aurreko organista Luis Aranburu altzatarra izan zen.

²⁶Maritxuri (beste edozein haurri bezala) egokitu zitzaion mandatu horietako batean Mariak, Tomasen amak, kale nagusian zegoen zapategira bidali omen zuen Tomasen txarolezko zapata pare bat eramatera, zapatariak ahalik eta azkarren konpon zitzan. Zapatariak ikusi zituenean “zapatos de novio” esan omen zuen. Gaztetatik zetorkion, antza, Tomasi janzkera zaintzeko joera.

²⁷San Pedroko parrokiako apaiza zen Mateo Alberdi lezoarrak bideratu zuen eskakizun hura.

²⁸Hau izan zen 1928ko uztailaren 20an egin zen emanaldiko egitaraua:

I	
Preludio del 2º acto de Mirentxu	Jesus Guridi
Iruleak / Hilanderas	Jose A. Donostia
Umezurtza / La huerfanita	Joseba Olaizola
Sagardotegian / En la sidrería	Tomas Garbizu
Seaska kanta / Canción de cuna	Jose A. Donostia
Zuberoako Dantzak / Bailes suletinos	Grupo de Tardets
II	
Idilio	Jose A. Donostia
Oñazez	Jose A. Donostia
Belatsarena / Baile del milano	
Anguleros del Nervión	Joseba Olaizola
Benabarrako Dantzak / Danzas de B. N.	Grupo de Ispoure
III	
Preludio del Jardín de la Graciosa (Ramuntxo)	Gabriel Pierre
Gabon Kanta / Villancico	Jose A. Donostia
Santa Agueda (de Mirentxu)	Jesus Guridi
Kaxarranka de Lekeitio	
Canto de la luna	
Ezpatadantza	Berrizko taldea

²⁹ Imanol Olaizola, José de Olaizola, Oroitzapenak, 1883-1969, Recuerdos de una época, Dr. Camino institutua, Donostia 2001, 81-82. orr.: *A Olaizola le correspondió dirigir la sección de música, contando con colaboradores como los Zaldúa, Silverio y Bernardo, Larrocha, Buenaventura Zapirain, Tomás Garbizu y Uruñuela que tuvieron que trabajar "a marchas forzadas", lo que obligó a que los mencionados fuesen los primeros fundadores músicos, porque Guridi, Padre Donostia y Pierné, por la premura de tiempo no pudieron escribir exprofesamente para "Saski-Naski" e, incluso ante el retraso en la entrega de la partitura de la obra encargada a Zapirain, "Sagardotegian", tuvieron que pedir a Garbizu que escribiera urgentemente otra versión. Por ésto, en los programas impresos para la presentación en la Sala de Fiestas del Gran Casino en los días 20 y 21 de julio de 1928, figura el "estreno" de "Sagardotegian" con dos autores, Zapirain el día 20 y Garbizu el 21.*

³⁰ Emeterio Arrese (Tolosa, 1869-1954). Gaztetan Ameriketara joan, bertan diru mordoa egin eta euskal pilotarientzat hainbat frontoi eraiki zuten. *Aiton baten eriotza* bakarrizketa (1898), *Zara* (1911) eta *Sentierak* (1911) operak idatzi zuten. Poema liburu artean ezagunenak: *Txindor* (1928), eta *Olerki berrizte* (1952)...

³¹ "Cum Jubilo" mezari buruz hau idatzi zuen 1974. urtean Tomasek partituraren azalean: "Estrenada en la parroquia de Pasajes para donde fue escrita. Se cantó en la parroquia de Rentería, el día de la Poesía Vasca, en presencia de Aristimuño, Lauaxeta, Orixe etc. La copia es de Julián Lavilla que fué alumno mío de armonía. Esta partitura se la debo a mi amigo el sacerdote D. Elías Querejeta y le agradezco muchísimo, pues estaba sin ella."

³² *Literatura II*. Enciclopedia general ilustrada del País Vasco. Auñamendi, Donostia, 1978, 336.

³³ El Día, 1933-VIII-30.

³⁴ "Recuerdo algún título, *Erraondoko azken txistularia*, una cosa evocadora y otra que creo se titulaba, quizá referido al padre Donostia, *Lekaroztik Donostira*. Escribía en euskera cuando eran pocos los que lo hacían. Y también en castellano algunos artículos de fondo y otros de menos fondo. Hojeando un día entre las revistas antiguas que guardamos en casa me encontré con un artículo mío escrito a mis dieciocho flamantes años con motivo del homenaje que los txistularis hicieron a Arturo Campión. Arturo Campión era un entusiasta de todo lo vasco."

³⁵ Obra honen euskarazko egokitzea Bitoriano Iraola donibandarrak egin zuen 1884. urtean. Bi itxuak, jatorriz, Francisco Asenjo Barbieriren musika zuen zarzuela bat bazen ere, pentsatzekoa da Lezon antzeztu zutena antzerki lan soila baino ez zela izan, kantaren bat edo beste tartekatu arren.

³⁶ TGEA.

³⁷ Jesus M^a Arozamena, *San Sebastián. Biografía sentimental de una ciudad*. Madrid, 1963. 340-341 orr.

³⁸ EUZKADI, 1932, X, 9. (Berrargitarapena, Iñigo Aranbarri & Koldo Izagirre, *Gerraurreko Literatur Kritikak*, Labayru, Amorebieta-Etxanoko Udala, 1996, 188-190 orr.)

³⁹ EL DÍA, 1934, III, 6. (Berrargitarapena: *Garbizu anaiak*, aip. lib., 506-508 or.)

⁴⁰ Abelino Barriola, *Dramak*. Xabier Mendigurenaren edizioa. Klasikoak, 12, Ibaizabal, Bilbo, 1987, 26.

⁴¹ EL DÍA, 1936, III, 28.

⁴² "Tolosako ibilbide musikala", *Nazioarteko abesbatzen lehiaketa. Concurso Internacionalde Masas Corales. Pregones y mesas redondas. Años, 1982 y 1983*. Centro de iniciativas turísticas. Tolosa, 1984, 100.or.

⁴³ Jean-Marie Diharce "Xabier Iratzeder" (Donibane Lohizune, 1920). Hamahiru urtekin Uztaritzeko seminarioan sartu zen, non Narbaitz kalonjeak eta Piarres Lafittek zuzendu zuten euskal giroan. Ahurtiko beneditarretan sartu eta apaiztu egin zen (1945). Euskaltzain osoa, bere poema liburuen artean aurki ditzakegu: *Zeru menditik* (1941), *Pindar eta lanho* (1946), Argiz argi (1969), *Biziaren Olerkia* bilduma (1983)...

⁴⁴ Xabier Iratzeder, *Biziaren gudaldia*, 1997, 204-205. orr.

- ⁴⁵Xabier Iratzeder, *Biziaren olerkia*, 1983, 80-81. orr.
- ⁴⁶Rodney Gallop, *Los Vascos*. Versión española de Isabel Gil de Ramales. Dibujos de Marjorie Gallop. Madrid, 1948, 130.or.
- ⁴⁷TGEA.
- ⁴⁸EUZKO DEYA, 196. zb. Paris, 10 fevrier 1940.
- ⁴⁹TGEA.
- ⁵⁰Http:www.txistulari.com/garbizu.htm.
- ⁵¹Emilio Casares et al., *Diccionario de la Música...* aip. lib., 381.
- ⁵²Santiago Aizarna, “La esencia de la Música Popular Vasca”, *Hoja del Lunes de San Sebastián*, 1978-VI-26..
- ⁵³TGEA
- ⁵⁴Jacinto Benavente, *Lo increíble. Aves y pájaros*. Ed. M. Aguilar, Madrid, 1940, 81-136 orr.
- ⁵⁵Gregorio Torres Nebrera, “Crónica de teatros (1940-1965): Conservadores, renovadores y disidentes”, *El papel de la literatura en el siglo XX*. I Congreso Nacional Literatura y Sociedad (2000). A Coruña, 2001, 60. or.
- ⁵⁶Centro de Documentación Teatral. INAEM. Madrid, Torregalindo 10.
- ⁵⁷“*Solía decirme: Maestro, ¿Cuándo toca usted el órgano?*”. Y yo: “*Cuando ponga la partitura*”. Y ella: “*Toque usted cuando quiera. A mí me anima mucho*”. *Le animaban mucho los glisandos y demás florituras que yo realizaba.*”
- ⁵⁸TGEA
- ⁵⁹TGEA
- ⁶⁰*Un viaje a la fortuna*. Comedia casi folletinesca en un prólogo y dos actos, dividido en cuatro cuadros, original de Jesús María Arozamena, José María Cavanillas y José María Laita. Las ilustraciones musicales de los maestros Tomás Garbizu y Federico Moreno Torroba. Carta preliminar de D. José María Pemán. Madrid. Sucs. De Rivadeneyra, 1943. Madrideo Liburutegi Nazionala, T/ 31187.
- ⁶¹*Nuevo en esta plaza*. Comedia en dos actos, el segundo dividido en dos cuadros, original de Jesús María de Arozamena, José maría Cavanillas y José María Laita. Ilustraciones musicales del maestro Tomás Garbizu. Madrid, Sucs. De Rivadeneyra, 1944. Madrideo Liburutegi Nazionala, T/33691.
- ⁶²Esku-programa. (1948). Nuevas Gráficas, S.A. Madrid.
- ⁶³José Tamayo. Granadako TEU antzeztaldearekin hasi zen eta gero bere konpainia propioa sortu: Lipe de Vega izenekoa. Espainia eta Ameriketara zehar ibili zen, Teatro Nacional Español delakoan zuzendaritza onartu baino lehen. Bere ikuskitzunen artean daude. Calderón (*El Gran teatro del Mundo*, 1946), Miller (*Saltzaile baten heriotza*, 1952), Valle-Inclán (*Divinas palabras*, 1961), Lorca (*Bodas de sangre*, 1962), Brecht (*Madre coraje*, 1966), Pirandello (*Seis personajes en busca de autor*, 1967), Frisch (*La muralla china*, 1971)..
- ⁶⁴Arthur Miller (New York, 1915), austriar emigrante baten semea eta amerikar errealismo psikologikoaren ordezkari garrantzitsua. Bere obra ospetsuenak: *All my Sons* (Nere kanta oro, 1947), *Death of a salesman* (Saltzaile baten heriotza, 1949), Elia Kazanek zinema pasatua, *The Crucible* (Salemgoren soriginak, 1953), *After the Fall* (Erorketaren ondoren, 1964), etabeste.
- ⁶⁵Manuel Parada, SGAE-eko lehendakariordearen agiriaren arabera (1961-IX-27). TGEA.
- ⁶⁶Gregorio Torres, aip. art., 67.
- ⁶⁷TGEA.

⁶⁸Calle Alvarez de Baena, 7. Madrid.

⁶⁹“*Fue ofrecido por el Sr. Amezua al Seminario Diocesano de San Sebastián, trasladándose a la fábrica OESA de Azpeitia para su acomodación a la capilla principal del Seminario. Costó 350.000 ptas., más 13.950 por portes y embalajes. Fue inaugurado en octubre de 1957 por el organista José Manuel Azkue*” . *José Manuel Azkue, Esteban Elizondo, José M^a Zarpain: Gipuzkoako organoak - Órganos de Gipuzkoa*, 281. or.

⁷⁰Jesus Guridi (Gasteiz, 1886 BMadrid, 1961). Piano, harmonia, kontrapuntu, organo, konposizio eta beste ikasketak Europan zehar egin ondoren Espainiara itzuli zen. Bere lanen artean ezagunenak hauek dira: *Mirentxu* opera (Bilbao, 1910); *Amaya* opera (Bilbao, 1920); *El Caserío* zarzuela (1926), *Mari Eli* zarzuela (1936) *Diez melodías vascas* (1941)...

⁷¹Jesus M^a de Arozamena: *San Sebastián. Biografía sentimental de una ciudad*. Madrid, 1963. 330-331. orr.

⁷²Jeanne Demessieux Montpellier-en jaio zen 1921ean. Parisko kontserbatorian amaitu zituen 1941an goi mailako musika ikasketak. Lau lehen sari irabazi zituen bertan: Harmonia, Pianoa, Kontrapuntu eta Fuga, eta Organoa eta Inprobisazioa gaietan. 1946-1947 denboraldian organorako literaturaren zati handi bat buruz interpretatu zuen eta organorako lau mugimenduko sinfonia osoa inprobisatu. Westminster-eko katedralako historian kontzertuak ematera deitu zuten lehen emakumea izan zen bere garaian. La Madeleine elizako Cavaillé-Coll organoko titularra izan zen aurretik Saint-Saëns eta Fauré izan ziren bezala. Liejako kontserbatorioan (Cesar Franck-en jaioterrian, hain zuzen) organo irakasle izan zen.

⁷³Jesus M^a de Arozamena: aip. lib., . 328. or.

⁷⁴Luis Mariano (Irun, 1920 - Paris, 1970). Opereta frantsesaren eta film musikalaren erregea. Hona zenbait musika film zeinetan protagonista izan zen: *Fandango* (1948), *Andalusia* (1950), *Paris chante toujours* (1951) hemen besteak beste kantari hauekin parte hartu zuelarik: André Dassary, George Guetary, Yves Montand eta Edith Piaf; *Violettes Imperiales* Carmen Sevillarekin (1952), *La Belle de Cadix* (1953), *Napoleon* (1954), *Le chanteur de Mexico* (1956)...

⁷⁵TGEA

⁷⁶Esku-programa. Concierto organizado por el Exmo. Ayuntamiento de Madrid para conmemorar el XXX Aniversario de la Fundación de la Biblioteca Musical circulante. 1919 (Madrیدهko armarría) 1949. “Señora: donde hay música, no puede haber cosa mala.” (Cervantes: Don Quijote, parte II, cap. XXXIII.). Sección de cultura e Información. Artes Gráficas Municipales.

⁷⁷Elias Salaverria Inchaurrendieta (Lezo, 1883 BMadrid, 1952). Ik.: Julián Martínez, Elías Salaverria Inchaurrendieta. *Exposición conmemorativa del centenario de su nacimiento (1883-1983)*. Diputación Foral de Guipuzcoa. Donostia, 1983. J. Martínez, Salaverria. Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones. CAM, Donostia, 1990.

⁷⁸José M^a Arozamena: *Donostia capital de San Sebastián*. Colección Añamendi, n^o 35.San Sebastián, 1964. 167. or.

⁷⁹ZERUKO ARGIA, 1968ko irailak 15.

⁸⁰EL DIARIO VASCO, 1968ko irailak 12.

⁸¹Luis M^a Millet, Orfeo Catalá-ko zuzendariak *Canço de Bressol*-en estreinaldia gonbitatuko du Palau de la Musikara Madridera zuzendu gutun batez (1952-XI-21).

⁸²Angel M. Pompey adiskideak hurrengo urteko beste gutun batean (1953-VII-23), honakoa idazten dio: “...he visto muchas bellezas llorando por Madrid. Tu marcha (puedes estar tranquilo) fue muy sentida: todos los órganos de la capital están mudos...”.

⁸³Segismundo Royo Villanueva, Subsecretario de Educación Nacional. Carta a Tomás Garbizu (1954-XI-6).

José Maldonado, Subsecretario de Educación Nacional. Carta a Tomás Garbizu (1956-VIII-28). TGEA.

⁸⁴TGEA.

⁸⁵Pablo Sorozabal (Donostia, 1897 B Madrid, 1988). Beka batez Leipzig-era joan zen 1920ean konposizio eta zuzendaritza ikastera, eta besteak beste lanok moldatu zituen: *Capricho español* (1920), *Sainete vasco* (1923), *Katuska* (1934), *La del manojo de rosas* (1934), *La tabernera del puerto* (1936), *Blak el payaso* (1942)... Euskal abesti herriko udari ere antolatu zituen, hala nola: *Maitetxu*, *Baserritarrak*, *Gabiltzan kalez-kale...*

⁸⁶*Benedicta* mezaz ari da? Gutun hau idatzi eta astebetera (1961-06-07) estreinatu baitzen meza Donostiako Santa Maria elizan. Baliteke, beraz, Tomasek eskatu izana Pablo Sorozabali estreinuko kontzertua zuzen zezan.

⁸⁷1942 urtean estreinatu zen Madrilan.

⁸⁸Aita Arregik Tomasi, alegia.

⁸⁹Bernardo Gabiola (Berriz, 1880 - Madrid, 1944). Musikari eta konpositore bizkaitarra. Aita organista eta anaiak ere musikoak izan zituen. Donostiako Udal banda eta udal-akademiako zuzendari izan zen (1907-1912), Durangoko orfeoia sortu zuen (1918) eta Madrideko kontserbatorioko organo-katedra lortu eta irakasle bezala nabarmendu zen.

⁹⁰TGEA.

⁹¹TGEA..

⁹²Jesús M^a Arozamenak Tomas Garbizuri gutuna (1966-V-17). TGEA.

⁹³Jesús M^a Arozamenak Tomas Garbizuri gutuna (1968-III-3). TGEA.

⁹⁴Jesú Maria Arozamenak Tomasi gutuna (1968-VI-24). TGEA.

⁹⁵Xabier Iratzederrek Tomas Garbizuri gutuna (1970-III-20). TGEA.

⁹⁶Jesús M^a Arozamena eta Tomás Garbizu, *Viejas canciones donostiarras*. *Donostiako kantu zarrak*. Caja de Ahorros Municipal. Donostia, 1971.

⁹⁷José María Zapirainek Tomas Garbizuri gutuna (1971-III-10). TGEA.

⁹⁸Aip. art., (*Hoja del Lunes* de San Sebastián, 1978-VI-28)

⁹⁹TGEA

¹⁰⁰COMISION DE REGIMEN INTERIOR

Donostia, 1971-10-04

La Comisión Municipal Permanente, en sesión celebrada el día 29 de septiembre de 1971, aprobó, elevándolo a acuerdo, un dictamen de la Comisión de Régimen Interior, cuya parte dispositiva dice:

1º.- Conceder la jubilación forzosa por edad al Profesor del Conservatorio de Música Don Tomás Garbizu Salaverria, con efectos de 12 de septiembre de 1971.

2º.- Que se eleve el expediente a la Dirección Técnica de la MUNICIPAL a los efectos procedentes.

Lo que le comunico a Vd. para su conocimiento y demás efectos.

Dios guarde a Vd. muchos años.

¹⁰¹Garai hartako gipuzkoar akademikoak izan ziren ere: Joaki de Irizar eta Barnoya arkitektoa, Frantzisko Ferrer Monreal arte kritikaria, Gonzalo Manso de Zuñiga eta Txurruka idazlea, eta Frantzisko Eskudero konpositorea.

¹⁰²ART. 47. *Los Académicos Honorarios y Correspondientes contribuirán también con sus luces a los fines de la Academia. Unos y otros, cuando se hallen en Madrid, podrán asistir a sus sesiones con voz pero sin voto.*

ART. 48. *Los Correspondientes estarán en comunicación directa y frecuente con la Academia, a la cual deberán participar todo cuanto sobre Bellas Artes se ejecute o publique en los puntos de su respectiva residencia y que por su mérito e importancia sea digno del conocimiento de la misma. Igualmente la darán noticias de los descubrimientos artísticos y de los*

científicos que tengan relación con las Artes, de la creación de Museos, Archivos o Bibliotecas musicales, organización de Orfeones o sociedades corales, formación de Colecciones de objetos de arte, erección y restauración de monumentos. exploraciones de ruinas y cuanto pueda interesar a las Artes ya los artistas.

ART. 49. *De las Memorias y noticias que remitan los Académicos Honorarios y los Correspondientes, se hará mención en las actas de la Academia y se extractarán o publicarán íntegras las que por su importancia lo merezcan a juicio de la misma.*

ART. 50. *De todos los discursos y Memorias que se leyeren en las Juntas públicas, se remitirán ejemplares a los Honorarios y Correspondientes.*

ART.51. *Todos los Académicos pueden usar de este título siempre que gusten, pero expresando la clase a que pertenecen.* (Real Academia de Bellas Artes de San Fernando: *Anuario*, 1980. Madrid. Págs. 457-458).

¹⁰³*Tengo el honor de dirigirme a Vd. haciéndole llegar en nombre de esta Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián y, en el mío propio, la más sincera felicitación por la distinción de que ha sido objeto al ser elegido Académico de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, en reconocimiento a su intensa labor en pro de la música.*

Dios guarde a Ud. muchos años.

Donostia, 1972-07-20

¹⁰⁴CENTRO DE INICIATIVAS TURISTICAS. TOLOSA

Distinguido amigo:

Hemos recibido con satisfacción la noticia de su nombramiento como académico correspondiente de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando

Sinceramente nos complace que un buen amigo de este Centro haya obtenido esta distinción. Estamos bien seguros que la labor que ha de desarrollar como miembro de la Real Academia ha de ser bien positiva..

En nombre de todos sus amigos tolosarras de este Centro le saluda afectuosamente,

Antonio Elozegi Vitoria

1972-07-22

¹⁰⁵Luis Michelena, *Textos Arcaicos Vascos*. Madrid, Minotauro, 1964, 185 or.

¹⁰⁶Gabriel Intxaurrendietak Tomas Garbizuri gutuna (1982-XII-17/19). TGEA.

¹⁰⁷Jose Igancio Ansorenak Tomas Garbizuri gutuna (1982-XII-11). TGEA.

¹⁰⁸Arcentales, *Diario*, 1985-06. TGEA.

¹⁰⁹Imanol Muruak Tomas Garbizuri gutuna (1984-VI-15). TGEA.

¹¹⁰Antxon Ayestaranek Tomas Garbizuri gutuna (1984-VII-4). TGEA.

¹¹¹Ander Letamendia, *El último decenio de la vida de Tomas Garbizu*. Hitzaldia.

¹¹²*Lezo* 7, 1991, 117or.

Testigantzak

TOMAS GARBIZU SALABERRIA



TOMAS GARBIZU

Jose Ignazio Ansorena Miner

On Tomas Garbizu haurra nintzela ezagutu nuen. Aitak Kontserbatorioko eskolatarako gure izena eman zuen eta hara joaten hasi ginen anaia zaharrena eta biok. Solfeoa ikastera. Eguerdietan, astean hiru aldiz, hamabietatik ordu batera. Aurreneko ikastaroa Montes izeneko irakasleak eman zigun. Eta bigarrenean On Modesto Domínguez izan genuen irakasle.

Gu festa moduan hasi Kontserbatorioan eta, bat ere ikasten ez bagenuen ere, gustura ibiltzen ginen. Urte haietan noski guretzat jolastea zen garrantzitsuena. Bigarren ikastaroko azterketa iritsi zenean, On Tomas Garbizu epai mahaian zegoen. Oso gaizki burutu genuen nonbait eta –anaia ondo gogoratzen da– honela aipatu omen zien mahaiko lagunei:

–Hauek al dira Ansorenaren bilobak?– Kontuan hartu gure aitona ere Kontserbatorio bertako irakaslea zela.

–Bai.

–Puf, ze txarrak diren.

Hala ere, aprobatu juxtu batez, azterketa gainditu egin genuen. Urteekin konturatu nintzen gure etxean maiz entzuten zela Garbizuren izena. Izeba-osabak edo aita koruan hark egindako obra bat prestatzen ari zirela eta aipamenak sortzen ziren, hark sortutako anekdota bat edo beste, baina hogeitau urte nituela, On Tomas Garbizu oraindik urrutiko musikaria besterik ez zen niretzat. Donostiako Txistulari Talde Experimentalean hasi nintzenean, ordea, bere txisturako musika ezagutzearekin batera musikari hark gure tresnarako idazten doai berezia zuela ikusi nuen. Hura ez zen beste askoren antzekoa: doinua, armonia mordoiloiz bete... Garbizuren musikan nota bakoitzak izaten zuen bere sorburua, bere zergatia, eta batez ere gure tresnak ezagutzen zituela eta maitatzen nabarmena zen. Horren adibide *Gure Erria* eta *Zubieta*, bietan maisu trebearen eskua sumatzen baitzen.

Garai hartan nintzen txistuaren afinakuntzaren inguruko lanetan hasia eta, M^a Coro Saenz Agirreren bitartez ezagutu nituen On Tomasek txistu eta organorako prestatutako moldaketa batzuk. Harrituta geratu nintzen. Hura ere oso lan berezia zen. Ez zen aurretik horrelakorik sortu txisturako. Eta M^a Cororen bitartez jakin nuen obra gehiago bazituela eginda, baina inork ez zituela jotzen eta etsita samar zegoela egindako lanaren probetxu eskasarekin.

Ez nuen ziri handiagorik behar. Berehala joan nintzen berarengana. Harrera oso ona egin zidan eta hortik aurrera elkarrizketa luzeak izan genituen. Tarteka etxera joaten nintzaion berriketan ordu pare bat igarotzeko asmotan eta harreman berezia sortu zen. Beraren bi-tartez jakin nuen txistu eta organurako obra horien jatorria.

Polentzi Gezalak –On Tomas bezala lezoarra– eskatu omen zion berak emandako doinu batzuk era horretan prestatzea disko batean grabatzeko asmoa zuelako. Baita On Tomasek gustura ekin ere eta lana burutu ere bai. Diskoa, baina, ez omen zen grabatu ahal izan azkenean. Eta Garbizu amorratuta zegoen, lana gogotsu egin eta obra horiek armairuan gordeta geratu zirelako. Hori jakinda, berehala esan nion:

–Nik agintzen dizut obra hauek sarri joko ditudala eta Euskal Herri osoko txistulariek ezagutuko dituztela.

Harrez geroztik saiatu naiz agindua betetzen. Garai hartantxe hainbat organo jotzaileekin kontzertuak ematen hasi nintzen eta beti programatzen nituen On Tomasen obrak. Gure txistulari taldeak ere hainbat kontzertu monografiko eskaini zizkion On Tomasi, eta sortzen zuen guztia era txukunean jotzen genuela eta jendearen harrera ona lortzen zuela ikusita, urte haietan txisturako obra askotxo idatzi zuen: Leitza, Ituren, Oraingo aldian,... Euskal Herriko Txistularien Elkarteak argitara ematen duen Txistulari aldizkarian ere, ni zuzendari nintzela, zenbaki monografiko bat eskaini genion.

Entseguetara sarri etortzen hasi zen. Txistua libre nahi zuen. Belarrian haurtzaroan entzundako danbolinteroen soinua zuen eta hura zen berarentzat abiapuntu.

–Hau, halabeharrez, honela idazten dugu, baina txistulariak askatasuna eman behar dio jotzerakoan. Txistua mendikoa da, hegaztiak bezala ibili behar du, libre eta airean.

Harreman hauetan asko ikasi genuen Garbizurengandik. Eta berak gurekin oso momentu onak igaro zituen. Maiz gertatu zitzaigun guk asteetan zehar landutakoa hankaz gora jartzea berarekin egindako entsegu bakarrean. Hala ere, biziberrituta ateratzen ginen musiketara blai sartzen gintuzten entsegu haietatik.

Zuzeneko harreman hauek konfiantza handira iritsi ziren. Berak beste tresnetarako sortutako hainbat obra zuzenean eman zidan txistu eta teklaturako egokitzeko aginduz:

–Zuk nik baino hobeto egingo duzu.

–Baina, nola?

–Zuk kasu egin.

Horrela egokitu nituen Isil isilik, berak jatorriz tronpa eta organorako sortua edo Ama ona, ahotsa eta teklaturako bertsioetik.

–Ondo dago. Baina –duda etortzen zitzaion batzuetan– txistuak hau ondo joko al du?– Orduan nik jo egiten nion.

–Kontxo, kontxo. Aurrerapena egin duzue txistuan, bai.

Niretzat, On Tomasen onarpen hura lortzea haurtzaroan egindako azterketa txarraren ordaina izan zen. Bera ez zen gogoratuko. Ni bai, ordea. Azkenean lortu nuen bere konformidadea.

Beti saiatu naiz esker onekoa izaten. Oraindik ere On Tomas Garbizuren obrak sarri programatzen ditugu. Merezi dutelako. Txisturako idazkera ausarta, orijinala eta sendoa dutelako. Bere musikaren bitartez, On Tomas ez dugu ahaztuko.

TOMAS GARBIZU

Pello Zabala

Cuando fui por primera vez a Aránzazu tenía yo pocos años. Era justamente el día solemne de la Virgen Patrona de Guipúzcoa. Entonces no estaba todavía proclamada como Patrona. Entré en la iglesia con mi madre en el momento de la Misa Mayor, y como yo conocía y sabía cantar la partitura que estaban ejecutando, quería a toda costa subir al coro para hacer allí mi pequeño papel. Efectivamente, dejé a mi madre en la iglesia y subí por el convento. ..hasta que al fin, preguntando a unos ya otros, conseguí llegar a donde quería.

Como es natural, causé la sorpresa de la comunidad, al ver que yo sin decir nada y sin permiso de nadie me acomodaba entre los chicos del colegio que cantaban la misa rodeados de bajos y tenores, que eran los mismos religiosos. Creo que era la Misa Pontificalis de Perosi...

Luego fui nombrado solista del coro de Aránzazu. Una de las lecciones de la Benedicta la cantaba yo siempre... Aprendí a tocar la flauta en la banda de música que teníamos en el colegio y también el clarinete... Actuaba en las funciones de teatro... Más tarde se hizo cargo de la banda y del coro el Padre Arregui: aumentó el número de voces y renovó totalmente el repertorio con obras modernas. Trajo partituras nuevas de autores modernos nacionales y extranjeros. A partir de entonces se cantó todos los años el famoso Laudes Marianae de Rachmaninoff, de mucho efecto y que es tradicional en Aránzazu y una de las obras obligadas del día 9 de Septiembre, festividad de la Virgen...

Tomasek esaten diguna *Recuerdos de mi infancia en Arántzazu* idazkitik hartu dut. 1952ko Arantzazu errebixtan idatzi zuen txosten gogoangarria, eta kontu jakingarririk kondatzen digu han, aurreko mostratxo horrek esaten digun gisara. Nire kalkuloa oker ez badabil, 1915eko irailak 9 zituenean igo zen Tomas Arantzazura, eta, bere ama elizan utzita, atrebentzia osoz, korura abestera.

Ñabardura bitxiak ekartzen dizkigu gogora. Koruko berri ematen digun bezala, Benediktako 6 mutikoen, Ama Birginaren aurrean abesten zutenaren berri ere bai: Tomas mutikoak berak abesten zuen tabla deitzen genion bakarlari-saio bietako bat.

Baina, beste bi kontu gogoan hartzekoak ere eman dizkigu: Arantzazuko mutikoen artean musika-banda bat zuten urte haietan. Halaxe da: erromesei ongietorria egiteko eta

agurra emateko hasi ziren hasiera batean: Aita Joxe Arruek lan bikaina egin zuen horretan. Talde horretan ikasi zuen Tomasek txirula eta klarinetea jotzen.

Eta bigarren kontua, zehazki adierazten diguna, maisu eta lagun izango zuen Aita Joxe Mari Arregirena da. Bai koruari eta bai bandari indar eta sustapen galanta emango baitzien. Abesten eta jotzen erakutsi, antzespen musikalak eginarazi, koruko kanta berriak erreperitorio aberatsean sartu... hori dena gogoratzen du Tomasek bere lagunzahar Joxe Mari Arregirekiko.

Arantzazura etortzean bazekien pianoa jotzen Tomas Garbizutarrak: estimu handian zuen bere anaia Jose apaizarekin ikasi omen zuen. Anaiaren bidez ezagutu zuen Juanito Telleria ere, Madrilera joateko gonbita egingo ziona.

Baina, niri gehiago inporta zait oraingoan, Arantzazun egon zeneko aldi ez luze horrek zenbaterainoko eragina eta marka utzi zion. Tomasek beti aitortzen zuen, egokierarik xumeena zetorkioneko, bera Arantzazuko fraileen laguna zela.

Felix Ibarrondo eta biok, Herriberrin (Olite) filosofia ikasten geundenean, Donostiako Kontserbatoriora piano ikasketetako azterketa egitera gentozenean, gu biok fraile jantzitako gazteak izanik, Tomas aldamera etortzen zitzaigun, eta Kontserbatorioko beste irakasleen aurrean harro-puntu batez prantatzen zen, bera ere fraileen artean hezi eta hazitakoa zela gogoratuz eta aitortuz.

Arantzazu para mí es un recuerdo bonito y un apoyo en mi vida. Hala aitortzen zion Aita Pedro Anasagastiri 1972ko udaberrian egindako elkarrizketa batean. Eta hori azpimarratzeko orduan, urte gazte haietako bere oroitzapenen artean, Aita Arregi lagunaren jiran lotutako akorduak, bai Arantzazukoak eta bai gerokoak, aletzen zizkigun.

En aquella época, el Padre Arregui revolucionó la música de Aránzazu, renovando totalmente el repertorio, con obras de Griesbacher, Hartmann y sus propias composiciones de corte moderno; todo esto dejó huella en mi afición a la música. El P. Arregui estaba relacionado con casi todos los músicos destacados: Gabiola, Urteaga, Zubizarreta, Echeveste, Guridi... y también con compositores profanos, como Pablo Sorozabal, porque el P. Arregui era un espíritu abierto a todas las tendencias, y era un gran franciscano (Sorozábal, que le estimaba mucho, le llevaba a un palco discreto para ver sus obras de teatro, entre ellas el estreno de "Black el payaso". También me confesó que Sorozábal le había dado o le daba 200 pesetas para los pobres; estoy hablando del año cuarenta...)

1972ko elkarrizketan aitortzen du hau dena Tomasek. Penatxo bat aitortzen zuen orduan Tomasek: Lezoko organoa ez jo izanaren pena, alegia. *Curioso: -zioen- no he tocado nunca en el órgano de Lezo, quizás porque no me dieron oportunidad; o por mi manera de ser, poco amigo de pactar con la gente, sobre todo si los demás no se adelantan a mis deseos...*

Beste pena bat ere azaltzen du elkarrizketa horretan, eta behin eta berriz adierazi zuen klaro asko, bere meza Benedikta Arantzazun ez kantatu izana. Enpeñu eta ahalegin guziekin landu zuen meza hau eta, Tomas Aragüesenarekin batera saria atera zuen Arantzazuko Basilika berria egin zeneko urte santuan. *Después del Concurso, esperé tres años, a ver si estrenaban en Aránzazu. Y, en vista de que no había nada que hacer, pedí al P. Iturria que me la devolviera, a fin de darle un repaso, ya que la había compuesto en el término de un mes.*

Aita Karmelo Iturriak berak Arantzazu aldizkarian, Tomas hil zenean idatzitako lanetik nahi nuke gogora ekarri Benedikta mezarekiko kontu hau, gertuagotik jarrai ziola-ko berak. Honela dio 1990ko otsaileko aldizkarian:

"Gogoratzen naiz nolako mina eman zion Garbizuri lehenengo saria ez irabazteak (lehen saria ez baina, bi accesit eman baitzituzten). Baina min haundiagoa eman zion bere Meza "Benedikta" Arantzazun ez estrenatzeak. Behin eta berriz esan ohi zidan urte haietan: "Nik nire meza Arantzazurako egin dut, Arantzazuko Amari eskaini diot, eta Arantzazun estrenatu behar da". Baina tamalez, ez zen hemen lehenengo aldiz eman. Beste Meza batzuk abestua izan ziren, esate baterako, Aita Madinarena eta Tomas Aragüesena. Baina Garbizurena ez. Eta horixe da orduan Arantzazuk Garbizurekin egin zuen bekatu larria... Orduko Koru-zuzendaria ez zen ausartu Garbizuren Meza kantarazten, zail samarra iruditu zitzaiolako nonbait..."

Gu, mutil koskorrak ginen orduan. Handik urte pare batera, Kolegioko mutilak oporretara joaten hasi ziren, eta ordutik ez zen meza berririk ikasterik izan, udako entsegu orduak bertan-behera gelditu baitziren. Zaila iruditzea litekeena da, bai tipleei eta bai tenoreei dezente eskatzen baitie Benedikta mezak: gure Seminarioko mutilak nekez eman zezaketen meza horren eskakizuna, jakinik mutilak agudo aldatzen zutela ahotsa. Baina, arazo nagusia, mutilen oporrekin etorri zen: ordutik gainbehera joan zen Arantzazuko Koruaren jarduna, gizonezkoetara mugatzeraino.

Samin honek iraun zuen bere barruan. Inoiz apur bat itsutu ere bai, esan baitzuen Aita Anasagastik egindako elkarrizketan, minduta zegoela Arantzazun bere musika ez genuelako estimatzen...". *Tampoco se cantó la música de Semana Santa publicada por los benedictinos de Lazkano, y cantada en otros muchos lugares"*.

Ez da kontu zuzena horrela esanda. Lehen urteetatik hartu genuen Tomasen -Aste Santuko doinuteri hori, nahiz eta, normala den bezala, ez genuen den-dena abesten, Arantzazun lehendik bazirelako doinu batzuk bertarakotuak. Baina, hasi Erramu Igan-dez, prozesioko kantuekin, eta Ostegun Santuz eta Ostiral Santuz, doinu asko Tomas Garbizurenak abesten ditugu, sortu zirenetik hasi eta urterik hutsegin gabe. Ongi dakit hau, neronek zuzentzen baitut herriaren kantu-emana.

Nolanahi ere, frantziskotarrokin loturak mantendu zituen. Bai A. Arregirekin, bizi izan zen artiokoan eta baita A. Bittor Etxebarria bere organo-ikaslearekin ere... *Un día vino el P. Arregui a mi casa de mi Madrid, y, al escuchar en el piano algunas de mis composiciones que yo se las ejecutaba, exclamó sorprendido: --¿De dónde te salen a ti estas armonías... ? Donostiako gure komentura ere sarri etorri izan zen. Con frecuencia, acudo a los Franciscanos de Atocha para distraerme en el órgano. y miro con cariño y evocación la vidriera de la Virgen de Arántzazu, con su clásica estampa del pastor Rodrigo deBaltzategi y sus dos corderitos; me encanta pronunciar el apellido Baltzategi.*

